



XIV  
IDAZLAN  
KOADERNOA

2015  
DBH/Batxilergoa  
GERNIKA-LUMO



Argitaratzailea:

**Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta Hezkuntza Saila**

Laguntzaileak:

**Barrutialde Institutua**

**Gernika-Lumoko Institutua**

**Mertzedek Ikastetxea**

**San Fidel Ikastola**

**Seber Altube Ikastola**

**HHI Gernika-Lumo**

Azalaren egilea:

**Claudia Parfene**

(DBH 3. mailako ikaslea)

Babesleak:

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)**

**Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila**

(Euskera Zuzendaritza)

Inprimaketa:

**Lizaso GRAFIKAK (ZORNOTZA)**

**2015eko edizioa.**

## HITZAURREA

“Urruneko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau”:  
esaera zaharrek usadioetan, denboraren joan-  
etorrian dauden gertakarien behaketak damaigun  
jakiturian errotzen dute euren egia. Baina buelta  
emango bagenio atsotitzari, ez al luke, baita, bete-  
betean egia esango? Zein da, bada, Idazlan  
Koadernoan errealitatea, oparotasuna baino?

“Urruneko intxaurrak... lau?” esango zukeen  
norbaitek lehen edizioa erditzean, denboraren  
poderioz koaderno jaioberriek indarra galduko ote  
zuten beldurrez. Arnasa sakon hartuta, baina, esan  
dezakegu urruti heldu garela, eta intxaurrak  
hamalau ditugula, eder eta osasuntsu, euren XIV.  
edizioan. Ze lagungarri izan dezakegun metafora!

Zorionak, berriro ere, uzta pozgarri hau posible  
egin duzuen guztioi. Zorionak, eta eskerrik asko!

2015ko martxoan

KULTURA, EUSKARA ETA HEZKUNTZA ZINEGOTZIA



Naiara Urberuaga Erkoreka

# AURKIBIDEA

IZENA	MAILA	IDAZLANA	Or.
Sara Iturriarte	DBH 1. maila	<i>“Adiskidetasunaren indarra”</i>	
Julen Arrien Urzaa	DBH 1. maila	<i>“Samed eta Hunglaren bizitz”</i>	
Ortzi Garmendia	DBH 1. maila	<i>“Urdaitxoren bidaia”</i>	
Paula Aldana	DBH 2. maila	<i>“Ustekabeko istripua”</i>	
Gorka Gorrindo Heras	DBH 2. maila	<i>“Odol berekoak”</i>	
Andrea Uriarte Revuelta	DBH 2. maila	<i>“Paradisua ala infernua?”</i>	
Angela Butron Gandarias	DBH 2. maila	<i>“Bikiak”</i>	
Maialen Altuna Lakarra	DBH 2. maila	<i>“Lagun bi, erlijio bi, prentsatzeko modu bi eta mundu bi”</i>	
Leire Gordo Badiola	DBH 2. maila	<i>“Aldi joana ez da itzultzen”</i>	
Irantzu Idoiaga Zelaia	DBH 2. maila	<i>“Bidaia bat eta bueltan”</i>	
Claudia Parfene	DBH 3. maila	<i>“Begiak ireki”</i>	
Alaia Elejalde Iturbe	DBH 3. maila	<i>“Musulmana, bai”</i>	
Oier Garcia Onaindia	DBH 3. maila	<i>“Ashville herria”</i>	
Jon Santa María	DBH 3. maila	<i>“Jimmyren ipuina”</i>	
Patricia Guarrotxena Astillero	DBH 3. maila	<i>“Jaurtiketa”</i>	
Samuel Nita	DBH 4. maila	<i>“Maitasun itsua”</i>	
Julen Karrion Lamikiz	BDH 4. maila	<i>“Lagunak jabon”</i>	
Ainara Olea Urionabarrenetxea	DBH 4. maila	<i>“Distantziaren esanahaia”</i>	
Leire Ramiro Vaquero	DBH 4. maila	<i>“Kristalezko kopa”</i>	
Maite Sarrionaindia Juaristi	DBH 4. maila	<i>“Erdu!”</i>	
Maidier Urlezaga	BATX. 1. maila	<i>“Ausardia olatu bat”</i>	
Xabier Bengoa	BATX. 1. maila	<i>“Zeru eta infernuko eraztunak”</i>	
Ainhoa Zugadi	BATX. 2. maila	<i>“Aitak dio indarra galdu duzula”</i>	
Angela Borchers	BATX. 2. maila	<i>“Denboraren orratzak”</i>	
Leire Pereira Uriguen	BATX. 2. maila	<i>“Nahikoa begirada bat, nahikoa irribarre bat”</i>	
Leire Unamuno Kaltzada	BATX. 2. maila	<i>“Ametsak egia bihurtzean”</i>	
Iker Aldamizetxebarria	BATX. 2. maila	<i>“Haurtzaroko malkoen mintzoa”</i>	
Itsasne Foruria Asteinza	BATX. 2. maila	<i>“Arbasoei buruzko gogoetak eta istorio labur bat”</i>	
Jon Gorriño Arriaga	HHI/EPA	<i>“Arbasoei buruzko gogoetak eta istorio labur bat”</i>	

XIV.  
IDAZLAN  
KOADERNOA  
DBH / Batxilergoa  
GERNIKA-LUMO  
**2015**



**Sara Iturriarte**  
**DBH 1. Maila**

*“Adiskidetasuna da munduan denok elkartzen gaituen sentimendua  
eta ipuin honen bidez azaldu nahi izan dut”*

# ADISKIDETASUNAREN INDARRA

Larunbat goiza zen. Neure burua ohean aurkitzen nuen izara goxo eta beroez estalia. Ez neukan dudarik, eta berehala jakin nuen larunbata zela. Ohetik jaikitzean, leihora hurbildu nintzen. Ez zegon inor kaleetan zehar eta denda denak itxita zeuden, larunbat goiz normal baten moduan. Orduan haize fin eta leun batek lurreko hosto lehor guztiak altxatu zituen *Cow Boy* filmeetan bezala. Leihotik urruntzerakoan, nire arrosa koloreko txapin gogokoenak jarri nituen, eta janzteari ekin nion.

Ohartu baino lehen, amak deitu zidan, gosaltzera joateko esanez eta nik baiezkoa eman nion. Amak, inoiz baino gosari ederragoa eta oparagoa egin zuen eta nik dendena irentsi nuen. Ez zen apur bat ere geratzen eta laranja zukuari azken zurrutadak eman nizkionean berriz igo nintzen nire logelara. Gelako aulki zurian eseri, eskolako liburuak atera eta lanak egiten hasi nintzen. Baina lehenengo hitza jarri bezain laster telefono mugikorra jotzen hasi zen. Hartu eta betiko erantzuna eman nuen: *“Bai?”*. Baina ahots hau ezaguna zen. Ahots honek betidanik ezagutzen nuen doinu liraina eta txukuna baitzuen. Nire gelakide bat zen! Honek, hainbat eta hainbat gauza aipatu zizkidan baina egia esanez, nik gauza bat baino ez nuen ondo ulertu, gelako norbaiten urtebetetzea zela eta gelakide guztiak gaur arratsaldean elkartuko ginela haren 13. urteak ospatzeko. Behin ere pentsatu gabe opari bat erosteari ekin nion eta gainera arratsaldean jantziko nuen soineko polit bat ere. Baina orduan ohartu nintzen larunbata zela, eta denda guztiak itxita zeudela. Ez neukan beste erremediorik eta nik eginiko zerbait asmatu behar nuen lehenbailehen. Pentsatu eta pentsatu eta pentsatu... zer egin! Azkenean argazki bat oparitzea erabaki nuen, gelakide guztiekin; oroigarri ederra dela pentsatu bainuen. Oraindik bazkalordua zen eta bostak noiz helduko zain geratu nintzen

erlojuari begira. Denbora azterketa luze bat baino astiroago igarotzen zen, eta minuturo begiratzen nuen horma zurian neukan erlojua.

Berriz ere amaren ahotsak bazkalordua zela adierazi zidan eta bazkaltzeari ekin nion lasai-lasai. Jatekoa ere amak munduko goxoena egin zuen eta mota askotarikoa ere, ez nuen ulertzen zergatik horrenbeste lan.

Bi ordu pasa nituen gelditu gabe, mahaiari zegoen guztia jatearren eta azkenik bukatu nuen. Ordu biak ziren, siesta botatzeko garaia, baina ez neukan siesta edota merienda denborarik, ez. Jantzi egokia aurkitu behar nuen baina nire armairuan ezkututzen zen guztia modatik kanpo zegoen. Birritan pentsatu nuen nengoen egoeran eta konturatu nintzen: “*Zergatik ez amaren bat?*”. Korrika joan nintzen amaren logelara gepardo bat banintz bezala, sekulako zalaparta egiten. Armairu marroi iluna ireki eta ... ez zegoen ezer! Amari deitu nion eta hau, ziztu bizian igo zen. Egoera azaldu nion eta berak, gordeta zuen jantzi zuri-zuri bat eman zidan, elurraren modukoa eta eguzkiak bezala zituen dirdirekin. Inoiz ikusi nuen soinekorik politena eta distiratsuenena zen eta jada nirea zen! Laurak ziren jada eta jantzi egin nintzen. Ez zegoen dudarik jantzi hura niretzat egina zegoela, hain ondo geratzen zitzaidan! Tira-tira, dena prest neukan: argazkia, jantzia eta patata frijitu baten bat bidean jateko, oso tripontzia baino ni. Amari, masail beroetan bi musu handi oparitu nizkion eta atea danbateko handi batez itxi nuen. Kanean lehen baino jende gehiago zegoen eta jada ez zuen ematen *Cow Boy* filmeetako bat.

Nire lagunak esan zidaten, herriaren erdigunean aurkitzen zen jolastokian elkartuko ginela eta nire etxetik nahiko urrun dago hori, beste puntan bizi baino. Baina, zer erremedio! Argazkia gordetzen nuen poltsa urdina hara eta hona astintzen nuen eta saltoka eta saltoka ibili nintzen. Hagin artean limoi zaporeko txikle bat nuen eta lasai-lasai murtxikatzen nuen, nagusia izango banintz bezala. Kosta zitzaidan baina mila buelta eman ondoren heldu nintzen jolastokira, baina han ez zegoen inor. Orduan nire gelakideetako bat ikusi nuen eta zerbait utzi zuen lurrean. Gutun bat zen, honela zioen: “*Gu aurkitu nahi bagaituzu gutun hauek jarraitu beharko dituzu.*” “*Zer arraroa! Pertsonaz erratu ahal dira?*” Ez nintzen ni ere ezkutuan egon beharko? Banan-banan kontatu nituen gutun guztiak eta ohartu bezain laster seigarrena aurkitu nuen farola baten alboan. Baina, besteek ez bezala, honek honela zioen: “*Heldu zara zure amaierara, orain zuk aurkitu gu.*” Leku guztietan begiratu nuen eta azkenik bira erdia eman nion nire gorputzari. Ez nuen ezer ulertzen. Nire atzean zeuden denbora guztian eta denek zuten urtebetetzeetako apaingarriak soinean. Baina gehien harritu ninduen gauza, kartel handi batean “ZORIONAK” jartzen zuela eta hori eusten bere urtebetetzeak ziren gelakidea zela. Hau ez zen batere ohikoa larunbat arratsalde baterako.



Denak hurbildu zitzaizkidan zorionak ematen: musuak, laztanak eta besteen artean opariak... Denei galdetu nien: “Zergatik?” eta denek erantzun zidaten: “*Zure urtebetetzea delako!*” Ez zen posiblea. Taberna batera joan nintzen ziztu bizian eta... Bai! Arrazoi zuten, nire urtebetetzea zen! Lehenik, posez zorutzen saltoka hasi nintzen baina ondoren masailak gorritu eta dena ulertzen hasi nintzen, amaren janari goxoa, ezusteko festa gelakidearentzat... Hori da hori! Beno, ez naiz gehiago luzatuko. Egun zoragarri bat igaro nuen lagunekin eta etxera iristean amari dena kontatu nion eskerrak emanez janagatik. Baina egun horretan gauza garrantzitsu bat ikasi nuen, nire bizitzan dena aldatuko zuen gauza bat: lagunek eta familiak asko maite nautela eta ni pozik jartzeko eta nire apetak betetzeko edozer egingo luketela, baita larunbat arratsalde batean festa bat jartzea ere, eta kontua da beti maitatu behar dituzula momentu on eta txarretan ere, hori baita adiskidetasunaren indarra!





**Julen Arrien Urzaa**  
**DBH 1. Maila**

*“Niri saskibaloira jolastea gustatzen zait. Gora gu  
ta gutarrak, eta, gora nire lagunak!!!*

## **SAMED ETA HUNGLAREN BIZITZA**

Behin, Hego Afrikako herri batean, bi ume jaio ziren, bikoitzak, Samed eta Hungla. Euren aita gerran zebilen, eta, ama eta amonarekin bizi ziren. Samed eta Hungla itxuraz berdinak ziren, baina izaeraz desberdinak. Samed oso bihurria zen eta Hungla, aldiz, oso arduratsua eta lasaia.

Hiru urte zituztela, ama hil zitzaizen gaixotasun batekin, eta geroztik euren amonak haziak izan ziren. Oso txiroak ziren, baina biak zoriontsuak. Eskolan, ez zuten bizimodu ona izan. Maisuek, oso gaizki tratatzen zituzten. Latigoekin lepoa jo eta bizkarra txiki-txiki eginda uzten zien, erregelarekin eskuetan jo, eta beste hainbat gauza txar. Baina gauza txar haiek guztiak eginda ere, ez zieten etxekoei ezer esaten.

Egun batean, hegazkin batzuk ikusi zituzten zeruan hegan, eta bat-batean bonbak jaurtitzen hasi ziren.

- *Bonbardaketa! Denok babes-lekuetara!/-* esan zuen herriko gizon batek.

Denak korrika, zahar eta ume, gorde-lekuetara korrika joan ziren salbu egoteko. Hala ere, hegazkinetatik bonbak jaurtitzen jarraitu zuten, eta bonbardaketa amaitutakoan, Samed, Hungla eta beste herritarrek kanpora irten ziren.

Dena birrinduta eta sutan zegoen. Berrito bonbardaketa bat gertatu eta denak hil ez zitezten, 3-13 urte bitarteko haurrak hartu, itsasontzi batera eramane, eta Irlandako landetxe batera eramatea erabaki zuten herritarrek.

Samed eta Hungla oso triste jarri ziren hori jakiterakoan. Hungla, negarrez hasi zen, eta ihes egin zuen. Samed, Hunglarenatik kezkatuta, bera aurkitzera joan zen. Hainbeste ahalegin egin ondoren, harkaitz baten gainean aurkitu zuen negarrez zegoelarik.

- *Zer duzu Hungla?*- galdetu zion Samedek.
- *Ba, nik ez dut hemendik joan nahi.*- erantzun zion gazteak triste.
- *Ea, goazen amonarengana, kezkatu egongo da-eta.*

Eta hala, amonarengana itzuli ziren.

Bi aste igarota, umeak eramateko ontziraino iritsi ziren. Denak zeuden tristurak jota.

- *Ongi ibili, umeak, eta zaindu elkar. Noizean behin eskutitz bat idatziko dizuet, eta zuek ere idatzi.*-esan zuen amonak.

Eta horrela, itsasontzia abiatu zen umez beterik zihoala. Barruan, gelak aukeratzen ari ziren, baina kankailu batek Hungla bultzatu zuen, eta Samedek, haserretuta, kankailuari barrabiletan ostikoa eman zion. Eta hala, borrokan hasi ziren gelditu gabe, zaintzaileak ikusi eta liskarra gelditu zuen arte. Hala ere, elkarri garrasika jarraitu zuten. Baretu zirenean, Samed eta Hungla beste leku batera joan ziren bakean egoteko.

Gaua heldu zen, eta afari triste bat eman zieten afaltzeko. Hala, Samed egunero botaka ibiltzen zen. Hiru astetan egon ziren horrela, mendiko landetxera iritsi ziren arte.

Landetxean, aitona-amona batzuk bizi ziren eta poz-pez hartu zituzten denak. Bertan, hurrengo egunetan, landareak landatzen hasi ziren. Umeak, pozik zebiltzan landetxeko baratzean, nahiz eta besoak minduta eduki hainbeste lan egiteagatik. Han, bazkaritan, eurek landatutako barazkiak jaten zituzten, eta oso gustura gainera. Arratsaldeetan, Hungla leku batera joaten zen, eta Samed, bere atzetik isilka joan zen. Behin, Hungla, amildegian bateko harkaitz batean geratu zen. Samed, orduan, zer gertatzen zitzaien galdetzerakoan joan zen, eta negarrez aurkitu zuen.

- *Zer gertatzen zaizu, anaiatxo?*-galdetu zion Samedek zer egin ez zekiela.
- *Herriaren eta amonaren fata dut.*-erantzun zion Hunglak.

Samed, Hungla lasaitzen saiatu zen, eta lasaitutakoan zutitu egin ziren, baina Hunglaren gainean zegoen harria hautsi eta amildegian erori zen. Hungla ere amildegitik erortzear zegoela, Samedek eskutik heldu, eta goraka altxatzen gogor saiatu zen, eta asko kostata, Hungla salbatu egin zuen. Zaintzaileari zer gertatu zen azaldu ondoren, umei debekatu egin zion bertara joatea egun haietan. Samedek eta Hunglak ez zuten ahaztu amildegian gertatutakoa. Itsasontziko kankailua, beti bezala, eurei abusatzen ari zen, eta Samed baratzeako tomatea aurpegira jaurti zion, eta oraingoan, Hunglak inoiz egin ez zuena egin zuen, kankailuari aitzurra bota zion. Samed harrিতuta utzi zuen.

- *Ni nintzela "mila saltsatoko perrexila" eta bihurria uste nuen.*

Eta Hunglak, barre egin zuen. Ordutik aurrera, ez zien inoiz beraiei burlarik egin.

Egunak joan, egunak etorri, mutikoek 16 urte bete zituzten. Horregatik, berriro euren herrira itzultzea erabaki zuten. Festa bat antolatu zieten agur esateko, eta landetxeko aitona-amonek itsasontzi bat eman zieten. Samed eta Hungla, pozik eta triste zeuden. Pozik, euren herrira itzuliko zirelako, baina triste, landetxeko lagunei agur esan behar zielako.

Bidaian abiatu ziren, herrira itzultzeko gogo biziekin. Prest zeuden denei aurre egiteko. Herria nola zegoen ere ez zekiten, baina berdin zien. Hala abiatu ziren bidaian, amona maitea ikusteko itxaropenez.

Egun batzuk igarota, itsasikara eta zurrunbilo batzuk ikusi zituzten. Beldurtuta zeuden, baina aurre egin, eta salbaturik atera ziren. Samed begira zegoen, ea euren herria ikusten zuten ala ez, baina oraindik arrastorik ere ez zeukaten. Halako batean, zerbait ikusten hasi ziren. Saltoka hasi ziren, euren herria zelako, eta iristear zeuden. Itsasontzitik jaisterakoan, ez zuten ezer txarrik ikusi... Jende asko zegoen, denak irribarretsu. Halako batean, emakume adineko bat, eurengana joan zen.

- *Samed, Hungla, zeuk zarete, amona naiz!!!*

Mutikoak eta amona, hunkiturik, negarrez hasi ziren. Etxera joan ziren, eta amonak herrian gertatutako guztia azaldu zien.

Handik aurrera, zoriontsu bizi izan ziren.



**Ortzi Garmendia**  
**DBH 1. maila**

*“Eskiatzea , lagunekin jolastea eta idaztea gustatzen zait”*

## URDAITXOREN BIDAIA

Bazen behin Urdaitxo deitzen zen arrano arrantzale txiki bat. Urdaitxo izena jarri zioten Urdaibaiko herri txikitxo batean jaio zelako. Bere amarekin bizi zen baso batean; bertan animaliek oso ondo tratatzen zituzten animalia guztiak. Habi txiki bat zuten zuhaitz handi baten. Urdaitxok ez zuen aita, ehiztariak harrapatu zuten janari bila zihoala. Urdaitxo oso txikia zen, lau edo bost hilabete zituen eta oraindik ez zekien hegan egiten.

Goiz batean, zarata asko zegoen basoan. Animalia guztiek ez zekiten zeren zarata zen 30 ehiztari ikusi arte. Animaliak beldurtu egin ziren eta ahal zutenek ihes egin zuten baina beste batzuk ezin izan zuten eskapatu. Ehiztariak eskopeta mordera zuten eta animaliei disparatzen hasi ziren. Urdaitxoren amak Urdaitxo besoetan hartu eta ihes egiten saiatu ziren. Ehiztariak zuhaitzak bota zituzten basoa utzik geratu arte eta gero basoari sua eman zioten.

Bat batean, Urdaitxoren amari ehiztari batek disparatu egin zion eta biak batera lurrera erori ziren. Urdaitxoren ama ez zen mugitzen eta Urdaitxo negarrez hasi zen. Bat batean txepetx batek Urdaitxo besoetan hartu zuen eta leku seguru batera eraman zuen. Urdaitxok egunak eman zituen esnatzen eta esnatu zenean.....

- *Non demontre nago!! Non dago nire ama!! Zertan ari naiz ni hemen?? AMAAAAA!!!!*
- *Kaixo ni Txepe deitzen naiz. Egon trankil Urdaibai Bird Centerren zaude eta dituzun golpeak hemen osatuko zaizkizu. Nire laguna izan nahi duzu???*
- *Bai noski, niii..... niiii..... Urdaitxo deitzen naiz. Ba al dakizu zer gertatu zaion gure basoari eta nire amari???*
- *Egon lasai txiki, horrek oraintxe ez du garrantzi handirik, konturatuko zara egunen baten.*

Txepek ez zion ezer esan nahi Urdaitxori oso tristea zelako dena.

Asteak igaro ondoren, Urdaitxo osatu egin zen eta Txeperekin Afrikara joan zen urriaren 6an. Egunak eman zituzten, lehenengo Txepek Urdaitxori hegan egiten erakutsi zion eta orduantxe abiatu ziren Afrikara. Bidaian oztopo asko aurkitu zituzten baina azkenean urriaren 27an Morokora heldu ziren. Bertan negu osoa pasatu zuten eta otsailaren 23an Euskal Herrira bueltatu ziren. Bi txoriek erabaki zuten Iratiko basora joatea. Entzun zuten baso hori oso handia zela, animaliak oso jatorrak zirela ...

Bertara iritsi zirenean, animalia mota mordoa zegoen: oreinak, basurdeak, txoriak, azeriak eta hartz txiki bat ere, bere izena Kamiltxo (Pirinioetako hartza).

Animalia guztiak pozik bizi ziren baso hartan eta, bi txoriek lagun berri asko egin zituzten. Gau batean Urdaitxok amets arraro bat izan zuen. Pilo bat ehiztari Irati basora etortzen zirela eta baso guztia apurtzen zituztela. Gero animalia gehienak hil eta beste guztiak zoologiko batera eta...

- *Urdaitxo, Urdaitxo!!!!!!! Esnatu !!! Amets bat da dena lasaitu.*

- *Oso amets arraroa izan da, pila bat ehiztarik baso hau apurtuko dute!!!!!!!!!!!!!!!!!!!! Zerbait egin behar dugu!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!*

- *Lasaitu zaitez bihar basoko animalia guztiekin egingo dugu berba eta zerbait planifikatuko dugu ehiztari maltzur horiek baso polit hau ez apurtzeko.*

- *Idea ona .*

Hurrengo egunean bi txoriek dena esplikatu zuten, orduan animalia guztiak beldurtu egin ziren.

- *Ezin gara beldurtu, bestela basoa bota egingo dute. Animalia guztien artean baso hau defenditzea lortuko dugu eta horrela ikasiko dute ehiztariak animaliek ere gure lekua behar dugula bizitzeko.*

Animalia guztiak hasi ziren beste animalia batzuei esaten eta horrela plan bikain bat egin zuten. Animalia askok hartu zuten parte, denak zeuden haien postuetan, denak ehiztariari itxaroten. Handik ordu batzuetara, 10 ehiztari etorri ziren eta ez zuten animalia bakar bat ere basoan ikusten.

- *Ze arraroa ez dago animalia bat ere ez. Zuk ikusten ahal duzu baten bat?*

- *Ez. Oso arraroa da dena. Goazen hemendik beldur handia dut.*

- *Egon lasai !!!! Guk eskopetak, aizkorak eta motozerrak ditugu eta haiek zer daukate?*

- *Egia. Ez daukate ezer. Goazen denak harrapatzera.*

Bat-batean animalia guztiak haien ezkutalekutik irten ziren eta ehiztariari jarraitzen hasi ziren. Baina jarraian 100 ehiztari baino gehiago etorri ziren eta animaliek ezin zuten ezer egin. Zuhaitz denak botatzen hasi ziren eta animaliak disparatzen. Dena zegoen sutan, baso guztia Porrotxen sudurra baino gorriago zegoen. Urdaitxok ezin zuen ezer egin eta negarrez hasi zen.

- *Bigarren aldiz gertatzen zaidala hau, zergatik... zergatik... zergatik apurtu behar dute basoa. Ez dut ulertzen. Guk ez diegu ezer egiten, eta beraiek guri...gure etxeak apurtzen dizkigute. Zergatik egiten digute hau. ZERGATIK!!!*

- *Lasai Urdaitxo. Oraindik ez dugu galdu. Segitu niri.*

Ehiztariak Iratiko basoa apurtzen segitzen zuten eta animalia Orhi zuri eta Orhi beltz erreketara joaten ziren ura hartu eta sutara botatzen zuten; pixkanaka-pixkanaka sua amatatzen zegoen baina ehiztariak gasolina gehiago bota zuten. Urdaitxo eta Txepe Kamiltxo hartzaren kobazulora joan ziren Kamiltxori laguntza eske.

- *Kamiltxo lagundu basoa salbatzen.*

- *Oso zaila izango da baina saiatu egingo gara .*

Kamiltxo ehiztariengana joan zen eta gizakien moduan egiten zuen berba. Ehiztari guztiak beldurtu egin ziren eta korrika hasi ziren. Ez zeukaten lekurik eskapatzeko, eta amildegi handi batera heldu ziren. Animalia guztiak inguratuta, ezin izan zuten ezer egin. Ehiztari denak errenditu egin ziren eta eskopetak eta tresna guztiak erretera bota zituzten. Batek izan ezik. Horrek eskopeta hartu eta Kamiltxo hartzari 3 tiro eman zizkion. Kamiltxok eskua altxatu zuen eta ehiztariari begirada bat egin zion eta ez zion ezer egin, eskapatzen utzi zuen. Handik aurrera inoiz ez zuten ehiztariak Euskal Herriko basorik erre. Kamiltxo handik aurrera ez da inoiz ikusi.

Jendeak esaten du Pirinioetako kobazuloren baten dagoela. Urdaitxo eta Txepe berriro bueltatu ziren Urdaibaira eta bertan lagun asko egin zituzten. Eta beste animalia guztiak pozik bizi dira beraien etxetan, zuen moduan.

EZ ZEN HOBE IZANGO ANIMALIAK ETA GIZAKIAK BATERA BIZITZEA BAKOITZA BERE LEKUAN????



**Paula Aldana**  
**DBH 2. maila**

*“Korrika egitea eta irakurtzea gustatzen zait.”*

## USTEKABEKO ISTRIPUA

Urtarrilaren 3a zen. Hotz handia egiten zuen kalean eta zapatu guztietan egiten zuen moduan, Uxue kalera irten zen bere lagunekin. Uxue neskatila oso lotsatia zenez, gauza asko zailagoak egiten zitzaizkion. Ez zuen bere lagunek bezala konfiantzarik berarengan eta adibidez, ez zen gustuko zuen mutilarekin hitz egitera ausartzen.

Zapatu arratsalde horretan taberna batetara joan ziren. 16 urte zituzten, beraz, tabernetara sartzen uzten zieten 18 urte izan ez arren. Hiru ordu laurden geroago, Uxue oso mozkortuta zegoen. Mozkorra zela eta, gustuko zuen mutilarengana, Anderrengana, joan zen eta hizketan hasi ziren:

— *Kaixo Ander!* — esan zion Uxuek ia ezer ahozkatu ezinik.

— *Ondo al zaude?* — galdetu zion Anderrek kezkatuta.

— *Bai! Ederto batean nabil!* — alai-alai Uxuek.

— *Ba, pozten naiz baina apur bat kontrolatu egin behar duzu zure burua, azkenean botaka hasiko zara eta.*

— *Nik neure buruaren kontrola dut, egon zaitetz lasai.*

Eta ia ibili ezinik Anderren albotik joan zen. Ordu bat gehiago egon ziren taberna barruan, baina bat-batean Uxue desagertu egin zen.

— *Non ote dago Uxue?* — esan zuen Ametsek, Uxuen lagun batek.

— *Ez dakit, baina orain dela bost minutu hementxe ikusi dut* — esan zuen beste lagun batek

— *Ez da kanpora irten, ezta? Hori oso arriskutsua izango litzateke* — Ametsek kezkatuta.

Denak taberna kanpora irten ziren eta Uxue errepede erdian ikusi zuten.

— *Uxue, etor zaitez hona!* — esan zuten oihuka denek batera.

Baina Uxuek ez zuen entzuten eta bat-batean auto bat etorri eta jo egin zuen.

Hurrengo goizean, ospitalean...

— *Non nago? Zer egiten dut nik hemen?* — Uxue galdetzen hasi zen.

— *Ospitalean zaude, Uxue. Bart gauean auto batek jo egin zintuen mozkortuta errepede erdian zeundela, baina egon zaitez lasai* — esan zion gozo-gozo mediku batek.

Hori esan eta gero, medikua logelatik irten zen. Uxueren gurasoak sartu ziren eta besarkada handi bat eta bi musu eman zizkioten.

Ordu erdi igaro ondoren, medikua berriro sartu zen logelan.

— *Zoritxarrez, berri txarrak ditugu.*

— *Zer gertatzen da?* — galdetu zuen amak kezkatuta.

— *Uxuek hemendik aurrera ezin izango du ibili.*

— *Zer? Nola ezin izango dudala ibili?* — egin zuen oihu Uxuek.

— *Lasaitu zaitez, Uxue, zu baino okerrago daude beste batzuk. Ez da hainbesterako* — esan zion lasaitzeko asmoz aitak.

— *Nola lasaituko naiz orain dela minutu erdi, gehiago ezin izango dudala ibili esan badidazue?* — oihuka Uxuek. Eta hori esanda negar bizian hasi zen.

Apur bat beranduago, Uxue lasaitu zenean bere gurasoak hain txarra ez zela konbentzitzen saiatu ziren. Bere lagunak ere etorri ziren bisitan eta bere familiakoak. Denek ekartzen zizkioten opariak eta animoak ere ematen zizkioten. Baina bere lagun guztiak etorri ziren Ander izan ezik. Uxue oso triste zegoen.

Aste bat igaro zen eta egun batean, ustekabean, Ander joan zitzaion bisitan. Uxue oso urduri jarri zen, ez ziola onartuko pentsatzen zuelako.

— *Ondo al zaude Uxue? Badakit gogorra izango dela zuretzat eta nire animo guztiak ematen dizkizut.*

— *Eskerrik asko, Ander. Asko eskertzen dizut etorri izana.*

— *Oso kezkatuta nengoen eta zoritxarrez ezin izan nintzen joan den astean etorri, sentitzen dut.*

— *Lasai, ez da ezer gertatzen.*





Uxuek hori esan ondoren isilik geratu ziren. Bi minutu igaro ziren eta ez batak ez besteak ez zuten ezer esaten, orduan bat-batean Ander zutitu egin zen.

*—Beno, banoa, joan egin behar naiz.*

Hori esan eta musu bat eman zion. Uxue oso pozik jarri zen.

*—Agur, ondo ibili.*

*—Berdin, Ander, eskerrik asko bisitarengatik.*

Hortik aurrera Uxuek Anderrekin konfidantza gehiago zuen eta gainera mundu guztiak laguntzen eta animatzen zuen. Bere zailtasuna gainditu zuen eta berriro ibiltzen hasi zen ere.



**Gorka Gorrindo Heras**  
**DBH 2. maila**

*“Irabaztea garrantzitsua da, baina galduz  
ikasten da garaipenaren benetako balioa”*

## **ODOL BEREKOAK**

Telefono deia izan nuen aitarena: *“Gurutzetako ospitalera joan behar dugu, laztana. Anbulantzian goaz. Jontxuri azterketa gehiago egin behar dizkiote han. Joan ohera. Ez itxaron itzarrik. Ez dakigu noiz itzuliko garen eta.”*

Mutu geratu nintzen telefonoaren bestaldean. Danbada izan nuen buruan. Danbada izan nuen bihotzean. Anaia txikia ez zegoen ondo eta herriko ospitaletik Gurutzetakora eramango zuten. Ikaratu egin nintzen. Ez etxean bakarrik eta gauez geratu nintzelako. Aitaren berbek ezinegona eragin zidaten. Horixe zen arrazoia.

Ikaratu egin nintzen eta ez nekien zergatik. Jon ospitalean zegoelako izango zen. Ospitalean egotea ez da bromatarako gauza. Niri ez zait batere gustatzen ospitalean egotea. Eta hara eramaten bazaituzte, gaixorik zaudelako da. Ni egonda nago inoiz. Eta orratza sartu zidaten besoan, eta odola atera. Eta negar piloa egin nuen.

Eta Jonek gaixorik egon behar zuen derrigorrean. Ondoez. Bultotxo batzuk atera zitzaizkion izterreko barru aldean, eta kalentura zeukan. Hauxe izan zen herriko ospitalera eramateko arrazoia. Eta Gurutzetakoa eta anbulantziakoa entzun nuenean beldurtu egin nintzen.

Eta pena eta tristezia sentitu nuen aldi berean. Jon txarto zegoen. Eta horrek min ematen zidan. Eta negargura etorri zitzaidan, baina ezin izan nuen negarrik egin. Jon maite nuela uste dut. Bai, badakit maite nuela. Baina nire adinean sentimenduak agertzea ez zait erraza egiten. Gurasoak maite ditut. Berez. Inork galdetu barik ere. Gurasoak derrigorrez maite behar dituzu, zure gurasoak dira eta. Eta anaia ere bai, jakina. Anaia delako. Eta kito.

Hasieran txarto pasatu nuen. Hau ere aitortu egin behar dut. Hau aitortzea gogorra egiten zait, dena den. Esan nahi dut Jon jaio zenean ez nekiela zer sentitzen nuen. Baina txarto sentiarazten ninduen. Jon sobera zegoen nire bizitzan. Zergatik ekarri behar ote zuten gurasoek mundura nire anaia? Ez zuten nahiko nirekin, ala? Horixe etortzen zitzaidan burura behin eta berriro. Nik nahiko nuen gurasoekin. Zergatik sartu behar zuen muturra nire bizitzan eta nire familian nik eskatu gabeko beste pertsona batek?

Ikastolan igarri zidaten. Etxean igarri zidaten. Ez nintzen ordura arteko mutil alai eta kanporakoia. Adar-jolea. Ez dakit zer gertatu zitzaidan. Baina egunetik gauera nire izaera aldatu egin zen. Ez neukan gurasoekin egoteko gogorik. Nire anaia txikiari laztanik egiteko gogorik. Ikastolara joateko gogorik. Ezer ikasteko gogorik. Ardura barik ibiltzen nintzen egunak joan eta egunak etorri.

Etxekoak igarri bai, baina berandu. Ordurako berdin zitzaidan dena.

Gurasoen arreta guztia anaiarengan zeukaten jarrita. Harentzako ziren musu eta laztan guztiak. Eta lantzean behin, nigana hurreratu, eta nitaz ahaztuta ez zeudela adierazteko edo, musua ematen zidan aitak edo amak. Besarkada arin bat. Eta, gero, bakarrik uzten ninduten berriro, eta anaiarentzako ziren kariño guztiak. Ez nien sekula gurasoei esan inbidia ematen zidala haiek anaiarenganako erakusten zuten arreta ia osoa. Eta neure barrura joan nintzen batzen.

Anaia jaio orduko neu nintzen etxeko erregea. Neu nintzen gurasoen maitasun osoaren hartzaile bakarra. Nik zer esan, nik zer egin, eta gurasoen barreak! eta laztanak! eta musuak! eta zer ez!

Bederatzi urte egin arte ni nintzen *heredero* bakarra, horixe esaten zidan aitak: Non dago gure *heredero* bakarra? Hemen! Erantzuten nion nik, *heredero* berbak zer esan gura zuen jakin barik. Ni, ni eta ni. Neu nintzen gurasoen altxorra.

Aitona-amonentzako, zer esanik ez! Haien etxeko printzea nintzen, eta etxeko jaun eta jabea. Luzaroan izaten nintzen haiekin Elantxoben. Udan zein neguan. Denboraldi luzeak egiten nituen haiekin Elantxoben. Hementxe bizi dira aitona eta amona, gure amaren gurasoak. Aitarenak apenas gogoratzen ditut. Orain dela urte piloa hil ziren: sei edo zazpi urte. Badut halako akordu txikiren bat amonarena. Txokolatea ematen zidan harenera joaten ginenetan. Txokolate zuria. Eta musua eskatzen zidan trukean. Horixe baino ez dut akorduan. Aitonaren akordua ere badut txiki-txikia. Egongelako besaulkian egoten zen erdi lo, erdi etzanda beti. Gaixorik zegoela esaten zidan aitak, eta musu emateko. Baina horretarako ere indarrik ez zuela uste dut. Niri musu emateko esan nahi dut. Aitaren aita eta ama ez ditu Jon anaiak ezagutu. Jon jaio zenerako hilda zeuden biak.

Lo geratu nintzen. Ahalegindu nintzen itzarrik egoten. Baina betazalak pisutsu egin, eta ohera joan nintzen. Telefonoa albo-alboan izan nuen uneoro. Aitak edo amak noiz deituko zain.

Halako batean, etxeko atean giltza entzun nuen. Ohetik salto egin eta aterantz egin nuen. Ama zen.

- *Eta Jon? -galdetu nion-. Non dago Jon ?*
- *Lo dago. Badator. Aitak dakar besoetan.*
- *Zer esan dizuete ospitalean? Jon ondo dago?*
- *Bai laztana, ondo dago, nekatuta baina. Froga asko egin behar izan diote. Baina ondo dago, lasai laztana.*
- *Ikaratu egin naiz.*
- *Zoaz ohera laztana, bihar ikastolara joan behar duzu eta.*

Amak laztan egin zidan eta besarkada samurra eman ere bai. Eta ez dakit zer irauli zen nire barruan, baina negar egiten hasi nintzen. Eta amak esan zidan:

- *Ohera "heredero", bihar goizetik jaiki behar duzu eta.*

Eta ohera joan nintzen. Loguraz eta nekatuta. Baina triste barik, pozik egin nuen logelarako bidea. Lau ginen etxean, lau ginen familian. Jon ez zen nire lekua lapurtzera etorri mundura. Nik neurea neukan. Jonek berea. Anaiak ginen eta osagai familia berean.





**Andrea Uriarte Revuelta**  
**DBH 2. Maila**

*“Lagunekin berba egitea gustatzen jat”*

## PARADISUA ALA INFERNUA?

PUMP-PUMP-PUMP-PUMP.....Hori da entzuten nuen bakarra ez nintzen ezertaz ere oroitzen. Dena zen hain arraroa... Bi pilotak pixkanaka-pixkanaka geldiarazten eta jausten zebiltzan. Entzun nuen azken hitza *kirofanoa* zen. Hain zen arraroa dena: ebakuntza gela, jende mordoia, tristura.... Guztia hau ziztu bizian gertatu balitz bezala pasatu da baina ez, hori ez da horrela izan. Lau urte egon naiz koman eta pertsona bati esker neure burua salbatu dut.

Ez nintzen gertatutako ezertaz oroitzen, nekien bakarra honako hau zen : bihotzaren emaila nire ahizpa zela.

\*\*\*\*\*

Ikasketa hauek burutzea nekagarria da. Ez dut diru askorik baina egin dudan ahalegin guztiarekin azkeneko froga fisikoa eta teorikoa gainditzea espero dut. Ni medikuntzako ikasketak egiten nabilen bitartean nire benetako ahizpa ez dakit non dagoen. Jaiotzerakoan gurasoek bietatik bat aukeratu behar zuten eta Nerearekin geratu ziren. Ni hortik aurrera umezurtz geratu nintzen eta azkenean Jasone izeneko andre batek bere ume bezala jaso ninduen.

Bere nahia ume bat edukitzea zen, baina ez zuen diru askorik eta horregatik ni hartu ninduen. Amak kontatu zidan nire ahizpa ni ez bezala familia onekoa zela. Amak hori esan zidanean inbidia pixka bat sentitu nuen baina geroxeago ohartu nintzen nire amak maite ninduela eta hori zela garrantzitsuen.

\*\*\*\*\*

Han nengoen ni Jonirekin. Bilbora joatekoak ginen baina kannabis barik geratu ginenez berak ezin izan zuen nirekin etorri. Bera zen hau erosteaz arduratzen zena. Gure arazo guztiak droga, alkohol eta holakoekin estaltzen genituen...Horrela, azkenean Aitziberrekin joan nintzen Bilbora. Aitziber eta biok "Carolina Herrera"-rako bidean genbiltzan eraman genituen 10000 euroak gastatzeko irrikitan:

- *Aitziber zer deritzozu horko poltsa urdin horri buruz? Denetatik garestiena da!*
- *Nerea! itsusiegia da baina horrekin kaletik bazabiltza, denak edukiko dituzu atzetik!*
- *EI, ZU! Etorri hona eta jarri egidazu poltsa hau etxera eramateko prest! COME ON!!!!*
- *Poltsa honek 999.95 euro balio du. Esan zion dendariak.*
- *Eta? Niri bost axola zait presioa! Nere aita Porche enpresaren jabea da!*

\*\*\*\*\*

Gainditu egin dudalaaaaa!!!! Hain nago harriturik... Gaur Basurtora joan behar naiz bertan lan egiten hasten naizelako. Kotxea hartu eta Basurtora bidean noala gazte koadrila bat ikusi dut eta gelditu egin naiz. Denak bidean botata zeuden, mozkor egongo balira bezala... Anbulatziari deitu, eta hau heldu bezain pronto nire bideari ekin dio ezin bainintzen nire laneko lehen egunean berandu iritsi eta!

\*\*\*\*\*

-EH, EH, EH , EH!!! Zu zoratu egin haiz!! Zer uste duk hola eramango didala ospitalera bai zera ez ditut lau porro ere fumatu egin eta!

-Tira sartu zaitez anbulantziara, oso gaizki zaude eta. Esan zion medikuak Nereari.

Nerea ezezka aritu zen pare bat minutuetan baina azkenean konortea galdu eta mediku biren artean autoan sartu zuten.

\*\*\*\*\*

Utzi pasoa! Denak alde batera! Larria da eta! ..... Hitz guzti hauek esaten zebiltzan bitartean ni umeari begira nengoen zerbait ezaguna egiten zitzaidan bitartean. Ez dakit zergatik baina berehala ohartu nintzen ohatilan etzanda zegoen neska hura nire ahizpa zela. Ezin nuen lanean kontzentratu, dardarka aulki batean jesarri eta han nengoen ni malkoz gainezka.

Paperak egiaztatu eta benetakoa ahizpa zela ohartzeaz harritura gelditu nintzen. Nire ahizpa zen, ni ez bezala paradisuari bizi izan zena baina tamalez paradisuari ateeke

infernuko bidea zabaldu zioten: DROGEN MUNDUA.

Bere gehiegikeriei esker orain bihotz transplante bat behar zuen. Ez nekien zer egin baia nekien gauza bakarra bihotza neuk emango niola zen. Hori zela eta, gutun bat idazten hasi nintzen den-dena kontatuz.

\*\*\*\*\*

Lokartuta geratu banintz bezala nengoen konortea galduta nuen bihotzeko infekzioa zela eta. Nire aukera bakarra bihotzeko transplantea zen. Bi kristaltxoak pixkanaka-pixkanaka lau urtez itxita izan ziren bitartean, han zeuden irekitzen eta ni (komatik irteten). Ondo nengoenean amak gertatutako guztia azaltzen ahalegindu zen baina bihotza nork eman zidan esatera zihoanean ,honako hau esan nion:

- *Ama badakit bihotza nire ahizpa Nereak eman didala.*

Ama aho zabalik geratu zen eta gutuna eskuetara eman zidan, irakurtzen hasi eta nik neuk neure begietan distira nabaritzen nuen.

\*\*\*\*\*

Gutunarekin honela hasi nintzen:

*“Ahizpa maite,*

*Txikitan bananduak izan ginen eta orain berriz ere elkarrekin gaude. Ez dakizu baina nik emandakoa da orain duzun bihotza. Zure infekzioaren berri izaterakoan errudun sentitu nintzen ni zure alboan ez egoteagatik. Bizitza paraleloak izan ditugu, ez gara batera inoiz egon eta gainera ez dugu haurtzaro goxorik pasatu txikitan. 18 urtez egon nahiz zutaz pentsatzen egunero, orduro, minuturo, segundoro. Non zebiltzan pentsatzen nolakoa izango zinen pentsatzen eta nitaz oroitzen bazina pentsatzen. Txikitan batera jaio ginen eta orain nire bizitzak zurekin jarraitzea nahiko nuke eta zurekin hiltzea. Horregatik, ahizpa maite beti edukiko nauzu egongo nahiz edozein tokitan laguntzeko prest.*

*Maite zaitut Nerea!” AGUR!*

\*\*\*\*\*

Momenturo, segundoro, egunero eta nire bizitza osoan zu izango zaitut gogoan laztana. Zuk eman didazulako beharrezkoa nuena bizitzak aurrera jarraitzeko eta ezin izango dizut guzti hau eskertu ez eta diruarekin ere. Zugatik zeharo aldatu nahiz. Orain, neska arrunt bat naiz zu zinen bezalaka. Zu bezala medikuntza ikasten ari naiz zu bezalakoa izan nahi dudalako onena zarelako. Zauden tokian zaudela beti izango zara nire ahizpa kuttuna maite zaitut ahizpa, maite zoratzeraino. Zurekin jaio, bizi eta hilko naiz, nahiz eta zure ondoan nire haurtzaroa ez pasa nire bihotzean egon zara betidanik eta betirako egongo zara, ez kezkatu.

AGUR LEIRE!

PD: Agur hau ez da benetako agurra eduki dudan bizitza nazkagarriaren agurra baizik.



***Gogoratu, DIRUA EZ DA ZORIONTASUNA,  
ZORIONTASUNA BENETAKO BIZITZA DA!***





**Angela Butron Gandarias**  
**DBH 2. maila**

*“Barre egin gabeko egun bat, galdutako egun bat da”*

## **BIKIAK**

Baziren behin bi ahizpa, oso ezberdinak. Bai izaera aldetik eta bai fisikoki ere, guztiz ezberdinak ziren, “bikiak” izan arren. Martina ilegorria zen; Aitziberrek, berriz, oso ile iluna zuen, marroia; Martinak oso azal zuria zuen eta Aitziberrek, ordea, oso azal beltzarana. Izaera aldetik ere, Martina oso lotsatia zen bitartean, Aitziber benetan irekia zen, ez zuen ezertarako lotsarik. Gauza bat partekatzen zuten: biak ziren gazte panpoxa eta maitagarriak.

Sarritan gogoratzen zuten euren hartzaro berezia, eta halakoetan begiak lausotu egiten zitzaizkien bie.

Gurasoak hasieran Martinarekin bakarrik bizi ziren, zazpi urte zituzten orduan, eta egun batean ospitaletik gutun bat heldu zitzairen, honako hau esanez:

*Arrieta Ibaizabal jaun-andreok, albiste berezia daukagu zuentzat, zinez berezia. Zuen alaba 1998ko apirilaren 30ean jaio zen, beste neskatxo bat jaio zen egun berean. Kontua da, nahi gabe beste neskatxoa eman genizuela, eta biologikoki zuen alaba dena beste guraso batzuekin bizi dela. Beste guraso horiei, baina, ezin izan diegu gutunik bidali, aurkitu ezinik gabiltzalako. Guk dakigun gauza bakarra da Xabi Ibaibarriaga eta Mikela Beitia deitzen direla eta lehen, behintzat, zuek bizi zareten herri berean bizi zirela, Gorkizen hain zuzen ere. Seguruenik udaletxean izango dute beraien gorabeheren berri.*

*Eragozpenengatik barkamena eskatuz, adeitasunez agurtzen zaituztegu*

*Basurtuko Ospitalearen zuzendaritza.*

Orduan konturatu ziren zergatik Martinak ez zuen inolako antzik eurekin, eta ez zekiten zer egin, Martina alaba izan zutelako jaiotzatik bertatik, ospitaletik iritsi berria zen eskutitzaren arabera alaba biologikoa ez bazen ere.

Arazoari hamaikatxo buelta eman ondoren, eta burua lehertzeaz zeukatela, udaletxera deitzea erabaki zuten Fernandok eta Sarak. Alkatearekin hitz egitera joateko ordua eskatu zutenean, oso lanpetuta zebilela eta hiru astez itxaron behar zutela jakinarazi zieten. Nerbioak airean, telefono gida hartu eta Martinaren guraso biologikoak aurkitzeko ahaleginetan hasi ziren. Gorlizen bazegoen Ibaibarriaga abizendun pare bat, eta bertan ageri ziren Beitia deituradun guztiekin ere jarri ziren harremanetan, baina ez ziren beraiek aurkitu behar zituztenak. Azkenean, amore emateaz zeudenean, eta arratsalde luzea igaro eta gero, Getxon bizi zirela jakin ahal izan zuten Ertzaintzaren laguntzaz. Fernando deia egin eta guztia argitzeko gogoz zegoen, baina Saran ez zion utzi, esan zion egun batzuetan itxaroteko, ondo pentsatu nahi zuela zertan zebiltzan, ez zutelako Martina beste guraso batzuekin joatea nahi, beti bizi izan zelako beraiekin, eta beraiek hezitako haurra zela, beraien printzesatxoa, beraien ilegorri bihotzekoa.

Oso une latzak bizi zituzten, Sarak bereziki, lorik egin ezinik. Ezin zuen lorik egin, ez zekien zer egin, ez zuen nahi beraien alaba beste batzuekin egotea, baina berak Martina larregi maite zuen orain beste guraso batzuekin joateko, orduan beste familiaren bizitza ikertzea erabaki zuen.

Horretarako, Basurtuko ospitalera joan zen biharamunean eta bertako arduradunarekin hitz egin zezakeen galdetu zion harreran zegoen neska gazte bati. Neskak esan zion ordu eta erdi inguru itxaron beharko zuela, momentu hartan oso lanpetuta zegoelako. Sarak, buru makur, baiezko keinua egin eta itxarongelara abiatu zen. Eskerrak beti eramaten zuela liburu bat poltsan! Itxaronaldia arinago eta eramangarriagoa egingo zitzaion liburuak kontatzen zuen istorio entretenigarrian murgildurik eta tarte batez pentsamendu beltzak alde batera utzita. Nahiko itxaron behar izan zuen, bi ordu inguru. Itxaronaldia, ordea, merezi izan zuen. Arduradunari gutuna eman zionean, bere aldetik ikertzen ibilia zela esan zion berak, eta euren benetako umea hazi zuen familia oso-oso pobrea zela. Horrek izugarri hunkitu zuen Sararen bihotza, eta zerbait egin beharra sentitu zuen bere baitan, horregatik, ahal zuen guztian laguntzea erabaki zuen. Lehenengo, baina, ezagutu egin beharko zituen familia haren eta alabaren bizimodua.

Fernandori dena kontatu zion eta, batetik Fernando oso lanpetuta zegoelako eta, bestetik, shock moduko batean lotu zelako, Sarak esan zion konfiantza izateko, bera arduratuko zela guztiaz.

Biharamunean Getxora abiatu zen Sara, euren benetako alaba bizi zen etxera, eta txirrina jo zuen, urduri baino urduriago, eta buelta hartu eta dena ahazteko tentazio izugarriaz.

Orduan, baina, andre gazte euskaldun batek ireki zion atea, eta Sarak gutuna erakutsi zion. Andre gazteak, begiak zabal-zabalik eta erabat harrituta, etxera sartzeraz gonbidatu zuen.

Inguratzen zuen guztiari begiratzen zion Sarak, eta aurrera egin ahala, gero eta argiago ikusten zuen ezingo zuela laga alaba hala bizitzen, hain baldintza txiro eta gogorretan. Galdezka hasi zitzaion andre gazteari, zehetasun guztiak jakiteko irrikitan eta, aldi berean, bihotza ia birrindurik.

*Mikela naiz ni eta gure alaba, edo zuena, ai, ez dakit, ai ezin izan daiteke egia izan didazuna. Gutun honegatik ez balitz... ezingo nuke inola sinetsi. Ai ama, hau baino ez nuen falta!! Negar zotinka, ahal zuen bezala, aurrera jarraitu zuen: Beno, zuen alabak Aitziber du izena. Senarra auto istripu batean hil zen. Nire amarekin bizi gara, eskerrak bera dagoela, bestela ezin izango nuen mantendu. Nik lan egiten dudan bitartean, amak etxeko lanak egiten ditu, egunean 10 ordu pasatzen ditut lanean, oso soldata baxua lortzeko, oso bizimodu justua daukagu. Aitziber iaz hasi zen eskolara joaten, eta bere amonak lagundu behar izaten dio lanekin.*

Hura guztia entzundakoan, ideia bikaina izan zuen Sarak, eta honako hau proposatu zion Maiteri: *Badakit orain dela ordu erdi ezagutu dugula elkar, baina ni ere ama naiz, bi neskatoen ama sentitzen naiz, eta ezin dut laga zuek horrelako bizimodu gogorra izatea. Behar duzun denbora emango dizuen pentsatzeko, eta ondo erabakita duzunean deitu. Senarrak eta biok diru-laguntza emango dizuegu hilerok-hilerok, eta Aitziber eskola on batera eramango dugu, Martinarekin batera, ahizpak izango balira bezala. Asteburu guztietan etor zaitezke gurera bi neskatoak bisitatzerako, zeu ere bien ama zarelako nolabait.*

Handik hiru egunera Mikelaren deia izan zuen Sarak. Malko artean, berarentzat bizitza osoko erabakirik zailena zela esan zion, baina Aitziberrentzat ahalik eta bizimodu onena nahi zuela eta hori Sarak eta Fernandok eman ahal ziotela, eta ez berak.

Abuztua zen orduan. Irailaren lehenengo egunean eskolara deitu eta aukera eman zioten hurrengo ikasturterako Aitziber Martinarekin batera inskribatzeko. Hasieratik bertatik konpondu ziren ezin hobeto Martina eta Aitziber, sinetsi ere ez egiteko modukoak ziren bien artean sortu eta egunean-egunean sendotuz joan ziren adiskidetasuna eta maitasuna, benetako ahizpak ematen zuten!

Hurrengo urteko otsailean Mikela gaizki sentitzen hasi zen. Ospitalera eraman zuten Sarak eta Fernandok, eta handik hiru aste hil egin zen, medikuek ahal zuten guztia egin arren. Amona ere, apirilean, bihotzeko batez hil zen. Sara konbentziturata zegoen penaren penaz izan zela, oso une latzak izan ziren guztientzat, Aitziberrentzat bereziki. Kalera irten gabe egon zen, eskolara joateko ez bazen, eta oso sasoi gogorra igaro zuen. Martina izan zuen orduan sendagairik onena. Bizitza osoan elkarrekin eta elkar maitez bizi izan zirela ematen zuen.

Umeak, zorionez, maisuak dira horrelakoetan, eta penarik handiena sentitzen dutenarekin batera, alaitasunik handiena erakusten ere jakiten dute. Nagusien irakasle izaten dira horrelakoetan, aurrera jarraitzeko laguntza ezin hobea, eta hala izan ziren Martina eta Aitziber ere urte hartako udatik aurrera.





**Maialen Altuna Lakarra**  
**DBH 2. maila**

*“Nire denbora librean, lagunekin egotea dut gustuko”*

## **LAGUN BI, ERLIJIO BI, PENTSATZEKO MODU BI ETA MUNDU BI**

Bizkaiko herri batean, bi ume jaio ziren urte baten. Bata Elene deitzen zen, bere gurasoak euskaldunak ziren, begi urdinak zituen, itsasoa bezain urdinak eta ile hori luzea zeukan, urrea bezain horia. Bestea, Amira deitzen zen, bere gurasoak Marokotik etorritakoak ziren orain dela 10 urte, neska ederra zen, begi handiak zituen, marroi kolorekoak, gaztainak bezain marroiak eta ile luze beltzarana zeukan, ikatza bezain beltza. Ikastola berean ikasten zuten eta ikasgela berekoak ziren, izatez, kale berdinean ere bizi ziren. Bi lagunak, oso lagun minak ziren ez ziren ezertarako bata bestearengandik banatzen. Neskatoak hazi ahala, beraien konfiantza ere estuagotzen hasi zen, beraien sekretu guztiak esaten zizkioten elkarri eta behar zuten guztian laguntzen ziren beraien artean. Horiak bai zirela benetako lagun minak. Kaletik zihoazenean ere denek esaten zuten:” Hor doaz bi ahizpa bikiak” eta egia zen, beraien arteko erlazioa, bi ahizpen bezalakoa zen.

Bi neskak 16 urte betetzerakoan, egun batean, Amira negar batean irten zen etxetik Eleneren etxerantz. Elenek Amira ez zegoela bat ere ondo ikusterakoan, esan zion etxera sartzeko lasai, bertan zegoela, lagunak Amira lasaitzea lortu zuen eta lasaiago zegoenean kontatu zion bere gurasoek, Marokora bidaltzea pentsatu zutela bere aitite eta amamaren etxera, hauek laguntza handia behar zutela nagusiak zirelako eta aitite gaixotu egin zelako. Elenek hori entzuterakoan, atsekabe handia hartu zuen. Bere lagun mina Marokora joan behar zela pentsatzeak min handia egiten zion bihotzean. Orduan, bi lagunak negar batean hasi ziren, hura izango baitzen seguruenik azkenengoz ikusten ziren aldia, baina beraien arteko kontaktua ez galtzeko, Eleneri bururatu

zitzaion, lagunen arteko harremana ez galtzeko, telefonoz deituko zirela, baina, Marokotik Bizkaira deitzeak asko balio du, orduan, pentsatu zuten Whats App mugikorreko aplikaziotik hitz egitea, Amirak Marokon ez baitzuen ordenagailurik ezta web cam-ik beraien artean hitz egiteko aurpegiak ikusten zituzten bitartean.

Morokora heltzerakoan, Amiraren aitita-amamak asko poztu ziren beraien biloba ikusteaz, asko maite zutelako eta orain dela denbora asko beraien biloba ez zutelako ikusten. Bertan, beraren omenez, bazkari eder bat egin zuten eta han, gizon bat aurkeztu zioten, Ahmed izenekoa. Ahmed gizon atsegin bat zen, marokoa, diru asko zeukan eta Amirak baino 30 urte gehiago zituen, hau da 46. Arratsalde osoan, Ahmed oso atsegin egon zen eta berarekin hitz asko egin zuen, halako batean, Amiraren aitite hurbildu zitzaion eta esan zion Amirari Ahmed bere senarra izango zela, horregatik etorri zela Marokora, berarekin ezkontzeko eta hilabete bat barru, beraien arteko ezkontza ospatuko zela. Amira asko haserretu zen bere gurasoekin eta bere aitita-amamarekin. Ez zuen ulertzen bera zergatik ezkondu behar zen 16 urteko neskatua, 46 urteko gizon ezezagun batekin. Gainera, berak bere gelako mutil bat maite zuen: Ander. Ander berarentzat zegoen eta mutilik ederrena zen, berarekin hitz egiten zuen bakoitzean asko lotsatzen zen; baina, Anderri ere asko gustatzen zitzaion Amira, berarentzat, eskolako neskarik politena zen. Amirak ez zuen Ahmedekin ezkondu nahi, eta oso gaztea zela horretarako pentsatzen zuen, gainera Ahmedek 4 emazte zituen, denak 21 urtetik beherakoak. Bazkaria bukatzerakoan, Amira bere gelara joan zen negar batean, bertan, orduak eman zituen negar egiten eta pixkatxo bat lasaitu zenean ez zuen bi aldiz pentsatu eta Eleneri hitz egin zion Whats App bidez eta bazkarian gertatutakoa kontatu zion. Elenek ezin zuen sinetsi Amira kontatzen ari zitzaiona eta Amirak Eleneri esan zion fabore bat egiteko bere partez, Anderri musu handi bat emateko, gertatu zitzaion guztia kontatzeko eta asko maite zuela esateko.

Hurrengo egunean, Elenek Amirak esandako guztia egin zuen eta Ander negar batean hasi zen berak maite zuen neska ez baitzuen gehiago bere bizitzan ikusiko. Herriak faltan botatzen zuen Amira eta bera joan zenetik gauzak aldatu egin ziren.

Ezkondu eta hurrengoko egunean, Ahmedek Amira jo zuen, mugikorra kendu zion eta bere baimenik gabe etxetik irtetea galarazi zion. Amirak ez zuen ezer egiten negar izan ezean, baina bere senarrak esandako guztia egin behar zuen eta berak nahi zuen modura bestela Ahmedek Amira jo egiten zuen. Ahmeden beste lau emazteek esaten zioten lasai egoteko azkenean bukatuko zuela bere senarra maitatzen. Baina Amira ez zegoen oso seguru horretaz. Nola maitatuko zuen Ahmed, ezkondu baino lehen hain atsegina zena baina ezkondu ondoren hain ankerra bihurtu zena? Jo baino ez zuena egiten eta ez ziona bizi pertsonala egiten uzten? Berak ez zuen ulertzen nola beste lau emazteek maite ahal zuten Ahmed.

Urte bat beranduago, Amirak bere lehen semea izan zuen Faruq izenekoa. Hau jaiotakoan, Ahmedek, Amirari utzi zion Bizkaira bueltatzen, bere gurasoek bere biloba ezagutu ahal izateko. Bidaia horretan, Amirak Elene bisitatu zuen eta Elenek bere lagun mina ikusterakoan, pozez zorutzen jarri zen. Amirak bere Marokoko bizitza tristea kontatu zion Eleneri. Elenek esan zion, Amirak deitu zionetik, bere herrian dagoen emakumeenganako indarkeriaren aurkako elkartean parte hartzen zuela eta Amirari esan zion lagunduko ziola Marokotik ihes egiteko eta Bizkaian bizi ahal izaten bere senarra Marokotik irten dela konturatu gabe; eta behin Bizkaian egonez gero, Ahmedek ezin izango ziola ezer egin. Marokora bueltatu baino lehen, dena ondo prestatuta utzi zuten, ahalik eta arinen bueltatzeko Bizkaira. Amira oso pozik jarri zen hori entzuterakoan,

sekretu hori oso ondo ezkutatu behar zuen inor ez konturatzeko ezertaz. Maiatzaren 23an bueltatuko zen Bizkaira, baina oraingoan, bertan geratzeko, baina Amirak oso ondo disimulatu beharko zuen inor ez konturatzeko berak egingo zuenaz: bai, maiatzaren 23an Amira emakume askea bihurtuko zen betiko, ez zen bere senarraren mende biziko eta ez zuen inork joko. Azkenean heldu zen maiatzaren 23a, Amira oso urduri zebilen goiz hartan, Ahmed ez zegoen etxean, lanean zegoelako. Amirak inori ezer esan gabe, Faruq, bi hilabeteko Amiraren eta Ahmeden begi berde ederdun seme txikia, hartu eta etxetik irten zen arineketa batean. Amirak beldur ikaragarria zeukan barnean, nonor konturatzeko beldur zen baina dena pentsatu bezain ondo irten zen. Amira eta Faruq arratsaldeko zortzietarako Bizkaian zeuden, Elenerekin gelditu ziren, bere lagunik onenaren etxe ondoko tabernan. Elene bertan zegoen Amira eta Faruq itxaroten, beraien etxebizitza berriko giltzak zituen eskuetan eta Amiraren nortasun agiri berria ere. Amira oso eskertuta zegoen Elenerekin, bere ametsa egi bihurtu zuelako.

Elenek bere ikasketak amaitu zituenean, dirua aurreratu zuen Amirak ikasi ahal izateko eta unibertsitateko gastuak ordaintzeko. Gaur egun, Gurutzetako Ospitalean egiten du lan, mediku gisa. Astean behin, lanetik irtetzen direnean, emakumeenganako indarkeriaren kontrako elkartera joaten dira laguntza behar izanean dauden beste emakume batzuk laguntzera.

Urteak pasatuta, Amira (orain Malala deitzen dena) Anderrekin ezkondu zen eta beste bi seme-alaba izan zituen: Josu eta Amaia .. Noizbehinka, bere amak bisitatzen du eta bere hiru bilobekin jolasten du, bere senarrak ezer jakin gabe.

Faruqek askotan galdetzen dio bere buruari zer bizimodu izango ote zuen bere amak halako lagun eskuzabal eta ausartak lagundu ez balio. Faruqek ere elkartean lan egiten du, argi duelako gizonak ez direla emakumeen jabeak eta indarkeria erabiltzea guztiz gorrotatzen duelako.



**Leire Gordo Badiola**  
**DBH 2. maila**

*“Dantzan eta saskibaloian disfrutatzen dut nire lagunen ondoan.”*

## **ALDI JOANA EZ DA ITZULTZEN**

Ondo baino hobeto gogoratzen zuen Amaiak sentsazio hura, sabelean tximeletak balitu bezala. Sentipen hura nagusitzen zitzaion aitarekin zegoenean munduko txoko liluragarri hartan. Eta emozio-sentimendu berdina bizi nahi duenean berriro bueltatzen da San Pedro Atxarre izeneko basilizara.

Bidea estua da eta besarkatu egiten duela ematen du. Zenbat eta gorago joan, neskatoaren pausuak motelagoak dira eta bihotza azkarrago doa zerua zeharkatzen duen hegazkina bezala. Berdea da nagusi, esperantzaren kolorea eta Amaia ere esperantzaz beterik sentitzen da pozik dagoelako, bere bizitzan gauzak ederto doazelako.

Azken maldatxoa igo eta gero, ermitarekin topo egiten du, bere zain dagoela dirudi eta ongietorri goxo-goxoa ematen dio txikia zenean bezala .

Haitz baten gainean jesartzen da eta aurrean daukan paisaia harrigarria begiratzen du Amaiak. Behealdean, Urdaibaiko padurak marrazki magiko baten antza du, harearen kolore marroiak eta uraren turkesak topo egiten dute dantzan egongo balira bezala. Inguruan, inurriak ematen duten herri txikitxoak daude eta urrunean mendi erabat berdeak ikusten ditu.

Lasai dago haize boladak neskatilaren ilea astintzen duen bitartean. Urrutirantz begiratu eta itsaso erraldoiaren aurrean txikiegia sentitzen da, arkakuso sentitzen da.

Eta edertasunaren jabea den paisaiaren aurrean aitaz gogoratzen da ...

.....

Hamalau urte bueltan zituenean, zerbait arraroa susmatzen hasi zen bere barruan, bazirudien gero eta urrunago zegoela bere lagunengandik; ez zekien zer gertatzen zen baina berak lasterketa batean azken lekuan geratzen ari zen korrikalaria zela sentitzen zuen.

Amaia neska isila izan arren, lagun asko zituen entzuten zekiten pertsona berezi horietako bat zelako. Baina azken boladan gauzak aldatzen ari ziren, bere lagun taldeko neskek desberdin jokatzeko zuten: zaratatsuak ziren, mutilekin egotea gustuko zuten ... Eta berak ere gauza berdinak egin nahi zituen, baina ez zitzaizkion ateratzen. Estralurtar baten moduan sentitzen zen.

Zorigaitzoko zapatu hartan, goizeko bederatziak aldera esnatu zen eta egin zuen lehenengo gauza sakelako telefonoa biztea izan zen. Mezu asko zituela ikusi zuenean urduritu egin zen, ez zelako batere seinale ona. Whatsapp-eko mezuen artean hasi zen arakatzeko beldurrez, itsaso zabalean lehen aldiz sartu zen antzeko beldurraz ...

Eta bat-batean sabela zeharkatu zion mezua irakurri zuen: “Zu eta Ane koadrilatik kanpo zaudete”. Hori baino ez, sei hitz madarikatu, sei gezi bihotzera. Normalena negar egitea zen baina oraingo honetan Amaiak ez zuen negarrik egin. Triste zegoen. Bazekien arinago edo beranduago gertatu egingo zela, hori zen bere buruak esaten ziona eta horrela gertatu zen.

Hurrengo egunak eta asteak ez ziren berdinak izan, gurasoek bazekiten zerbait gertatzen zela baina oso zaila zen Amaiaren oskola sendoa irekitzea. Alaba oso triste ikusten zen, egun guztia bere logelara pasatzen zuen, ez zuen ia berbarik egiten, irribarrea galdua zuen. Azkenean amak lortu zuen gertatutakoa kontatzea eta aitari esan zion. Beti bezala, aitak amak baino lasaitasun handiagoaz hartu zuen gertatutakoa. Horrelakoa zen aita, pertsona lasaia eta praktikoa; eta ama asko maite bazuen ere, Amaiak halako konexio berezia zuen aitarekin.

*- Egon lasai, ez da batere arraroa iskanbilak izatea lagunaren artean -esan zuen aitak.*

*-Badakit gizona, baina gure alaba oso triste dago eta asunto hau luzatzen ari da - erantzun zion amak keinu bat egiten zion bitartean.*

Ederto zekien senarrak keinu hark zer esan nahi zuen eta ezer esan gabe Amaiaren logelara abiatu zen.

*- Zer gertatzen da Amaia?- esan zuen aitak.*

*- Ez dudala lortzen nire lagunaren modukoa izatea eta ez nautela onartzen.- erantzun Amaiak kopetilan.*

*- Badakit orain zuretzat oso gauza mingarria dela, baina beste pertsona batzuk ere ezagutzen dituzu eta ezin zara egon pentsatzen beti galdu duzunaz. Agian aukera berri baten aurrean egon zaitezke. Begira, nire aitak zure adina neukanean kontatu zidan alegiatxoak kontatuko dizut.*

Eta horrela egin zuen. Amaiak inoiz ahaztuko ez zuen istorioa kontatu zion aitak, bere bizitzako une txarretan argia emango ziona, izena ondo gogoratzen ez zuen sugandilatxo baten alegia:



*“Bazen behin sugandila dotore eta azkar bat. Poz-pozik bizi zen harri batzuen artean leku lasai-lasai batean. Eguzkia hartzeko harri berdexka eta erraldoi baten gainean jartzea zuen gogoko. Oso gustura zegoen bertan eta gehienetan lo geratzen zen. Izan ere, hori gertatu zitzaion beraren buztan luzea galdu zuen egunean. Betiko moduan harri hartan lo geratu zen eta bat-batean ume batzuk harrapatu egin zuten eta sugandilak umeen atzaparretatik alde egin nahian buztana galdu zuen. Buztana solte egotean nola mugitzen zen ikusita umeek barre-algara itzelak egin zituzten eta azkenean bota egin zuten belarretara. Sugandila gaixoa buztana aurkitzen saiatu zen baina lekua hain handia zenez, ez zegoen arrastorik ere. Denbora joan ahala dena utzi zuen bertan behera buztana aurkitzeko: etxea, jolasak, lagunak, familia... Baina ... ahalegin guztiak alferrik. Bidean aurkitzen zituen guztiei galdetzen zien buztan bat ikusi zuten, baina denek ezetz. Egun batean, gizon batek itaundu zion zergatik nahi zituen bi buztan eta sugandilak harrituta buruari bira eman eta beste buztan bat zuela konturatu zen; gainera hau gogorragoa eta dibertigarriagoa zen. Orduan konturatu zen tontakeria bat izan zela hainbeste denbora egon izana beraren buztanaren bila. Buelta eman eta etxera joan zen”*

Istorioa bukatu zuenean, Amaiak harridura aurpegiaz begiratu, eta esan zion:

- *Ez dut ondo ulertzen zer esan nahi duen, ezta zer irakaskuntza duen alegi horrek.*
- *Entzun arretaz. Askotan pertsonok zerbait galtzen dugunean garrantzi handiegia ematen diogu galdu dugunari eta beste guztia ahaztu egiten zaigu. Galera horretan jartzen ditugu gure energia guztiak eta, bizitzak ematen dizkigun gauzetaz disfrutatzea ahazten dugu. Gogoan izan Amaia: aldi joana ez da itzultzen ...*

.....

..... “Aldi joana ez da itzultzen”. Arrazoia zuen aitak baina zenbat denbora eta zenbat gorabehera bizi behar aitak gau hartan esan ziona ulertu ahal izateko!

Eta irribarre batekin agur esaten dio Amaiak bere lekutxo magikoari. Beste batera arte.





**Irantzu Idoiaga Zelaia**  
**DBH 2. maila**

*“Alaitasuna, ez da alai izatea, baizik eta alai sentitzea”*

## **BIDAIA BAT ETA BUELTAN**

Bazen behin, Martin izeneko 10 urteko ume bat, hiri handi batean bizi zena. Martin, oso abenturazalea zen, baita oso burugogorra ere. Bere ametsa, ume askoren moduan, astronauta izatea zen; espaziora joatea espazio-ontzi batean, planeta ezezagunetara joatea, mundu guztian famatua izatea... Ametsak bete egiten direla errepikatzen zuen behin eta berriro, baina denek uste zuten bere ametsa ez zela inoiz ere beteko. Martineri berdin zion besteek pentsatzen zutena, bere ametsa horixe zen eta ez zuen bere ametsa aldatuko besteek ezinezkoa zela esaten ziotelako.

Goiz hartan eskolako autobusean zihoan, baina ez eskolara, baizik eta NASAko bidean, txango bat egitera. Bera, bere lagun Peioren alboan zihoan, biak berriketan. Heldu zirenean, bisitaren gidak, NASAko leku gehienak erakutsi zizkien guztiei. Bisita bukatu ondoren, 4. mailako ikasle guztiak bazkaria jaten hasi ziren NASAko jantokian. Martinek, komunera joateko baimena eskatu zion andereñoari eta bertara joan zen. Komunikatzen irten zenean, jantokira joan zen eta bere ikaskideak ez zeuden; jantokia hutsik zegoen. Beraz, ahaztu egin ziren! Martinek, larritasunez, besteak aurkitzeari ekin zion. Ez zituen inondik inora aurkitu. Martin, korridore luze batetik gela ilun batera sartu zen. Ez zuenez ezer ikusten, ikusi zuen botoi gorri bati eman zion, pentsatuz argiaren etengailua zela. Ba ez, bat-batean, dena mugitzen hasi zen, argiak piztu egin ziren, eta espazio-ontzietako aginte gelaren antzeko gelan zegoela konturatu zen, milaka botoirekin. Martin, oso urduri zegoen, irrati batetik, hamarretik atzera kontua entzuten zuen; hamar, bederatzi, zortzi, zazpi, sei... Zerora iritsi zenean, leihotik hodeiak ikusten zituen: espazio-ontzian gorantz zihoan! Besaulkian jesarri eta gerrikoa lotu zuen. Hori guztia amesgaizto bat besterik ez zela pentsatu zuen. Hamar minutu horrela pasatu ondoren, konturatu zen hura benetan gertatzen ari zela, eta zerbait egin behar zuela pentsatu zuen. Mikrofona hartu eta NASAra deitzen saiatu zen, baina ez zuen inortxok erantzuten. Ez zekienez zer egin, eta ezer egin gabe espazio-ontzi baten barruan ezin zuenez egon, atmosferatik irten zirenean gerrikoa kendu eta espazio-ontzia arakatzea

erabaki zuen. Ez zuen gauza askorik aurkitu: astronauten jantzia, espaziora eramaten den janari apur bat, esku-argi bat, soka bat eta kable asko.

Martinek ez zuen sinesten gertatzen ari zitzaiona; bere familiarik urrun zegoen, Peiok bere pastel zatia zeukan, seguruenik ez zituen bere lagunak berriz ikusiko, planeta more baterantz zihoan abiada bizian... Planeta moreko lurraren kontra joko zuen! Zerbait egin behar zuen, baina zer! Berehala, “aparkatu” jartzen zuen botoi bat ikusi zuen eta botoia sakatu zuen presaka. Espazio-ontziak buelta eman eta ederki aparkatu zuen espazio-ontzia planeta morean.

Martinek ez zekienez zer egin, esploratzea erabaki zuen. Astronauten jantzia arineketan jantzi eta espazio-ontzitik irten zen. Kanpoan ilun zegoen, beraz, esku-argia atara zuen. Ikusten zuen guztia, oso arraroa zen; kontuan izanda planeta ezezagun batean zegoela. Lurzorua morea zen, beste guztiaren moduan. Harri txikitxo more bat hartu zuen mutikoak. Martinek, laguntza bila joatea erabaki zuen (ez zekien norbait edo zerbait egongo bazen planeta hartan).

Ibiltzen zihoala, argi zuri bat ikusi zuen. Argi hura zer zen jakin nahi zuen, beraz, argiari jarraitu zion. Bost minutu oinez ibili ondoren, beste argi asko ikusi zituen. Argi horiek, ez ziren argi naturalak; argia ez da leku batetik bestera etengabe ibiltzen. Martin hurbildu zenean, konturatu zen izaki arraro batzuk zirela, gorputza hain zuria zuten hainbeste iluntasunen artean, argia zela zirudien. Martini barregarriak iruditu zitzaizkion izaki haiek, beraz barreka hasi zen. Izaki haiek, barre batzuk entzun zituzten, beraz, Martin harrapatu egin zuten. Haien erregearengana eramanean zuten. Erregeak bere burua aurkezteko agindu zion eta Lurra planetakoa zela esan zuenean, planeta horri buruz hitz egiteko esan zion. Martinek esan zuen Lurra oso leku polita dela, argitasun asko dagoela, bera oso zoriontsu bizi dela bertan... Erregea konturatu zen, haien planeta oso iluna zela, ez zegoela zorionik, ezta gauza politik, beraz, Lurra planeta inbaditza erabaki zuen. Martinek erantzun zion ezin zuela bere planeta inbaditu, ez zekitela non zegoen, eta berak ez ziela esango non zegoen. Erregeak hori entzunda, negar egiteari ekin zion. Martini pena eman zion, erregeak arrazoia zuelako, planeta hura ez zen batere ona inorentzat. Beraz, laguntza erabaki zuen: izaki haiek ez zekitenez zer zen edertasuna, edozein gauzarekin konformatuko ziren. Zenbait gauza hobetzen lagundu zien: etxe dotoreak egiten, artea zer zen irakatsi zien, nola izan bizimodu zoriontsu bat, nola zaindu landatu zituzten landareak (Martinek espazio-ontzian aurkitu zituen espaziorako janarien poltsa barazkiena zenez, haien haziak landatu zituzten). Erregeak mutikoak egin zuen guztia eskertzeko, urrezko eskultura erraldoi bat jarri zuen hiriaren erdian, eta bera errege izendatu zuen. Martinek ez zuen errege izan nahi, bakarrik etxera joan nahi zuen, gertatutako guztia lagunei kontatzeko. Martinek esan zuen ez zuela errege izan nahi, baina lehengo erregeak behartu egin zuen.

Martinek, alde egitea erabaki zuen. Gau ilun batean, esku-argia hartu eta espazio-ontzirantz abiatu zen. Bat-batean, argi multzo bat ikusi zuen beregana arin hurbiltzen, beraz, korrika egiteari ekin zion. Espazio-ontzira iritsi zenean, aginte gelara joan, botoi guztiei eman eta abiatu egin zen. Denbora bat pasatu zen, eta leihotik, Lurra planeta ikusi zuen. Oso ederra zen espaziotik ikusita, hain ederra espazioan gelditzeko gogoia zuela. Lurrari begira-begira gelditu zen, eta azkenean lo hartu zuen.

Goiz hartan, oso pozik esnatu zen bere logelan. Bere ama logelara etorri zitzaion, esnatzeko esanez, gaur NASARA txangoa zutela, baina Martini berdin zitzaion, bere ametsa lortzea bete zuen jada. Denek esaten zioten ez zuela bere ametsa inoiz beteko, baina azkenean, betetzea lortu zuen. Martinek, eskua poltsikoan sartu zuen, eta harri txikitxo more bat atera zuen hartatik. Denei kontatu nahi zien gertatutakoa, harria zuen, beraz denek sinetsiko zien, baina azkenean ez zion inori kontatu, hori bere sekretua izan zen; bere ametsa bizitzea lortu zuen. Inortxok ere ez daki hau egia ala gezurra den, dakigun bakarra da mutikoak harritxo more hura altxor baten moduan gorde zuela, begiratzen zuen bakoitzean bere ametsa bizi zuela gogoratzen ziolako.




**Claudia Parfene**  
**DBH 3.maila**

*“Nahiz eta lagunekin egotea oso gustuko izan, batzuetan, liburu baten laguntasun bilatzen dut.”*

## BEGIAK IREKI

- *Tirrin-tirrin!* – jo zuen iratzargailuak astelehen goizean.

Martina oso nekatuta zegoen, asteburu zoro bat izan baitzuen. Ez zen etxetik agertu ostiral gauetik domekara arte. Bere ama oso kezkatuta zegoen, Martinak ez zuen ia batere hitz egiten berarekin, ez zekien maiteminduta zegoen ala ez, ez erretzen zuen edo edaten zuen... Baina ez zen ausartzen galdera haiek Martinarekin argitzen.



Martina, 17 urteko neska ederra zen. Ile horia zeukan baina hilabete batzuk lehenago gorritz tindatu zuen. Metro bat eta laurogei zeukan ia-ia, hau da, oso altua zen. Hanka luzeak zituen eta nahiko argala zegoen. Beti zituen begiak beltz-beltzak, makillajez beterik. Pixka bat zatarra zen; Martinsakin, praka apurtuekin, buru-hezurren kamisetekin... janzten zen. Baina zaletasun bat zeukan, bere burua beste leku batera eramaten zuena, arazo guztiak alde batera uzten laguntzen ziona: marraztea. Eta bikain egiten zuen! Bere logela paisaiez, pertsonez eta arrosaz beterik zeuden, berak egindako margo-lanak ziren.

Martinaren gurasoak bananduta zeuden eta horren ondorioz, Martinaren bizitzak 180°-ko bira eman zuen.

Dena hiru urte lehenago hasi zen, Martinak hamalau urte zituenean. Neska formala izateari utzi zionean. Ikasketei garrantzia kendu zien. Momentu hartatik aurrera, garrantzia zeukana etxetik kanpo egotea zen, bere amarengandik urrun eta bere “lagunengandik“ hurbil. Kakotsen artean jarri dut, haiek ez zirelako Martinaren lagunak, ez zioten laguntzen behar zuenean, interesa zen elkartzten zien gauzarik garrantzitsuena.

Asteak igaro ahala, gutun bat heldu zen haren etxera. Gaixotasun bereziak zituzten pertsonen erakunde bateko zuzendariak, Martinaren margolan bat ikusi zuen. Horren ondorioz, artista bat zela konturatu zen eta leku hartako pertsonak marraztera gonbidatu zuen.

*“ Kaixo Martina:*

*Ni Patxi Madariaga naiz, GAeko ( Gaixotasun Arraroen Erakundea ) zuzendaria. Ez nauzu ezagutzen, baina zure laguntza behar dut eta horregatik idazten dizut. Hilabete pare bat daramatzat margolari baten bila eta egokiena zarela iruditzen zait.*

*Down sindromea duten bi haur marraztea beharko nuke, nahiz eta prisarik ez izan. Ahal duzunean etor zaitezke. Neure telefono zenbakia eta e-maila utziko dizkizut, nirekin kontaktuan jar zaitezten.*

*Telefono zenbakia: 654715122*

*E-maila: [patxi.madariaga@gmail.com](mailto:patxi.madariaga@gmail.com)*

*Nire eskaintza kontuan hartuko duzulakoan, agurtzen zaitut.*

*PATXI MADARIAGA”*

Martina harrিতuta geratu zen hura irakurri ondoren. Bazekien ondo marrazten zuela, baina ez zuen espero hainbesteko arrakastarik izatea. Une horretan bere amari kontatu nahi zion gertatutakoa. Arro zegoen bere buruaz.

Astelehenean joango zela erabaki zuen, ez zuen ezer hobeagorik egiteko egun hartan. Asteburua igaro ondoren, astelehenean zuzendariari deitzea erabaki zuen.

*- Egun on, jauna. Martina naiz, zure gutuna irakurri nuen pasa den astean eta esan nahi dizut gaur joan nintekeela eta zoragarria iruditzen zaidala zuei laguntzea.*

*- Kaixo Martina ! Eskerrik asko gure proposamena kontuan hartzeagatik. Noski, ongi etorria izango zara eta eskertzen dizut gaur etortzea.*

*- Ongi da. Gero arte jauna.*

*- Agur Martina!*

*Arratsaldean eraikuntzaren aurrean zegoen, pixka bat urduri.*

*- Arratsalde on, umetxo bi marraztera nator. - esan zion Martinak idazkariari.*

*- A, bai! Zatoz nirekin neskato.*

*Gela batera eraman zuen, hor bi ume berdin zeuden koltxoneta baten gainean,*

jolasten. Mutil bat zegoen haurrei begira. “*Nor ote da?*” galdetu zion bere buruari. Ederra zen.

- *Kaixo!*
- *Aupa! Zelan?* - galdetu zion Martinak.
- *Ondo, zuri itxaroten geunden. Ni Gorka naiz, mutilen anaia nagusia.*
- *Pozten naiz zu ezagutzeagatik.*

Lana oso ondo joan zen, margolana polit-polita irten zen, batzuetan bikiak mugitu arren.

Gorka etengabe zegoen Martinari begira, eta joan baino lehenago, Gorkak elkarrekin geratzeko eskatu zion.

Lasaitasunez hitz egitea zaila egin zitzaion, urduri baitzegoen baina Martinak baietz esan zioenean, gorputz tentsioari utzi zion.

Ostiralean elkar ikusi zuten. Dena oso ondo joan zen, gauza piloa zituzten amankomunean, baina bat-batean, bere amaren gaia irten zen.

- *Ezin dut jasan berarekin egotea!*
- *Zergatik duzue elkar ezin ikusia?*
- *Nire familia beregatik banatu da, nire aita joan da, nire etorkizuna zeharo aldatu da...*
- *Beharbada, ez da zure amaren errua, gauza hauek gertatu egiten dira, pertsona batzuk elkar ulertzen uzten dute denbora igaro ahala...*

Martinak ez zituen inoiz gauzak era horretan ikusi, begiak ireki zizkion. Elkarrizketa horren ondorioz, bere amarekin zeukan erlazioa beste bat izan zen, berarekin hitz egitea gustuko zuen, konturatu zelako bere ama baino gehiago ez ziola inork maite.

Eta Gorkarekikoa, ezin hobeto zihoan. Bere bizitza hobeto zaintzen zuen une hartatik aurrera.



**Aiala Elejalde Iturbe**  
**DBH 3. Maila**

*“Gure azal kolore desberdin bat ikusiz, denok gara mesfidati. Zergatik ez bere barnea aztertu?”*

## **MUSULMANA, BAI**

Ikasle berria naiz ikastetxe honetan, Euskal Herriko nire ikastetxe berri honetan. Safiullah dut izena, 15 urte bete berri ditut, eta musulmana naiz. Musulmana, bai, buruan zapi bat dutena, azal kolorea zuek bezalakoa ez dutena. Ni ere horietako bat naiz.

Bertora etorri gara bizitzera, hemen bizimodua hobeto joango zaigula pentsatuta. Baina nik ez dut berdina pentsatzen, ez horixe, nik bertan gelditu nahi nuen; denok genuen zapi hori buruan, denok azal kolore antzekoa, baina ez, hemen ez, eta beldur naiz, beste modu batera tratatuko nauten beldur. Klasera sartu berri, denen begirada zorrotzak gainean nituen, desberdina naizelakoan, kultura desberdin bat dugulako, ohitura desberdinekin.

Baina denok gara desberdinak, izatez, esaten zidaten bertan, ez izan beldurrik. Beste batzuk ordea, denok gara berdinak, nahiz eta kanpotik ez eman, denok ditugulako sentimenduak, denok dauzkagulako pentsamenduak. Denok gara desberdinak, baina berdinak aldi berean.

Andereñoak ere, ikasleen moduan, ez nau berdina tratatzen, desberdin baizik. Denek nazka balidate bezala. Eta ez da bidezkoa.

Eskerrak gaurko eguna amaitu den eta etxean nagoen jada, baina ez dut nahi eguna amaitzea, beldur naizelako bihar ere gauza berdina pasatzea, denen begiradak berriz nire gainean edukiko ditudala pentsatzeak, beldurra ematen didalako.

Egun on. Eguna hasi da eta atzoko pentsamendu berdinak dauzkat, beldurra nire zainetatik gora eta behera dabilela sentitzen dut gaur ere.



Ingeleseko klasean marrazki bat egitea erabaki dut, beste zerbaitetan pentsatzearen, baina ezin izan dut, nire alboan eserita dagoen mutilak maisuari esan eta kalera bota nauelako.

Kalean ere beste neska bat ikusi dut, eta bera ere, ni bezala, ez dela hemengo nabari diot. Harekin hitz egitea erabaki dut lehenengo, baina gero, lotsak edo ez dakit zerk eraginda, atzera egin dut.

Biok atzerritarrak eta biok kalean. Ziur bere gelakoek, niri bezala, begirada haiekin begiratzen diotela egunero, beldurra sartzeko edo, zer dakit nik. Beraiek ez dakite zer den hau, ez dakite ni zenbat nagoen sufritzen, baina beraiei berdin zaie, ez nautelako hemen ikusi nahi, ez nautelako beraien bihotzetan nahi, ez nautelako maite.

Beste egun bat joan da eta gauzak berdin jarraitzen dute, ni zakarrontzian botata besteak urrezko txanponnez inguratuta dauden bitartean. A ze nazka!

Ama etxean da, baina aitak, berriz, lanean jarraitzen du, familia aurrera eramateko. Amari nire arazoak kontatu nahi dizkiot, baina beldur naiz, hark ere kasurik egin ez, ulertu ez, eta berak ere zakarretara botako nauen beldurrez.

Baina ausarta izan behar naiz, esaten diot nire buruari, arazoak atzean utzi eta aurrera egin behar dut. Baina ezin dut, ez naiz kapaz, laguntza behar dut, lagunena bat, nire barrua uzteko. Beraz, bihar, kalera botatako beste atzerritarrari hurreratu eta laguntza eskatuko diot.

Iritsi da eguna. Oso urduri nago, baina ez dakit zergatik, berak ulertuko nauelako, berak ere ziur aski nik pasatako gauza bera biziko zuelako, beraz, ez dago kezkatu beharrik.

Banoa ikastetxeko komunetara, negar egitera, edo hiltzera hemen, beharbada. Zergatik doa dena hain oker? Zergatik atzerritarrak ere, niri lagundu behar zidanak, pikutara bota nau? Zergatik? Norbaitek ba al daki? Nik behintzat ez!

Zuzendariarengana joatea pentsatzen nago, beharbada berak lagunduko didalakoan. Eta egingo dut, bai horixe, oraintxe bertan malkoak lehortu, hemendik irten, eta bere bulegora joango naiz dena kontatzera, nire arazo guztiak barnetik ateratzera.

Zer?! Hau nire erlijioa da, eta zuek ezin didazue hori agindu, ez. Errespetatu behar nauzue. Ezin didazu begiradek molestetzen banaute zapia kentzeko esan. Edo akaso esan behar dizut nik zuri nola jantzi behar duzun? Ez, ezta? Ba al dakizu zenbat sufritzen dugun guk herrialdez aldatu behar dugunean eta bertan ere desberdintzat hartzen gaituztenean? Ez, ez dakizu, zuek hemen oso ondo bizi zaretelako, eta berdin zaizkizuelako besteak, arrazista hutsak zaretelako!

Zer ondo gelditu naizen barruak hustu ondoren, baina ze txarto zuzendariak ikastetxetik bota ondoren, badakizue, esan diodan guztiagatik, arrazistak direla eta. Eta orain nik zer esan amari? Oporrak eman dizkigutela edo? Edo, gertatutako dena kontatu eta gure herrira itzuli nahi dudala esan?

Kaka putza, ama etxean da! Ba, gertatutako dena azaldu beharko diot...

- *Ama, hitz egin behar dugu. Etxean ordu hauetan zer egiten dudana azaldu behar dizut - hasi naiz.*
- *Esan, maitea - harrituta amak.*

Dena azaldu ondoren, amak txikitan berari gertatutako istorio bat kontatu dit, eta istorioak, nire gertaeraren antz handia zuen. Ulertu egin dit amak, nire arazoak ulertu ditu, eta etxera bueltatzen utzi dit; beraz, banoa, arrazista denak hemen utzi eta nire herrira noa. Agur, nire kezkei, agur betiko, eta ez itzuli.





**Oier Garcia Onaindia**  
**DBH 3. maila**

*“Teknologia berriak ditut gustuko”*

## **ASHVILLE HERRIA**

1920. urtea zen eta Ashvilleko zerua hain zen urdina ezen, itsasoko ura bezalakoa baitzen. Eguzkiak ilunetako argi-zuziak bizten zituen, herriko etxeak argitzen, herriko etxeak berotzen; eguzkiak, herriko etxe eta biztanleak alaitzen zituen. Garai hartako etxeak oso baxuak ziren, solairu bakar batekoak gehien bat, teilatu altu eta labainkorrez, elurrak berak irristaketan jolasteko. Eraikin haiek mendiz inguraturik zeuden, teilatuen forma berberarekin, eta herria babesten zuten edo behintzat horrela uste zuten bertako bizilagunek. Haizeak ez zuen sarri bere bortizkeria azaleratzen, ez zuen sarri herria beldurtzen. Baina egun batean agertu zen, eta ez zen bakarrik etorri, eta ez zen lasai etorri; ez zuen betiko baretasuna adierazi. Jainkoaren tristeziak sortutako negarrak herriko etxeak urperatu zituen, eta bere oihuak sortutako haize boladak eta trumoiak oso nabariak izan ziren, herriko zenbait etxe hostoen antzera eraman zituelarik.

Familia guztiek jasan zituzten kalteak eta kalte guztiek izan zuten izen eta izen guztiek galdu zuten ametsa, baina amets guztiek ez zuten ihes egin, batzuk giltzapean sartzea lortu zuten. Giltzapean zeuden ametsekin herri berri bat eraiki zuten, bizi hobeago baten bila.

Denen laguntzari esker eraikin oso politak, indartsuak eta sendoak egin zituzten. Bakoitzak zituen gaitasunei esker lortu zuten eraikinak egitea, alaitasunez eta ume zein zaharrek parte hartuz. Udaletxea, herriko enparantza, liburutegia, eskola, tabernak, eliza, medikuen etxea, polizia etxea eta herriko bankua. Herri berri eta eder hark, beste herri eta baserrietako jendea erakarri zuen beraien bizimoduagatik. Hortik aurrera, komertzio etxeak, dendak eta adinekoentzako nahiz umeentzako denbora-pasarako jolas-etxeak sortu zituzten. Mendien mugen ondorioz, ezin izan zuten aisialdiko etxeak leku ezberdinetan eraiki, baina azkenean herritarrek bileran denbora-pasarako etxea denentzat eraikin baten egotea adostu zuten. Eraikin hark hiru solairu zituen eta onura asko ekarri zituen, adin ezberdineko pertsonen arteko harremanak sortzen zuen aberastasunari esker.

Jende berriak bizitasun eta alaitasun handia ekarri zituen herrira. Baina dena ez zen ustez pentsa zitekeena. Herritar berrien artera maltzurkeriaz jantzitako taldea ere etorri zen. Jainkoaren haserreak ekarritako zoritzarra gogoratuko zuena.

Urteak igaro ziren hondamendia gertatu zenetik, eta herriko jaiak ziren. Mozorroen eguna zenez, era guztietako mozorroak ikusten ziren: txakurrez eta beste animalia batzuez jantzitako ume eta gazteak, cowboy-ak, garai hartako soineko ederrez jantzitako emakume gazteak zein nagusiak, poliziak, lapurrak eta abar. Oso egun berezia zen betiko moduan herritarrentzat. Antzinatik zetorren tradizioa zen eta jendeak oso ondo pasatzen zuen jaialdi hartan, baita gogo handiz bizi ere. Herriko bankua, dendak, eskola, udaletxea eta aisialdiko etxea itxita zeuden. Herriko jairik garrantzitsuena zenez, herritar guztiek eguna kalean ematen zuten, dantzan, hizketan, herrian zehar abesten eta jaten. Izugarritzko jaiak zen eta gaua heldu zenean, aisialdiko etxera dantzan egitera joatea adostu zuten.



Gaueko 8:30 ziren eta ez zen inor kalean geratzen, talde txiki bat izan ezik. Poliziaz jantzitako bi gizon eta bi emakume ziren, beste herritar guztiekin jaiak konpartitu nahi ez zutenak. Beraien asmoa bestelakoa zen. Egunak zeramatzen, herritarren bizimodu, ohitura, jokaera eta ordutegiak aztertzen, baina batez ere herriko bankua, hau baitzen beraien helburua. Urteko momenturik aproposena zen, herritar guztiak jaialdian zeudelako eta inork ez zuelako bankua zaintzen. Beharrezkoak zituzten tresnak hartu eta bankurantz abiatu ziren. Ez zuten asmo onik eta ez ziren egingo zuten kalteaz ohartuko. Haietariko batek perimetrao zaintzen zuen bitartean, besteek herriaren historian izandako lapurretarik zakarra gauzatu zuten. Burdinazko makila bat atea eta hormaren artean sartu eta egindako indar eta garrasiarekin batera -herri guztian entzun zen arren, inor ez zen ohartu- atea ireki zen. Ziztu bizian sartu, segurtasun gelan zegoen diru guztia hartu eta alde egin zuten.

Izugarritzko kaltea egin zuen lapurreta hark herrian eta inork ez zuen jakin nola gertatu zen. Herri guztia dantzan zegoen bitartean lapur taldeak diru guztia eraman zuen, inork inoren susmorik izan gabe, inork espero gabe, inork ezer egin gabe. Ashvillen ez zen inoiz horrelakorik gertatu, ezta antzekorik ere. Biztanle guztiak ezagutzen zuten elkar, baita elkar errespetatu ere. Lapurreta txikiak ere ez ziren gertatu eta horregatik hartu izan zuten gertaera hura hondamendia balitz bezala.

Egun hartatik aurrera gauzak asko aldatu ziren herrian. Alkateak herriko dendak nahiz herriko bankuaren zaintza indartu zuen. Bankuko atean 24 orduz bi zaintzaile jarri zituen eta gauetan zehar, batez ere jai egunetan, herriko jendea txandakatzen zen kaleak jagoteko asmoz.

Beraz, gauero, biztanleek esku-argiak jantzirik, kaleak zeharkatzen zituzten lapurrak ekiditeko edo harrapatzeko asmoz. Gauak oso ilunak, luzeak eta amaiezinak ziren Ashvillen, gehienbat zaintza egiten pasatzen zutenentzako. Ez zen lan erraza, ez zen inoren gustukoa, ez zen atsegina zeregin hura. Baina denen artean horrela izatea erabaki zuten eta onartu beharra zegoen. Beraien helburua lapurrak harrapatzea eta kartzelaratzeko zen eta metodo hura ikusten zuten eraginkorrena, harrapatzen ez bazituzten ere, behintzat lapurreta ekiditea lortuko baitzuten.

Horrez gain, bankuko segurtasuna indartzeko izugarritzko ate berria jartzea erabaki zuen alkateak, herriarekin kontsultatu eta gero. Garaiko aterik seguruena jarri zuten, burdin gogor eta luzez hornitua, baita segurtasun kaxa erraldoia ere, gutxi batzuei jakinarazi zietelarik hura zabaltzeko kodea. Guztia lapurrek utzitako gutun baten ondorioz bururatu zitzaion alkateari, lapurretan azaldutako gutunean zera esaten baitzuen:

*Biztanle agurgarriak:*

*Izugarritzko plazerra izan da zuen aurrezkiak hain modu errazean eramatea, zuek pozik eta dantzaz zeuden bitartean. Atea eta hormaren artean burdinazko makila sartu eta indar apur bat baino ez dugu egin behar izan. Gainera ez dugu asko bilatu beharrik izan, armairuan aurkitu baitugu dirua ordenaturik. Hurrengoan ere espero dugu horrela izatea.*

*Eskerrik asko eta ondo pasa mozorro gauean.*

Hiru urte igaro ziren lapurreta hartatik, eta zaintzek, bai bankukoek eta baita gauetakoez, indarrean jarraitzen zuten. Berriz ere mozorro gaua iritsi zen, herrian hain gustukoa zuten gau hura eta urtero bezala herria alaitasunez, kolorez eta doinuez jantzi zuten. Hala ere, baziren jaiaz gozatzea ezinezkoa izango zutenak ere, herriko zaintza egin beharra zutenak. Egunak aurrera egin zuen eta ez zen inongo arazorik azaldu, ez zen ezer txarrik gertatu, ez zuen eguraldi onak ere bere agertzeko aukera galdu izan nahi. Gaua heldu zen eta zaintza egiten zeudenak, bat-batean oihuak entzun zituzten: “*Lagundu, lagundu mesedez!*”. Bankuko zaintzaileak korrikan joan ziren oihuak entzuten ziren lekura, herriko norbaitek laguntza behar baitzuen. Baina ez ziren gauza garrantzitsu batetaz ohartu. Nork zainduko zuen bankua beraiek bertan ez zeuden momentuan? Nahiz eta oihuak indartsuak izan, gero eta urrunago entzuten ziren. Hurbildu ahala, bankutik aldendu egiten zirela konturatzean, zerbait arraroa gertatzen zela susmatu zuten. Ziztu bizian bueltatu ziren bankura, eta hura bai hondamendia. Nahiz eta zaintzak antolatu eta segurtasun neurriak indartu, oraingoan ere lapurrek dirua eramatea lortu zuten.

Gaizkileek ez zuten lotsarik ere izan. Dirua eramateaz gain, berriro ere gutuna utzi zuten, lapurreta nola gauzatu zuten azalduz. Beraiek izan ziren oihuka aritu izan zirenak, maltzurkeriaz, herriko biztanle jatorrak engainatuz. Segurtasun atea modu garbian zabaldu zuten, teknika berriak erabiliz. Argi utzi zuten ez zirela esperientzi gabeko lapurrak.

Herriak hurrengo egunetan azaldutako negarrak jendearen tristezia erakusten zuen, tristezia sakona, tristezia pisutsua, tristezia amaiezina. Ez zen lapurreta soila haiantzako, herriko baloreak hausten zituen ekintza baizik.

Baina alkateak ez zuen etsi. Bere herriaren segurtasunagatik bizitza emango zuela esan zuen, trumoa baino gogorragoa bihurtuko zela lapurren aurka egiteko. Eta berriz ere garaiko segurtasun neurririk berrienak jarri zituen bankuan.

Urteak aurrera egin ahala, segurtasun neurri hauek indartuz joan ziren, bideo kamerak asmatu ziren arte. Orduan bai herria pozik jarri zela, behingoz lapurrak harrapatzea ahalbidetzen baitzuten. Hura lortzeko asmoz, berriz ere mozorro gauean,

zaintzak ekiditea erabaki zuten, lapurrei ateak eta bidea zabaltzeko. Oraingoan asmoa bankuko dirua lapurtzen uztea zen, bideo kamerek grabatu ahal izateko eta behingoz nortzuk ziren jakiteko.


Gau hura ez zen aurreko urteetako jaien modukoa izan. Nahiz eta kolorea, musika eta dantzak izan, alaitasuna kateaturik azaldu zen, tentsioak kateaturik. Inoiz baino luzeagoa izan zen jaia, amaiezina. Baina azkenean heldu zen momentua. Bankura joan eta zabalik aurkitu zuten. Ez dirurik, ez lapurrik. Soilik ezer grabatu ez zuen bideo kamera eta betiko moduan, gutuna:

*Biztanle agurgarriak:*

*Oraingoan ere izugarrizko plazerra izan da zuen dirua eskuratzea. Ez dugu inolako oztoporik aurkitu. Segurtasun-neurrietan adituak gara eta beraz, bideo kamerek deskonektatzea erraza izan zaigu, baita segurtasun kaxa zabaltzea ere. Honezkerok, zuen saiakera guztiak alferrikakoak direla esan nahi dizuegu.*

*Eskerrik asko eta hurren arte.*

#### ALKATEA





**Jon Santa Maria**  
**DBH 3. maila**

*“Euskaraz bizitzeko gogoarekin”*

## JIMMYREN IPUINA

Jimmyrentzat urteko porrak ziren haiek, aste betekoak. Eraikuntzan lan egiten zuten. Gurasoen etxean pasatuko zituen. Seme bakarra zen Jimmy. Orain 25 urte jaio zen Estatu Batuetan, Louisianan, Baton Rouge hiriburutik iparralderantz dagoen herrixka batean, Mississippi ibaitik ez urrun, ama Mariek erositako etxean. Marie Landrieu-ren arbasoak kolono frantses lur-jabe handiak izan ziren. Gazte izanda, familiaren gainbehera sufritu behar izan zuten. Aberatsen neskame bilakatu zen. Eta urteEtan aurreztu zituen sosak egurrezko etxetxo bat eta hektarea biko lurra erosteko erabili zituen. Gaur egun senideen artean ikasitako nekazari lanean jarduten du, etxeko ortu eta soroetan. Aita, Robert Nagel, Arkansas estatutik etorri zen. Harrobietan eta eraikuntzan 34 urte eman ondoren, duela sei urte erretiratu zen, silikosiak jota. Marieri laguntzen dio ahal duen moduan. Baina nekazaritzak etekin eskasa ematen du eta Jimmyren soldata familia ekonomiaren euskarri da.



## Louisiana estatua

Hirurak elkarregaz bizi dira. Marie izaera bigunekoa da, apala. Gurasoengandik jasotako kultura mantendu nahi izan du. Semeari umetan *français cajun* hizkuntza irakatsi zion, kolono frantsesek berba egiten zutena. Agnostikoa, bakezale baina giza eskubideen defendatzaile sutsua, pertsonen arteko elkarlanean, laguntasunean, jarria du gizartea hobetzeko esperantza. Aldiz, Robertek karakter siku eta gogorra dauka, denbora luzez kolpatu zituen harrien bezalakoa. Bere kultura, lan zakarrear garatu zuena.

Katoliko eta tradizionalista. Botereak ezartzen ohi duen ordenaren jarraitzailea. Jainkoaren mesedean eta sufrimenduentzako saria izango den zero zoriotsuan sinesten du.

Bere gurasoen harremana amodioaren misterioetako bat dela pentsatzen du Jimmyk sarri. Batzuetan eurei ere esan die txantxetan. Eta kontziente da izaera biengandik jaso duela. Amagaz batera Irakeko gerraren kontrako protestetan ibili zen gazte zela. Louisianako beltzen eta amerindiarren eskubideen aldeko ekitaldietan parte hartzen du. Eraikuntza sindikatu bateko kidea da, baina ez zaizkio langileen matxinadak gustatzen. Eta munduan zehar Estatu Batuek errotan duten islamista erradikalen kontrako borroka ontzat hartzen du, amerikarren segurtasunerako.

Aurtengo oporretan, hainbatetan legez, familia osoa etxeko atarian jesarriko da, arratsean, eguneko beharrak amaituta, ilunabarra ikusteko Mississippi aldean. Eta Mariek esklabo beltzei buruzko aspaldiko istorioren bat kontatuko du, Robertek zelan hautsez estalita bukatzen zuten lanaldia egunero harrobietan, ezelako babes barik, ekarriko du gogora. Eta hirurek mantenuko gauzen prezioak gero eta karuago daudela aipatuko dute, kezkatuak.



Ilunabarra Mississippi ibaian

Baina gaur, ustekabeen, iluntzeko azken argiak kontenplatzen egon direnean, isilune luze bat ebakiz, aitak, ahots irmoagaz, semeari begira: *“Jimmy, amak eta biok zure geroaz egin dugu berba”*. Jimmyk aitaganantz biratu du burua, harriturik. *“Gaztea zara oraindik, baina jada hogeita bost urte bete dituzu. Zeure familia egin beharko zenuke. Eta bizimodu independentea, zeure etxea eta zeure harremanak izateko diru dezente behar da gaur egun. Ematen diguzun laguntza biziro eskertzen dizugu, baina soldata zuretzat beharko duzu eta gu, hala edo hola, moldatuko gara. Are gehiago, beste ogibide bat bilatu beharko zenukeela pentsatzen dugu, soldata egokia lortzeko”*. Ezustean harrapatuak, begirada aitagan geldia, ahots ia entzunezinagaz zezeldu du



Jimmyk: *“Baina zein?,...zelan?”*. Robertek bazekien zer erantzun: *“Amak bestelako iritzia dauka, baina nire ustez armada izan liteke aukera ona. Nire lagun Isaias Liebermanen semea orain ez asko armadatik itzuli da, kontratua amaituta. Sakela bete diru etorri da eta segurtasun enpresa bat eratu du, badakizu, poliziak, bizkartzain pribatuak eta hori dena. Eta negozioa primeran doakio. Zoaz Isaiasengana eta argitu gauza guztiak”*. Amak, burumakur zegoela, begirada altxatu eta doinu goxoz, baina sendo: *“Ez nuke aukeratuko lanbide hori ezta pagotzarik handiena izanda ere. Hala eta guztiz seme, kontua da eraikuntza lanaz beste zerbait aurkitu beharko zenukeela epe motzean”*.

Jimmyk ez zuen lorik egin gau hartan. Errealitatearen haizearen ufadak suntsitua utzi izan zion zeraman bizimodua, gabeziak eta hutsuneak agerian geldituz. Gurasoak, hain diferenteak izanda, bat zetozen bere bizitza independentearen beharraz eta horretarako zeukan diru premia. Hurrengo egunean Isaiasengana joango zela erabaki zuen.

Zoriak gidatua, Isaiasen etxean haren semearekin topo egin zuen. Roberten laguna estatuaren banderekin eta himnoekin hunkitu egiten diren horietako bat zen. Estatu amerikarra miresten zuen. Bere seme Daviden bizitza ibilbideagaz pozarren zegoen: *“Hau David da, nire semea. Ni bisititzen etorri da eta armadari buruz gura duzuna azalduko dizu”*. Hirurak egongelan jesarrita, David, adeitasunez, argipenak ematen joan zen bere esperientziak. Jimmyk horrela ezagutu zuen, besteak beste, Louisianan bertan ere soldaduak entrenatzeko leku bat dagoela, Fort Polk, zein den prestakuntza denbora, soldata ez dela lar handia, kontratua lau urtekoa dela eta David Afganistanen egon zela... *“Aizu David, zein izan da zure bizipen latzena armadan?”*. *“Ez kezkatu Jimmy, hortxe duzu nire semea, osorik, gaur egun istripu larriak ez dira ia inoiz gertatzen armadan”*. Davidek, bere isilunea apurtuz, ahopean: *“Arerioen heriotza ez sentitzen ikastea”*, eta gero ozenago, *“...baina ez, ...ezin da pentsatu, ...ez da pentsatu behar, ezingo zenuke jasan, ...”*. *“Tira ba mutil, konta egiozu ekarri duzun dirutza halakoa zelan lortu”*, eten egin zuen Isaiasek berriro. David baretuz joan zen: *“Afganistanen soldata osagarria ematen dizute. Bertako gobernua aldeko miliziak prestatzen egon nintzen. Entrenamendu eremua guztiz itxita dago eta segurtasun neurriak itzelak dira, gutxitan irten nintzen handik kanpora. Ez duzu zertan ezer gastatu eta, gainera, behar duzun mantenua armadak ekarri eta pagatzen dizu. Han aurreztu nuen diru gehiena”*. Jimmyk, urduri: *“Baina gatazkan daude, gerra ekintzetan parte hartu duzu, David?”*. *“Gutxitan. Tanke baten barruan. Ez didazu sinetsiko baina ipuin baten modukoa izan zen. Tankea punta-puntako teknologiaz beterik zegoen. Aurikularretatik eta monitoreen pantailetatik informazioa eta ordenak jasotzen dituzu eta sentsore bereziek laguntzen dizute tiroak ondo bideratzen. Bideojoko baten barruan zaudela dirudi. Eta ez dakit zenbat etsai zauritu edo akabatu nuen, ez nintzen konturatu ere!”*

Isaiasen etxetik ez zen guztiz konbentziturik joan Jimmy. *“Benetako gerra da Afganistangoa, eta gorpuak errealak”*. Baina dirua tentagarria zen. Epe bat eman zion bere buruari beste lan aukera batzuk bilatzeko Baton Rouge hiriburuan. Pintura tailer bat, garraio enpresak, eraikuntzarako material biltegiak,...dena alferrik. Lan eskaintza gutxi eta soldatak zeukana bezain eskasak. Fort Polk soldaduak entrenatzeko gunera joatea informazio eske erabaki zuen.

Hark harritu eta nahasi zuen Jimmy. Eraikin ederrak, lorategiak, zuhaitzak eta zelai berdeak. Eta zerbitzu guztiak: jantokia, liburutegia, areto multimedia, kirolentzako

instalazioak, laborategiak, erizaindegia , ...Goi mailako ikastetxe pribatua zirudien. Dena bikain zaindua. Eta soldaduak uniforme berriekin, ondo jantzita, garbi eta apain, ile motza eta aurpegi alaiak. Informazio bulegoko ilaran Jimmygaz batera zeudenek eta egongelako soldaduen senideek ez zuten horrelako itxurarik. Gehienak hegoamerikarrak edo beltzak ziren. Batzuek nazionalitate amerikarraren bila eta guztiak soldata on baten bila. Behartsuen itxurak. Aberatsik ez.



Fort Polk

Sarjentuaren adierazpenak ere perfektuak izan ziren. Fort Polketik pasa ondoren, osasun fisikoa eta mentala indartsu izango zuten soldaduek. Armada amerikarraren garantiagaz. Jimmyri ibilgailu militarren espezialista izateko posibilitatea eskaini zion,...

Liluratuta joan zen Jimmy handik eta erabakia hartuta: *“Aste bi barru, armadan”*. Lagunei agur esateko, etxean gauzak ordenatuta uzteko eta enpresan azken lanak burutzeko beste. Aita pozik, baina ama...Mariaren presentzia bera mingarria zen. Barruan zeukan oinazea islatzen zitzaion gorputzean. Jimmyk eta aitak saihesten zituzten bere begiak. Ez zegoen argudiorik, ez arrazoirik amaren sufrimendua lasaitzeko. Semeak alde egin baino aurreko egunean Mariek besarkatu zuen. Segituan bere logelan zarratu zen. Ez zuen Jimmyren irteera ikusi gura izan.

Arin igaro zen denbora Fort Polken. Errutina eta ordena militarra egokitu zen Jimmy. Prestakuntza fisikoa, taktika militarra, ibilgailuen espezialitatea ikastea,...eta prestakuntza mentala: hiltzen ikastea damutu barik, sentitu barik. Sendotasun mentala edukitzeko etsaia degradatzen ikasi zuen. Ez zen pertsona, gaizkia, deabrua giza itxuragaz baino, terrorista ankerra. Eta sarjentuak oihukatzen zuen entrenamenduetan: *“Terrorista ala zeu!, bera ala zeu!. Aukeratu!”*. Horren sinple, horren izugarri.

Afganistanera bidali zuten harrez gero. Basean Davidek kontatu zion antzeko egoerara moldatu zen. Gobernuaren aldeko soldaduak entrenatzen egoten zen, bereziki ibilgailu militarra gidatzeko. Basea segurua zen. Barneko bizimodua, trankila. Ez zen Fort Polken bezalakoa, baina, tira, jasanezina ere ez. Hango gerra afganistandarren arteko kontua zen eta amerikarrak terrorismoaren kontrako borrokan laguntza emateko zeuden soilik. Basetik kanpo gertatzen zen gerra eta noizean behin, gutxitan, talibanen erasoen berri xumeren bat jasotzen zuen Jimmyk, besterik ez.

Baina, tupustean, arratsalde batean arrisku alarma guztiak jotzen hasi ziren. Soldaduak korrika euren biltzeko lekuetara larrialdi egoeretan. Jimmyren kapitaina argia eta zehatza izan zen: taliban batzuek txabola batean ezkutaturik zeuden, zerbitzu sekretuek ezagutzen zuten terrorista nagusi bat buru zutela. *“Akabatu behar ditugu!”*

*Gobernuko soldaduei laguntzen gure talde bat bidaliko dugu*”. Eta hasi zen irakurtzen joateko zirenen izenak. Jimmyrena euren artean. Ez zuen egoeraz konturatzeko astirik izan Jimmyk. Arrapaladan armamentuaren bila eta segituan komandoan integratu zen. Irten baino lehen, kapitainak taliban nagusiaren argazkia banatu zien taldekide guztiei.

Arratsa zen talibanek okupatzen zuten txabolara heldu zirenean. Leku harritsuua zen. Ia ez zen txabola ikusten arroka handi batzuen artean. Gobernuko soldaduek ondo ezagutzen zuten lekua, eurek gidatu zuten komando amerikarra txabolara hurbiltzeko. Jimmy harkaitz baten atzean paratu zen, fusila prest. Txabola inguruan potentzia handiko lehergailuak kokatu zituzten. Haien ikaragarriko eztanda tiro egiteko seinalea izan zen. Bazoken, metrailetan eta fusilen tiro hotsak eztandaren burrunba itzelezkoari gehitu zitzaizkion. Jimmy zoro legez tiro egiten egon zen gelditzeko ordena jaso arte. Txabola hauts bihurturik zegoen, lurrundu balitz bezala, barruan zeuden talibanak eta guzti.



Qala-i-Naw basea, Afganistanen

Jimmy zegoen harkaitz atzetik komando-kideekin biltzeko lekura abiatzen hasi eta, bat-batean, pauso gutxitara, aurrez aurre, pertsona zauritu bat, talibana. Haren eskumak odoletan zegoen ezkerreko besoari eusten zion bularraren kontra. Oinutsik, odol eta zauri arrastoak gorputz osoan. Berehala taliban nagusia zela konturatu zen Jimmy. *“Geldi!, geldi!”*, oihukatu zion. Baina talibana ez zen mugitzen. Makal eta arnasestuka, zutik mantentzen zen. Lehenengo izualdia apur bat baretuta, aurrean zeukan pertsona aztertzen hasi zen Jimmy. Gaztea, bere adinekoa izango zen, beltzarana, altu samar eta, zaurituta egon arren, sendoa. Ez zuen aurpegian gorroto espresiorik.

Hil arte gogoratuko zen Jimmy orduko bizipenaz. Zerbait sortu zitzaion barruan, zer edo zer lotan zuena orain bizi irizarria. Agian amaren irakaspen ahaztuak, supituan burmuineko bazter batean berpizturik. Baina aurrean zeukan etsai talibana gizaki, pertsona zauritua bilakatuz joan zen. Jimmyk ez zuen beldurrik sentitzen. Fusila jaitsi zuen. Talibanak begiak itxi zituen une batez, zabaltzean Jimmyren aurpegi lasaiari begiratu zion eta, astiro, bira egin eta herrenka gauean galdu zen.

Denbora motzean gertatu zen dena. Lasterka, Jimmy bere komandoan integratu zen eta base militarra itzuli ziren.

Biharamunean kapitainak komandoko partaide guztiei dei egin zien ezohiko batzar batera. Poz-pozik agertu zen kapitaina, aurreko eguneko ekintzan terrorista guztiak akabatu izanagatik. Arrakasta biribila. Eta sari moduan, bi hileko oporraldiko baimena izango zutela jakinarazi zien. Soldaduen oihuek eta gorek jai giroz jantzi zuten basea.

Jimmyk bere herrira joateko aprobetxatu zuen. Baina notizia bera baino lehenago heldu zen. Eta hara non, herrikide talde bat, alkatea buru, harrera egiteko itxaroten zegoen Baton Rougeko aireportuan. Bibaka eta txaloka hartu zuten Jimmy. Alkateak gidatzen zuen auto batean sartu eta karabanan herrira abiatu ziren. Ailegatzeko zeudela alkateak kotxeko kapota kendu eta zutik jartzeko agindu zion Jimmyri. Karabanako kotxeetan pankartak atera zituzten: *“Gora gure herioa!”*, *“Gora Jimmy!”*. Herriko sarreran, errepide gainean, alboz albo, pankarta erraldoi batek zioen: *“Ongi etorri Jimmy Nagel, Afganistango heroia”*. Pankarta pean gurasoak, Robert pozez gainezka, txaloka, ondoan Marie, negar batean. Eta espaloietan herri osoa, batzuek Estatu Batuen bandera eta Louisianarena eskuetan astinduz, besteak txalo eginez.

Jimmyk ipuin zoriontsu baten protagonista zela pentsatzen zuen. Baina, tarteka, oroimenak taliban zaurituaren irudiak ekartzen zizkion kontzientziara, eta, alkatearen autoa udaletxerantz geldiro zihoan bitartean, Jimmyk galdetzen zion bere buruari: *“Zer izan naiz ni, benetako soldadu heroia ala traidore koldarra?”*.



**Patricia Guarrotxena Astillero**

**DBH 3. maila**

*“Saskibaloia eta lagunekin egotea gustuko  
ditut”*

## **JAURTIKETA**

Presio handia dut gainean, hala ere zoriontsu. Oso urduri nago, nire atzamarrak dantzan daudela dirudite. Sudurretik, arnasa sakon hartu, urpean igeri egitera joango banintz bezala, eta neure burua pixkat lasaitu dut; behintzat dardara egiteari uztea lortu dut.

Burua altxatzerakoan harmailak jendez gainezka ikusi ditut, nire gurasoak, neba, eta Ane, saskibaloia partiduetan soilik ikusten dudana laguna barne; beraien begirada zorrotzak niri itsatsita. Nitaz aparte, denek urduri dirudite. Ez dute beraien artean hitz egiteari edo bakoitza bere ekipoa animatzeari uzten. Lurrera begiratu eta izerdi tantak jausten ari diren bitartean, marraren atzean jarri ditut nire zapatila arin, beltzak lokarri horiekin. Saskibaloia hasi nuenetik erabili izan ditudan bakarrak, nire bizitzako partidu guzti-guztietan jantzi izan ditudanak bost urtetan, hala ere berriak dirudite oraindik. Diamanteak balira bezala zaindu izan ditudalako urte guzti hauetan.

\*\*\*

Irailaren 7a zen goizeko 8:15 inguru, amak izartu ninduen bere esku leunarekin nire masail gorria laztanduz eta gozo-gozo esanez *“ordua da, jaiki zaitez lehenengo egunean berandu iritsi nahi ez baduzu”*. Oraindik begiak itxita eta hizketan hasi aurretik, jakin ahal izan nuen nor zen niregana hurbiltzen ari zena, bere bainilazko lurrina usaindu ahal izan nuelako atea ireki zuen unean. Memoria dudanetik ama usain horrekin lotu izan dut, eta egia esan, ez zait inoiz gustatu. Baina dagoeneko ohituta nago, eta ez zait hain negargarria iruditzen. Ni kilikatzen egon balira bezala, ohetik salto

batez atera nintzen. Logura nintzen, baina horri, ikaskide berriak eta lagun berriak ezagutzeak, eta maila eta batez ere eskola berria hasteak sortzen zidan urduritasunak irabazten zion.

DBH 1. maila. Negar baino ez nuen egin amak eskolaz aldatuko gintuztela azaldu zidanean, beste herri batean lana aurkitu zutelako. Nire neba gaztea ez zen askotaz jabetzen, gazteagoa eta arduragabea zelako, beraz, ez zitzaion niri bezain gogorra iruditu aldaketa. Amak behin eta berriz esan zidan bezala, dagoeneko nagusia nintzen, Bigarren Hezkuntza jende nagusiarentzat baino ez zelako, hau da, negar egiten ez zutenentzako. Nolabait, amak ni eskolaz aldatzearen alde positiboak ikusarazi egin zizkidan eta esandako hura sinetsi nuen. Malkoen ordeztarria irribarrea marraztu nuen aurpegian. Nire ama oso jakintsua zela pentsarazten zidan beste arrazoi bat zen, beste askoren artean.

\* \* \*

Kontzentratzeko ahaleginetan ari naiz; orain belarri bakoitzean tapoi bat izango banu bezala sentitzen naiz. Mihia mugitzen dut, nire aho sikua listuz bustitzeko asmoz. Burua hustu eta kanpoko iskanbilatik isolatu naiz, baina arrazoi ezezagun baten batengatik, Aneren oihuak entzun ditzaket: *“Badakizu gai zarela, Mirari”*.

\*\*\*

Denak hizketan ikusten nituen, ia inor ez jesarrita. Tartean, paperezko hegazkinak alde batetik bestera hegan egiten. Andereñoa ez etortzea nabarmena zen. Atea hatz-koskorrekin jo nuen. Gela barnekoak ez ziren jabetu, bertako zalaparta zela-eta. Beraz, besterik gabe sartu nintzen. Denak jarri ziren niri begira, marmarrean. Egin nahi nuen bakarria etxeraino korrika egitea zen edo komunera joan eta han kisketa jarri. Edozer! baina “tranpa” hartatik irten. Hala ere, bertan egon behar. Atzean libre zegoen mahai batean eseri nintzen, isilik, andereñoa noiz helduko zain.

Ni begiratzeari utzi eta denek hitz egiten jarraitu zuten, neskato baxu eta fin bat izan ezik, nigana ibilera alai batez hurbildu zena: *“Kaixo, Ane naiz. Zelan duzu zuk izena?”* galdetu zidan begietara begira ilegorri zurbilak. *“Miren”* erantzun nion, lotsati. Neska berri hura benetan jatorra zen, eta zazpi minutu luzetan solasean aritu ginen. Beste gauza askoren artean, lagun-minik ez zuela azaldu zidan eta horrek poztu ninduen.

Jolastokian geundela Ane ikusi nuen beltz koloreko eta lokarri horidun zapatila deigarri batzuekin, baloi laranja bat eskuetan zuela. Berarengana hurbildu eta ea jolastu ahal nuen galdetu nion. Irribarre egin zidan eta txintik esan gabe, besoak luzatu zizkidan, baloia hartzeko keinua eginez begiekin. Jokatzeko hasi ginen. Beste ikastolan ere askotan jolasten nuen kirol honetara, horregatik dezente moldatzen nintzen. Ane ere benetan trebea zen, jaurtiketa guztiak asmatzen zituen.

Egun hartatik aurrera oso lagun egin ginen. Bereizi ezin egin ginen, beti elkarrekin. Konfiantza handia hartu genuen, sekretu txikiak ere kontatzen genion elkarri. Bere etxera lo egitera gonbidatu ninduen hamaikatxo biderrez eta bere familia ezagutu nuen. Nik ere neurera pozik gonbidatzen nuen, elkarrekin egoteko denbora gehiago izango genuelakoan. Gure gurasoak ere moldatzen ziren, kafea hartzeko elkartzeko ziren astero. Anek saskibaloia maite zuen, eta harrigarria badirudi ere,

zaletasun hura kutsatu zidan. Hainbat ordu ematen genituen jokatzeko, leher eginda amaitzen genuenera arte. Nire gainontzeko ikaskideekin ere ondo moldatzen nintzen baina zalantzarik gabe, bizitza osoan izan nuen lagunik onena izatera heldu zen.

\*\*\*

Irabaztea merezi dugu, zalantzarik gabe. Partidu hau jokatu ahal izateko lan asko egin behar izan dugu. Astean bost egunetan entrenatzen egon gara. Leher eginda amaitu izan dugu astea eta ez dugu ia lagunekin elkartzeko astirik ere izan, baina egia esan, honek ez dio axola, taldean denok garelako lagunak, lagunak baino gehiago. Ahizpak bezalakoak esango nuke. Eurekin pasatzen dut denbora gehien.



Mailaz igotzeko azken partidua. Azken jokaldia, hain zuzen ere. Azkeneko segundoetan gaude, hoguei baino ez dira geratzen. Denbora inoiz baino astiroago doala iruditzen zait. Hoguei segundo betierekoak. Puntu batengatik galtzen ari gara. Jokoa geratu da, epaile ilehori garaiak, hamahiru zenbakiak falta egin didala adierazi duelako oraindik ahoan duen txilibituaren soinu zorrotzarekin, eskuen keinuen laguntzaz. Lehenengo jaurtiketa bota eta barrura. Bigarrena geratzen zait beti amesten egon garen garaipena lortzeko. Azken jaurtiketa librea botatzeko nago, oraindik ahots bakarra entzuten dudana bitartean: “Ez ahaztu dena zure eskuetan dagoela”

\*\*\*

Dagoeneko ikasturtea amaitzeko zegoen. Jolastordu hartan, gelatik jolastokira arte zeuden eskailerak korrika bizian jaitsi genituen. Han geundenean baloia saskira jaurtitzen, gertatu zen. Pasea emateko begiratu nuenean, Ane lurrean ikusi nuen. Txantxetan zebilela pentsatuz, berarengana hurbildu eta kili- kiliak egiten hasi nintzen, banekielako ezin zituela jasan. Baina ez zen mugitu ere egiten. Aurpegia elurra bezain zuri jarri zitzaidan eta segundo batzuk bera begira geratu nintzen, gertatzen ari zena asmatu ezinean. Oihuka laguntza eskatu nuen. Bi andereño heldu eta Ane lurrean ikusi zutenean elkarri begiratu zioten, gertatzen ari zena jakingo balute bezala. Hiru minutu itxaron eta anbulantzia heldu zen. Denok klasera joatera behartu gintuzten.

Egun hartan, larri eta kezkatuta joan nintzen etxera eta amari gertatutakoa azaltzerakoan, ziztu bizian aitaren Renault urdin ilun zaharra hartu eta ospitalera joan ginen. Amak eta aitak ere Ane asko maite zuten ia egunero ikusten baitzuten. Ospitale

hura, eraikin garaia zen. Kanpotik ez bezala, barrutik oso apainduta zegoen, garbi usainaz. Sarrerako gizonak, neure lagun-mina azaltzen zen solairua seinlatu zigun eta bertan bere gurasoak aurkitu genituen biak eserita, lurrera begira eta ama negarrez. Giro horren aurrean benetan txarrena imajinatu nuen, eta zoritxarrez ez nenbilen oker. Anek leuzemia pairatu zuen. Bera eta baita gurasoak jakitun ziren. Baina ondo egin zuten niri ezer ez esatean, nahiz eta hasieran haserretzeko arrazoi izan.

\*\*\*

Epailleak txilibituari putz egin dio. Oraindik urduriago nago. Jaurtiketa ondo pentsatu eta bost urte guzti hauetan irakatsi didaten guztia gogoritzen saiatzen ari naiz. Izerditan blai nago, begiak saskian itsatsita ditut. Orduan eskua luzatu, eta atzamarren puntekin baloia indarrez gora bota dut. Entzun den bakarra, sarearen soinu garbia izan da. Baloia barrura sartu da. Gure ekipoa animatzen ari direnak eta baita nire taldekideak harmailetatik altxatu dira pozaren pozez denak txaloka. Orain zazpi segundo geratzen dira; dagoeneko irabazi dugu. Pozik eta triste. Irabazi dugu, baina Ane ez dago hemen, nahiz eta horrela izatea nahi. Bera hemen imajinatzeak indarra eman dit. Zapatilak begiratu eta jarraian eskuari musu eman eta gora altxatu dut: “Eskerrik asko”.





**Samuel Nita**  
**DBH 4. maila**

*“Lagunekin egoteaz gain, marraztea ere gogoko dut.”*

## MAITASUN ITSUA

Baso ilun batean nengoen aintzira distiratsu bati begira, hau nire mundua zen, nik nahi nuena gertatzen zen, nire ametsa. Baina ...

*- Ekain esna! Ekain!*

Nire buruan pentsatzen nengoen nor zen? Zer nahi zuen? Oraindik erdi lokartuta nengoen, baina nire amaren ahotsa ezagutu nuen, eta esnatzeko zioen. Ez nion jaramonik egin eta izara azpian sartu nintzen. Minutu batzuk igaro ondoren ama igo eta nire gelara sartu zen esanez:

*- Ekain esna! Ametz atarian dago zure zain!*

Orduan konturatu nintzen jada nire munduan ez nengoela eta errealitatera itzuli nintzela: *“Nik Ekain dut izena eta 17 urteko lehen batxilergoko ikaslea naiz. Gaur ostirala da eta eskolara joateko berandu egiten ari zait”*. Egunero birpasa hori egin behar nuen esnatu ahal izateko.



Esnatu, jantzi eta bera joan nintzen. Berandu nenbilenez zerbait ahoan hartu eta arineketan, atarira joan nintzen, han Ametz itxaroten baitzegoen. Ametz nire lagunik onena zen, txikitatik ezagutzen bainuen, eta neska izan arren oso ondo ulertzen genuen elkar. Horrek, ez du esan nahi neskei erraza denik ulertzea. Ametz neska laia eta dibertigarria zen; begi berde distiratsuak zituen, ile iluna eta ez zen oso garaia. Bera egunero etortzen zen nire bila, nire etxe albotik metro gutxira bizi baitzen. Egunero bezala, egun horretan ere, elkarrekin joateko etorri zen, nahiz eta ni berandu ibili. Atarira heldutakoan elkar agurtu eta eskolarako bideari ekin genion.

Eskolako bidean Ametzek gogoratu zidan eskolako lehen eguna zela, eta ni beti bezala berandu konturatzen nintzen, burua beti ilargian baineukan, eta hori gutxi izango balitz berandu helduko ginen nire erruz. Eskolara heldu eta hainbat jende berri ikusita, oso urduri jarri nintzen, baina Ametzek sorbaldan txalo bat eman eta gelara sartzeko keinua egin zidan. Horrek aurrera egiteko konfiantza eman zidan. Sartu eta elkarren ondoan eseri ginen.

Orduak igaro eta gero, eskola amaitu egin zen. Eskolatik irten ginen eta igaro ziren urteetan bezala, nik Ametz musika eskolara lagundu nuen. Ametz, musikari aparta zen eta bikain jotzen zuen bibolina. Ametzen arazorik larriena zen, oso urduri jartzen zela egin beharreko guztietan, jendearen aurrean. Musika eskolara heldu eta bera han utzitakoan elkar agurtu eta etxerako bideari ekin nion.

Egunak joan ahala, lagun berriak egin nituen eta gelakideak gero eta hobeto ezagutzen nituen, jada ez neukan lotsarik. Baina denborarekin gelakideak ezagutzen hasi nintzen moduan, Maider izeneko neska gogoko izaten hasi nintzen konturatu gabe. Maider neska aparta zen, ile kizkurreko eta begi urdineko neska ederra zen. Baita gelako famatuena. Gero eta maiteminduago nengoen, begietatik sartzen hari zitzaidan neskata. Pentsatzen nuenaz ez nion inori esan, ezta Ametzi.

Nik ez nekien zer egin ezta zer esan, hori gertatzen zitzaidan lehenengo aldia baitzen. Baina azkenean Ametzi esatea erabaki nuen. Goiz batean eskolako bidean esatea erabaki nuen, momentu aproposa zirudielako. Bidean kontatu egin nion, hasieran ez zekien zer esan eta ez ninduela askorik gogoko konturatu nintzen. Baina ez nion jaramon handirik egin jarrera horri. Azkenean entzun egin zidan, baina ... ez zuen ezer esan bide osoan.

Denborarekin Maiderrri hurbiltzen saiatu nintzen eta ondo egiten nuela zirudien. Baina Ametz gero eta urrunago uzten nuen, ni konturatu gabe. Etxerako bidean geundela, Ametzek berak izango zuen ekitaldi oso garrantzitsu batera gonbidatu ninduen. Bera oso urduri zegoela esan zidan eta ni, bere lagunik onena, han egoteak ausardia eta lasaitasuna emango ziola ondo egin ahal izateko. Ekitaldi hura oso garrantzitsua zen beretzat, han erabakiko baitzen bere etorkizuna musika munduan. Horregatik nire hitza eman nion, joango nintzela bera animatzera.

Baina, beste aldetik egun batean erabakia hartu nuen, Maiderrri pentsatzen nuena esango niola. Eguzkiak gogor jotzen zuen egun batean, airea biriketari hartu nuen, Maiderrrengana hurbildu eta hauxe esan nion:

*- Mainer, ez dakit nola esan, baina ... hauxe... zure gogokoa al naiz?*

Maiden denbora batez isilik geratu zen. Baina ... ahoa ireki zuenean oso urduri jarri nintzen, bere erantzunaren zain. Azkenean haxe erantzun zidan:

- *Ausarta zara niri eskatzeko, horregatik aukera bat emango dizut.*

Hori esandakoan nire bihotza normalean baino arinago hasi zen taupaka. Eta gainera ausarta nintzela esan zidan. Ezin nuen sinetsi, baina ... hitz egiten jarraitu zuen:

- *Nahi baduzu geratu gaitzke egun batean?*

Nik ahots dardarti batez esan nion:

- *Bai ... bai, no-noski!*

- *Orduan bihar ikusiko dugu elkar, gero arte!*- erantzun zidan Maidenrek.

Egun hartan mutilik zoriontsuena sentitzen nintzen eta hurrengo eguna gogo handiz itxaroten nuen. Ezin nuen sinetsi nire ametsa bete egin zenik. Hurrengo eguna iritsi eta Maidenrekin geratzeko garaia heldu zen. Elkarrekin igaro genuen arratsaldea oso magikoa izan zen: hasiera batean hondartzara joatea pentsatu genuen, baina Maidenrek nahiago zuen bizikletaz parketik bueltatxo bat ematea. Horregatik bere proposamenari jaramon egitea erabaki nuen eta elkarrekin udaletxera bizikleta batzuk alokatzera joan ginen. Arratsalde zoragarri hura amaitzeko ordua iritzi zenean, film bat ikustea erabaki genuen, erlaxatzeko. Filmaz biok gozatu genuen eta amaieran ezusteko muxu bat eman zidan. Une hori liluragarria izan zen nire bihotza inoiz baino bizkorrago zegoen taupaka. Egun hura ahaztezina izan zen, baina Ametzen ekitaldiaz ahaztu nintzen. Nire egunik zoriontsuena zela uste nuen. Ez bainekien Ametzi min egin nionik.

Hurrengo egunean gogoratu nintzen ekitaldiaz eta Ametzi azaltzen saiatu nintzen baina ... ez zidan kasurik egiten eta gainera, hori, gutxi balitz bezala, bazekien zergatik utzi nuen. Garrantzitsuena ez zen ekitaldia, baizik eta, behar izan zuenean, nire lagunik onenari ez niola lagundu. Gero eta gehiago nire bihotzean hutsune bat sentitzen nuen, eta Maidenrek ezin zuen bete.

Azkenik, pentsatu eta gero, konturatu nintzen nire laguna Ametz nahigo nuela edozein gauzaren aurretik, bera txikitatik nire alboan egon baita. Orduan erabakia hartu nuen eta Maiden utzi nuen, Ametz garrantzitsuagoa baitzen. Eta Ametzekin hitz egitera joan nintzen. Gainera, Maidenri ez zion axola izan nik bera uztea denbora pasa bat bainintzen beretzat.

Ametzengana heldu eta hasieran ez zidan jaramonik egin, ez zidan hitz egin nahi, baina ez nuen amore eman. Belauniko jarri eta barkamena eskatu nion. Berak zoriontsu begiratu eta bere begietan ikusi nuen ... txikitatik gordeta zeukan, nitaz maiteminduta zegoen eta nik, itsu batek bezala ez nuen ikusi. Hori ikusita begietan nuen zapia kendu zitzaidan. Altxatu nintzen eta besarkada handi bat eman nion. Banekien nire benetako maitasuna bera zela eta inoiz ez zidala uko egingo. Bera baitzen nire bihotzeko altxorra.



BATZUETAN AMETS EGITEA, EZ  
DA TXARRA, BAINA ZURE BEGIEN  
AURREAN IZUGARRIZKO ALTXORRA  
IZAN DEZAKEZU, ZU KONTURATU  
GABE!



**Julen Karrion Lamikiz.**  
**DBH 4. maila**  
*“Bizidxe bizitzen ikesten”*

## LAGUNAK JABON

Bilbon bizi nintzen, 14 urte nituen, ile laburra eta beti gorantz, altuera ertaineko mutil lotsatia nolabait esateko... Solokoetxe ikastolan ikasten nuen.

Oso pozik nengoen lagunekin familiarekin eta guztiekin, ikasketetan mutil azkarra nintzen, eta oso nota onak ateratzen nituen.

Nire lagunik hoberena Gontzal zen, berak ez zuen lotsarik, ni baino garaiaagoa zen, eta neskekin oso trebea, baina arazo handietan sartzen zen.

Beti batera ibiltzen ginen biok, batera eta bestera, onean eta txarrean, lagun oso onak ginen, batzuetan haserretu egiten ginen arren.

Gernikako jaietan, Imanol ezagutu genuen, gu baino urte bete zaharragoa zen, eta erre egiten zuen, Inamako tximinia zirudien.

Gernikako jaiak bukatu ziren eta Bermeoko jaiak iritsi. Bertan, neska batzuekin geratu ginen Gontzal eta biok, neskak gu baino bi urte zaharragoak ziren, denek erretzen zuten, eta Imanolek bezala, zigarroak erre nahi genituen esan ziguten. Nik ezezkoa eman nien, baina Gontzalek ligatzeko, baiezkoa. Irenek eman zion zigarroa, oso neska liraina zen bera, begi urdinak, ile hori luzea..., ipuinetako printzesa zirudien.

Hurrengo egunean, biok bakarrik geundela, errieta bota nion Gontzali erretzegatik, baina berak ligatzeko taktikak zirela esan zidan, Irene bere bihotzean barrena sartzen ari zela.

Berriz joan ginen Bermeora. Gontzal, denbora guztian Ireneren atzetik zebilen, aurrera eta atzera, maiteminduta zegoela ematen zuen, nik ordea, ez neukan burua

nesketan pentsatzeko. Egun horretan neskek ez zuten tabakorik, baina bai orgasmo edo horrela deitzen zuten zeozer, nik hori beste gauza batzuekin lotzen nuen baina... Alkohola zela esan zidaten. Gontzalek Ireneren aurrean harroarena egiteko, botila osoa edan zuen: glup glup glup, dena bukatu arte. Geroko komediak kontuan izan barik. Amak mozkorrarekin ez harrapatzeko, etxera eraman nuen nirekin, eta komunera ere lagundu behar izan nion, edan zuen guztia botatzeko.

Irene gora Irene behera, beti kontu bera ahoan. Nik, buelta bat emateko eskatzeko esaten nion, baina gauza horietan ez sartzeko. Hasieran ez zidan kasurik egiten, baina azkenean kasu egin zidan .

Eskatu egin zion, Irenek baiezkoa eman zion, eta geratu egin ziren.

Irene ez zitzaidan nobia moduan nire lagun Gontzalentzat gustatzen, oso berekoia baitzen. Beti ibiltzen ziren sakelakotik hitz egiten, eta Gontzalek niri gero eta kasu gutxiago egiten zidan; Irene baino ez zeukan bere buruan, hori ez zen txarrena, ikastolako notak ere gero eta txarragoak ziren, ez zituen etxerako lanak egiten, ez proiektuak ez ezer. Nik eman behar izaten nizekion lanak mobiletik, ariketak goizetan, eta lanak egiteko esaten nion, ikasketak garrantzitsuak zirela errepikatzen nion behin eta berriz, baina ez zidan kasurik egiten, bere Irene baino ez zeukan buruan.

Ikastolako lehen hiruhilabetea bukatu zen, eta oso nota txarrak izan zituen; niri esker gainditu zituen materia gehienak, nik egin bainizkion lan guztiak.

Ez zion axola, eta errutina bihurtzen hasi zen berarentzat lanak ez egitea eta nota txarrak ateratzea; berak nahi zuelako zen gainera, lanak eginda nota onak atera zitzakeelako.

Nik ere neskalaguna aurkitzea erabaki nuen, horretarako, Gontzali bere kontaktuak pasatzeko esan nion; ahalegin handia egin ondoren, aurkitu nuen. Nerea zen, ni baino garaiagoa eta alai. Telefonoz asko hitz egiten genuen, eta Gontzalek laguntzen zidan zer idatzi, oso gauza politak idazten genizkion elkarri; azkenean geratzea pentsatu genuen, eta geratu egin ginen .

Gernikako Lurgorri auzoan geratu ginen, oso urduri nengoen, pertsona oso urduria nintzelako. Nerea ez zegoen hain urduri; Gontzalek eman zizkidan jarraitu beharreko urratsak. Baina ni ez nintzen ausarta izan, eta ezin izan nituen berak esandako gauzak egin. Hala ere, oso ondo pasatu genuen.

Mobiletik hitz egiten jarraitzen genuen Nereak eta biok, eta baita Gontzalek eta Irenek. Gehiagotan geratu ginen, baina azkenean neska horretaz aspertu egin nintzen, moztu arte. Nereak oso gaizki pasatu zuen; eta baita nik ere.

Gontzalek pozik egoten lagundu zidan, lagun on batek bezala.

Bigarren ebaluaketa ere bukatu genuen. Gontzalek, emaitza hobeagoak izan zituen ikasten hasi zelako. Baina oraindik gehiago saiatu behar zen, ez zituelako etxerako lanak egiten.

Hirugarren ebaluaketa bukatu genuen, eta Gontzalek ez zituen notak hobetu, Irene bere neskalagunarekin egoten zelako hitz eta pitz gau guztietan, lanak egin gabe; nik ordea, neskalagunik ez nuen, orduan lanak egiten nituen, eta azterketetarako ikasten

nuen. Egia esan, inoiz baino gehiago.

Uda iritsi, eta udaleku batzuetara joateko apuntatu ginen Gontzal eta biok, ez genekien ezta non zegoen udalekua, baina azkenean internet bidez aurkitu genuen. Udalekura joateko denbora geratzen zen oraindik, uda hasi berri baitzegoen. Goizetan hondartzetara joatea erabaki genuen, eta goizero joaten ginen; neskak aurkitu genituen ligatzeko, baina ez ziren gure gustukoak izan. Ah!, Gontzalek, zoritxarrez, ezin zuen ligatu neskalaguna zuelako, baina berdin-berdin ligatzen zuen, asko gustatzen zitzaizkion-eta neskak.

Udalekuak gero eta hurbilago zeuden, eta ezagutzen genituen neska batzuk joango zirela konturatu ginen, orduan, kontaktuan jarri ginen eurekin, eta elkarrekin Bilboko piszina batzuetara joatea erabaki genuen.

Eguna iritsi zen. Gontzal eta ni Gernikako tren geltokian geratu ginen goizeko bederatzietan; trena hartu, eta Bilborantz abiatu ginen. Bertan zeuden. Guri itxaroten. Gontzalek denak ezagutzen zituen baina nik ez, orduan, beraien izenak esan zizkidan. Nik, bat baino ez nuen buruan gorde, Naiara. Begirada zorrotza, ile gorri-gorria, ipuinetako printzesa zirudien, inoiz ikusi nuen neska lirainena zen, begiradarekin maitemindu ninduen.

Desberdin begiratzen genion elkarri Naiarak eta biok, baina Gontzal ere Naiararen atzetik zebilen. Azkenean piszinarira iritsi ginen, eta Naiarak toaila nirearen alboan jarri zuen. Hizketan aritu ginen, eta berarekin uretara joateko esan zidan, nik, pentsatu gabe, baietz esan nion. Nire ametsetako neska zen. Lagunek, bakarrik utzi gintuzten eta..., nitaz maiteminduta zegoela esan zidan. Ni, oso lotsaturik nengoen, baina gauza bera sentitzen nuela esan nion.

Agurtzeko ordua iritsi zen; lagunak agurtu, eta Naiara laguntzera joan ginen. San Frantzisko auzoan bizi zen. Metroz joan ginen bertara. Naiarak, agur esan, eta Gontzali musu bat eman zion, baita niri ere, baina niri, begietara begira geratu zitzaidan, eta bestelako musu bikain bat oparitu zidan, nire bizitzako musurik hoberena, inoiz ahaztuko ez dudana.

Gontzal, oso jeloskor zegoen, berari ere Naiara gustatzen zitzaiolako, baina nik Irene zuela esan nion. Ez zidan beste ezer esan Gernikara iritsi arte. Momentu hartan, munduko mutilik zoriontsuena nintzen, egunero hitz egiten nuen Naiararekin, eta oso gauza politak idazten genizkion elkarri mobil bitartez. Gontzalek, beti bezala, denetan laguntzen zidan, eta hurrengo astean Naiararengana joatea erabaki genuen. Oso egun polita izango zela espero nuen, baina bertara heltzerakoan, gertatu litekeen gauzarik txarrena gertatu zitzaidan. Naiara niregana etorri zen, besoa lepo gainetik jarri zidan, eta bere ahots xarmagarriarekin, printzesatxo bat bezala hizketan hasi zitzaidan. Zoritxarrez, esan zidana, ez zen bat ere atsegina niretzat, beste mutil bat gustatzen zitzaiola esan zidan, Jabi izenekoa, eta ni ez haserretzeko. Nire laguna izaten jarraitu nahi zuela ere esan zidan. Momentu hartan, nire bihotza mila zatitan apurtu zen, begiak ur-jauzi bihurtu zitzaizkidan, eta nire gorputzak beruna zirudien, ezin nuen aurrera eramanez. Ez nekien zer egin, negarrez hasi nintzen, nire ametsetako neska galdu nuelako eta beste mutil batek zuelako. Gontzal etorri zitzaidan animoak ematera, beti bezala, nire egun beltzak argitzen zituen argi izpia baitzen. Beti etortzen zitzaidan momentu txarretan laguntzen, oso lagun ona zen. Ezin izan nuen Naiararekin berba gehiago egin, eta etxera etorri nintzen malkoz bustita, burumakur, ezer egiteko gogorik gabe.

Zazpi egun etxean igaro nituen, kanpora irten gabe, malkotan blai, gau eta egun negarrez. Naiarak nire bihotz handi eta maitemindua apurtu zuen.

Azkenean bai, udalekuak iritsi ziren. Autobusa hartuta joan ginen Gontzal eta biok, oso pozik nengoen Naiararena apur bat ahaztuta nuelako, baina Gontzal ez zegoen hain pozik, Irene ez zetorrelako udalekuetara.

Udalekuetan, Bilboko nesken logela berean jarri ginen. Jende pila ezagutu genuen bertan. Gauetan, ez dakit zergatik, Naiara etortzen zitzaidan burura; oso triste jartzen nintzen, baina udalekuetan ezagutu nuen Genesis lagunak asko laguntzen zidan, oso ondo egoten nintzen gauetan berarekin hizketan.

Gontzal, Iolandi izeneko Tolosako neska batekin maitemindu zen, eta batera egiten zuten lo. Bere Irene neskalaguna ahaztu zuela ematen zuen. Genesis beti etortzen zen niregana dantzan egiten gauetako diskotekan, jangelan eta leku guztietan, berari esker, Naiara ahaztu nuen. Genesis gustatzen hasi zitzaidan, ni baino pittin bat txikiagoa zen; ile kizkurra zuen, eta Eibarrekoa zen.

Egunak pasa ahala, konfiantza gehiago hartzen joan ginen biok, basora joateko txangoan nirekin etorri zen. Nirekin egin zuen lo mendi gailurrean hotz handia egiten baitzuen.

Nirekin maitemindu zela aitortu zidan, hori esandakoan, tomatea baino gorriago jarri nintzen, eta musu bat eman zidan. Gau hartan batera egin genuen lo.

Hurrengo egunean, haginak garbitzen nengoela, Gontzal Iolandarekin musukatzen ikusi nuen, baina ez nien ezer esan. Arratsaldean, Gontzalekin karta jokoa nengoela, Iolandarekin zer gertatzen zen esan zidan, hau da, udalekuan Iolandarekin ondo pasatuko zuela, eta Gernikara heltzerakoan, berriro Irenerekin...

Udalekuak bukatzeaz zeuden, eta Genesis joan egin behar izan zen; musu bat eman nion, geratuko ginela esanik, baina ez ginen berriz geratu .

Azkenik, udalekuen azken eguna heltzerakoan, denok negarrez geunden, lagun oso onak egin genituelako. Gernikara iritsi eta segituan, etxera joan ginen dutxa on bat hartzera, zeozer jatera eta lo egitera, oso nekatuta geundelako. Gontzal Irenerekin geratu zen goizean, eta ez zion Iolandarekin gertatutakoaz ezer esan, nik esateko esan arren.

Asteak pasa ziren, eta Gontzalek ezin zuen gehiago Iolandaren kontuarekin, eta niregana etorri zen laguntza eske, Ireneri zer esan behar zion galdetuz; nik, egia esateko esan nion, eta kasu egin zidan. Irenerengana joan zen, eta egia guztia esan zion. Irene oso triste jarri zen, baina Gontzal asko maite zuenez, barkatu egin zion .

Uda aurrerantz zihoan, eta Basauriko jaiak iristear zeuden. Nik ez nuen Naiararekin hitz egiten baina, bat-batean, hitz egiten hasi zitzaidan. Nik, lagun moduan hitz egiten nion. Gontzal konturatu egin zen. Nola ez, Naiararekin hitz egiten hasi zen. Naiarak nitaz maiteminduta zegoela esan zion, eta segituan abisatu zidan. Ez nuen sinesten, baina azkenean sinestu egin behar.

Egun horietan, Eider ezagutu nuen, Naiararen lagun bat. Txikia zen, begi urdinekin, oso liraina. Askok hitz egiten genuen Eiderrek eta biok. Naiararekin ezer ez edukitzeko esaten zidan, baina ezin nion uko egin Naiarari, nire biziko neska zelako .

Beraiekin geratu ginen Basauriko jaietan, tren geltokian zeuden guztiak, bat izan ezik: Naiara. Denbora bat beraiekin igaro ondoren, barraketara joan ginen, bertan zegoen Naiara. Buelta bat emateko esan zidan, eta noski, joan egin ginen. Nirekin ez zuela ezer nahi esan zidan; zuri geratu nintzen. Kareharria bezalaxe, gogor eta zer esan jakin gabe. Eiderrek aitortzen zidana gertatu zen, zoritxarrez.

Naiararekin ez nuen hitzik egin hori gertatu eta gero, baina Eiderrekin hizketan segitzen nuen, oso ondo egoten ginen orduak eta orduak hizketan, baina ni baino hobeago bat aurkitu zuenean, pikutara bidali ninduen.

Esperientzia horiek izan nituenetik ez dut neskalaguna topatzeko esperantzarik eduki, gazteak garela pentsatzen dut, lagunak jagon behar ditugula, eta beraiekin egon behar garela momentu onetan eta txarretan, beraiek egongo direlako beti gure alboan, eta ondo jagoten badituzu bizi guztirako direlako, eta ez *nobioak* bezala, joan eta etorri egiten dira-eta.

Bizia bizitzen jakitea da garrantzitsuena bizitza honetan.







**Ainara Olea Urionabarrenetxea**

**DBH 4. maila**

*“Zure ametsak bizi”*

## **DISTANTZIAREN ESANAHIA**

Lo nagoela konturatu baino lehen, jo du berriz ere nire ametsik ederrenak oztopatzen dituen ditzosozko aparatuak. Kontuan jausi orduko, goizeko sei eta erdiak dira. Dirutza ordainduko nuke berriz ere neure ohe goxoan sartu, eta lanera joan gabe geratzeagatik. Baina zoritxarrez, lanera joan beharra daukat.

Zazpi urte dira jada Gernika-Lumoko okindegi honetan lanean hasi nintzenetik. Baita Euskal-Herrira etorri nintzenetik ere. Ez dut sekula ahaztuko nire bizitzako egun hura, batez ere aireportuan familiari eginiko agurrak.

Askotan, nire burutik pasatzen dira aspaldiko garaiak, gehien bat etxean izandako eztabaidak. Garai latzak izan ziren haiek. Ahaztezinak, hitz batean esanda. Zazpi urte dira nire senideak ikusi ez ditudala. Zazpi, bai, arin esaten da, baina urte mordoa dira etxetik kanpo bakar-bakarrik bizi izateko.

Ahizpa txikia izango nuela jakin genuenean hasi ziren gora behera guztiak familian. Marokon bizi ginen, egurrezko oholekin eginiko etxola antzeko batean, egia esan, gu bizi ginen leku hartan ehun bat biztanle bizi ziren soilik, beno, bizi edo... ez zuten etxebizitzarik ere, batzuk kartoizko kutxetan bizi ziren eta beste askok hori ere ez zeukaten. Jendeak eskean egonda lortzen zuen diru apurrarekin egiten zuen aurrera, zelan edo halan. Iluntasunak eta izugarritzko beroak herri txiki eta miserable hura hornitzen zuen. Gure familiara haur txikia heldu zenean, aita langabezian geratu zen zoritxarrez. Orduan, zulo ilun batean sartu ginen denok, denboraren poderioz gero eta handiagoa egiten zena. Beraz, erabaki gogorak hartu beharra izan genuen. Momentu haietan, neu nintzen familiara argi izpi txiki bat ekartzen zuena. Gurasoek konfiantza osoa zeukaten nigan. Beharrezko ikasketa gutxi batzuk nituen eta horrez gain, hemezortzi urte bete berriak. Egunak joan eta egunak etorri, gure familian zegoen argi izpi txiki-txikia ere motelduz joan zen, eta pixkanaka-pixkanaka itzali egin zen. Garai latzak igaro genituen. Noraezean genbiltzan, argitasun pixka bat lortu nahian.

Udako egun bero eta nekagarrietako batean, erabaki bat hartzera heldu ginen. Nire bizitza goitik behera aldatuko zuen erabaki mingarria. Nire herri maitetik urrundu eta beste herrialde batera joateko erabakia. Bertan, bizi berri bat hasi eta lanean jarduteko. Horrela, nire soldataren hiru laurdena nire familiari bidaliko nion, eta zulo ilun eta amaigabetik irteteko beharrezko argi izpiak emango nizkien.

Eta halaxe egin nuen. Orain hemen nago, nire etxetik milaka kilometrora. Munduko beste kontinente batean. Nire etxekeogandik urrun lanean, jo eta ke.

Gauza batek kezkatzen nau ordea. Ondo egongo ote dira nire falta susmatzen dutenak? Behin eta berriz etortzen zait burura galdera hori. Baina ezin jakin erantzuna. Zazpi urte luze eta nekagarri igaro dira hitzik ere egin ez dugunetik. Neure buruan irudikatzen ditut beraien aurpegi irribarretsuak eta nire herrixka txikia. Baina ezin jakin benetan irribarretsu ote dauden.

Iraganeko kontu guzti horiek alde batera utzi eta nire lanera bueltatu naiz, okindegian nago berriz ere, animaliak kortetan egoten diren antzera. Milioika ogi saltzen ditugu Euskal-Herri osoan zehar. Egia esan gustura nago nire lanarekin, izan ere, bizitzan ezagutu dudan gizonik maitagarriena lanean nengoela ezagutu bainuen. Egun hartan, nire munduko laino eta euri tanta guztiak desagertu eta ostadar erraldoi bat eta eguzki ederra agertu ziren. Euskal-Herrian igarotako egunik zoriontsuenak izan ziren dudarik gabe. Orduan, gizon zoragarri bat sartu zen nire mundura, eta nire bizitza goitik behera aldatu zuen. Berak, nire kezka eta estutasun guztiak ulertzen ditu. Inor ez bezala maite dut, txora-txora eginda nauka. Lau bat urte daramatzagu elkarrekin, eta beste mordoa emango nituzke bere alboan. Baina bera Hernanin bizi da, Gipuzkoan. Eta honek gure arteko harremanak murrizten ditu. Horregatik, asteburu guztiak aprobetxatzen ditugu elkarrekin egoteko, eta honek nire asteko egunik gogokoena bilakatzen ditu zapatu domekak.

Lau bat egun falta dira soilik urte zaharrari agur esan eta berriari ongi etorria emateko. Nik zerbait berezia prestatu nahi dut, baina aldi berean, nire ekonomia egoera dela eta, ez dut poltsikoari kalterik egin nahi. Gabon jai hauek bereziak izatea izan nahi dut aspaldiko partez. Berezia? Galdetu diot neure buruari. Segundu batzuetaz, nire familiaren argazkia etorri zait burura. Baina ezinezkoa dela pentsatu, eta alde batera utzi dut ideia hori.

Aste luze oso bat gaurko eguna itxaroten egon ondoren, gaur, nire mutilagunarekin elkartuko naiz. Heldu da asteko nire egunik gogokoena, domeka. Irrikatzen nago nire ametsik ederrenetako heroia ikusteko.

Arratsaldeko laurak dira. Kezkatzen hasia naiz jada. Bi ordu igaro dira nire mutil lagunarekin geratu nintzenetik. Zerbaitek esaten dit nire barnean, ezbehar bat gertatu zaiola, bihozkada bezalakoak dira. Ez dut horrelakorik pentsatu ere egin nahi. Ezin dezaket imajinatu nolakoa izango zatekeen nire bizitza bera gabe. Sakon arnastu eta beste apur bat itxarotea erabaki dut. Ez da denbora askorik pasatu, etxeko txirrina jo duenetik. Nik bakarrik dakit nolako lasaitua hartu dudan! Atzamarrak gurutzatu, eta atarira hurbildu naiz.

Bera izan da, Jaun Goikoari eskerrak! Ia ito dut eman diodan besarkadarekin. Orduan konturatu naiz, zerbait daramala esku artean. Kartoizko karpeta txiki bat dela esango nuke, baina ezin dezaket ziur esan, plastikozko poltsa baten barruan baitago. Etxeko sofan eseri gara biok, bata bestearen alboan. Geure asteko gertaerei buruz hitz egin ondoren, pare bat minutuko isilunea. Deseroso nago. Badirudi bera ere urduri dagoela. Orduan konturatu naiz zerbait esan nahian zebilela, baina ematen zuen ez zela ausartzen. Halako batean, zera bota du:

- *Urtea bukatzeaz dago eta... elkarrekin igaro ditugun urte hauek ahaztezinak izan direnez...* - Mutu geratu naiz momentu batez, baita bera ere. - *Zera... beste hainbat urte zoriontsu igaro ditzagun bata bestearen alboan!* - Azken hitz hauek esan ondoren, nire albotik altxatu eta egongela bazterrean utzi duen poltsa txikiaren bila joan da. Urduri jartzen hasia naiz.

- *Urte zaharra ondo agurtu dezagun, hau zuretzat maitea.*

Begietara zuzen begiratu diot eta plastikozko poltsa hartu dut. Bai, karpeta txiki bat da. Bi gomatxoak alde batera luzatu eta zabaldu egin dut. Mutu geratu naiz, ez dut sorpresa handiagorik hartu bizitza osoan. Bi hegazkin txartel ditut begien aurrean, bai, Morokorako bi hegaldi. Shock egoeran nago. Hitzik esan gabe. Nola eskertu ere ez dakidala. Orduan, irribarre egin eta muxu erraldoi bat eman diot.

Oraindik ere kosta egiten zait sinestea, egun pare bat barru, azken zazpi urteotan desio izan dudana ametsa egi bihurtuko dela. Orain bai, orain nire senideengana joango naiz, nire bizitza aldatu duen mutila aurkeztuko diet eta denok elkarrekin sekulako momentu ahaztezinak igaroko ditugu!

Gaur ez du nire ametsik ederrenak oztopatzen dituen aparatu ziztrinak jo, gaur, aspaldiko partez, ez ditu inork nire ametsak oztopatu. Pozez lehertu beharrean nago, maletak prestatuta ditugu jada, eta lau ordu barru da hegaldia.

Heldu da ordua, nire bizitzan ahaztuko ez dudana bidaiari hastear gaude. Loiuko aireportuan gaude biok, eserleku luze batean eserita, pantaila handiari begira. Leihatila batera hurbildu gara eta maletak zinta luze batean utzi ondoren, nire jaioterrira eramango gaituen hegazkinean sartzeaz gaude. Berrehun bat eserlekuk betetzen dute hegazkina, gu biok, haietako bi okupatuko ditugu.

Bidaia luze baten ondoren, heldu gara beste kontinente batera, Afrikara, hain zuzen ere Morokora. Hau guztia oso desberdina da, izugarri aldatu da nik alde egin nuenetik. Badirudi ekonomia egoerak hoberrantzen egiten duela, baina oraindik ere egurrezko etxola zahar ugari ikusten dira herri bazterretan.

Ordu pare bat barru, heldu gara ehun bat biztanleko herri miserablara. Zenbait oroitzapen on bat-batean. Nire etxetxoa ikusteko irrikatzen nago. Hantxe dago! Urrunean, lehen baino egoera hobean dagoela esan daiteke. Kezka eta beldur bolada bat pasatu da nire barnetik, urte asko pasatu dira, eta beldur naiz. Sentsazio arraro hauek guztiak alde batera utzi eta nire mutilaguna eta biok eskutik lotuta hurbildu gara. Atea jo baino lehen, besarkada handi bat eman diogu elkarri. Orain prest gaude...

Neure gogo guztiekin kolpekatu dut egurrezko atetxoa. Norbaiten pausuak nabaritzen ditugu. Badirudi hurbiltzen dagoela. Atea suabe-suabe ireki da, eta bertan ikusi ditut denak, elkarrekin afaltzen, mahai inguruan eserita. Nik irudikatzen nituen bezalaxe, irribarre handi batekin. Nire masailetan behera, negar malko bat erortzen nabaritu dut, pozaren-pozez.

Ni Khira naiz, hogeita sei urteko neska gaztea, etxe honetan hazia, eta bizia. Hemezortzi urterekin Euskal-Herrira (munduko herririk ikusgarrienera) emigratu beharra izan nuena. Azken zazpi urteotan zuen falta asko susmatu dudana arren, oso zoriontsua izan naiz. Batez ere, Martxel ezagutu nuenetik. Bera mutil zoragarria da, izan ere, berari eskerrak gaude hemen. Izugarri maite dut.



**Leire Ramiro Vaquero**  
**DBH 4. maila**

*“Txikitatik gustatu zait literatura  
eta ipuin asko irakurri izan ditut.”*

## KRISTALEZKO KOPA

Istorio hau ez da orain dela asko gertatu, pasadan hilean baizik. Harrigarria iruditzen bazaizue ere, dena gutun batekin hasi zen, orri zati batekin, zehazki. Ni 16 urteko neska arrunta naiz, institutuko azken urtea gainditzeko esperantzaz aparte buruan besterik ez duena. Nire lagun guztiek mutiletan pentsatzen eta beraiei buruz hitz egiten ematen dute egun guztia, nik guztiak ergelak direla pentsatzen jarraitzen dut. Madrileko institutu publiko batean ikasten dut pasadan urtetik, lehen Granadan bizi nintzen eta. Nire gurasoen banaketaren ondorioz amarekin eta Unairekin, nire 11 urteko nebarekin, etorri nintzen hona bizitzen eta nahiko gogorra egin zitzaidan, baina zorionez Amaia ezagutu nuen, orain nire lagunik onena bihurtu dena eta nire lagunak aurkeztu zizkidana. Martxoan geunden eta hurrengo astean ikas bidaiara gindoazen, laugarren mailako ikasle guztiak, Maltara, beraz asteburu horretan *Gran Viara* joateko asmoa geneukan, ikas bidaiarako arropak erostera. Ostirala zen, institututik irtenak geunden eta 5:30etan Inesekin geratu nintzen, nire etxetik gertuen bizi den laguna, eta 6retan lagun guztiak, Ignacio barne, *Bershka* arropa dendaren aurrean geratu ginen. Ignacio oso lagun jatorra da, orain dela urte erdi gurekin ibiltzen hasi zen. Lehen mutilen koadrila batean zegoen baina armairutik irten zenetik bere lagunek barre egiten zioten eta ez zuten tratatzen lehenago bezala, beraz gurekin ibiltzen hasi zen eta nire ustez orain erosoago dago lehen baino. Uniformea kendu ostean, praka bakero batzuk eta alkondara zuri bat jantzi, makillaje apur bat jarri eta prest nengoen. 10 minutu geratzen zitzaizkidan beraz posta begiratzea erabaki nuen, horretarako portalera jaitsi behar nintzen. Gutun mordoa zegoen, nabaritzen zen inork ez zuela aspalditik posta begiratu, aspaldi horretan ama oso lanpeturik zegoen tabernan eta Unai oso alperra zen lan hori egiteko. Bankuko gutun guztiak pasatu ondoren, tolesturik zegoen orri bat aurkitu nuen,

bertan, helbide bat, ordu bat eta data bat zeuden idatzita: *Martxoaren 20a, 21:30, Paseo de Recoletos, Cafe Gijon*. Egun hartako data zen eta irakurri ostean konturatu nintzen gutunaren atzealdean nire izena zegoela idatzita: Lucia Alvarez.

*Bershkaren* aurrean geunden guztiak Ana izan ezik, beti berandu heltzen zen, beraz itxarotea egokitzen zen. Ordu erdi beranduago heldu zen eta Angelak betiko moduan haserre jaso zuen.

- *Berriz ere berandu, helduko da eguna ez dizugunean itxarongo!*

- *Barkatu guztioi, etxetik irteten nengoenean amak logela batzeko esan dit eta...* - argudiatu zuen Anak.

- *Bai, bai...* -Esan zuen Angelak, beti zeuden kontu berarekin, gezurra dirudi haiek biak lagunik onenak izateak.

*Gran Viako* denda guztietan egon ginen, eta arratsalde guztia takoi eta gonon artean igaro genuen. Claudiak denda guztia erosi zuela zirudien, besteak ere poltsa nahikorekin bukatu zuten, nik berriz ez nuen askorik erosi, egun guztia gutun horri bueltak ematen pasatu nuelako. Taberna batean gelditu ginen zer edo zer jateko eta edateko. Momentu hori aprobetxatu nuen Amaiari gutunaren berri emateko. Mahaiaren izkinan jesarri nintzen, Amaiaren ondoan eta gutuna erakutsi nion.

- *Kafe horretara joateko asmoa al duzu? Ordu haietan?* –galdetu zidan harriturik.

- *Ez dakit, oso misteriotsua da, jakin-min handia daukat.* –erantzun nion, lurrari begira nengoelarik.

- *Egin zuri hobeto iruditzen zaizuna, baina azkenean joaten bazara 12ak baino arinago mezu bat bota dena kontatuz.*

- *Zin egiten dizut.* –Esan nion besarkada handi bat eman ez Amaiari.

Tabernatik irten ginenean Angelak pelikula bat ikustea iradoki zuen, guztiak ados geunden, beraz zinema hurbilenera joan ginen eta kartelera ikusi ondoren *Unbroken* filma ikustea erabaki genuen. Ni pelikula hori ikusteko irrikan nengoen, Bigarren Mundu Gerrari buruz zen, baina aspergarria iruditu arren, oso polita izan zen. Jack O’Connell-ek Louis Zamperiniren papera egiten zuen, etorkin italiarra zen mutil batena. Palomita batzuk eta edatekoak hartu eta gure lekuetan jesarri ginen pelikula ikustera. Pelikularen amaieran ezinezkoa egin zitzaidan negar ez egitea, ezin nuen sinetsi istorio hori benetan gertatu zenik, baina momentu horretan ezin nuen horretaz pentsatu, ordu erdi bat barru hiriaren beste aldean zegien kafe batean geratu nintzen mutil misteriotsu batekin, bueno, mutil bat izatea espero nuen eta nire edatekoa izan ahal ba zen hobeto. Lagunekin izekoren etxera joan behar nuela esan nien, Amaia izan ezik uste dut denek sinetsi zutela, eta agurra eman ondoren, nahiko urrun zeudenean, taxi bat hartu eta taxilariari gutuneko helbidea eman nion. 25 minutu beranduago taxiak kafearen aurrean itxi ninduen eta ordaindu ostean tabernara sartu nintzen. Sartzerakoan

lekuz kanpo sentitu nintzen, jende guztia dotore-dotore zegoen jantzita eta lekuko gazteena ni nintzela zirudien. Jendeari begirada bat eman ostean barrara hurbildu nintzen eta zerbitzariak ia zer edo zer eskatuko ba nuen galdetu zidan.

- *Coca Cola light bat hartuko dut, mesedez.* –esan nion apur bat lotsaturik.

- *Ongi da.* –Erantzun zidan, tonu adeitsuarekin. Beste zerbitzariekin konparaturik nahiko gaztea zirudien, ez zen 20 urtetara helduko. Oso ederra zen, izoztuta uzten zintuen begi berde batzuk zituen eta bere ile beltzarana hain leun eta zetakara zen hura ukitzeko gogoia ematen zizuna.

Ordu erdi eman nuen barra horretan nor edo nor agertzen zain baina ez zen inor ere niregana hurbiltzen, azkenean dena txantxa bat zela pentsatu nuen. Zelan nahi izango luke mutil batek ni bezalako neska batekin geratu? Momentu horretan engainatua sentitzen nintzen, beraz joan aurretik beste Coca Cola bat eskatu nuen.

- *Beste bat? Azkenean pentsatuko dut nigatik zaudela hemen hainbeste denpora.* –esan zidan lehenagoko zerbitzariak, inoiz ikusi dudan irribarre politenarekin.- *Dena dela eta... Zelan duzu izena? Ni Hugo naiz.* –Galdetu zidan Coca Cola bat ematen zidan bitartean.

Ezin nuen sinetsi, mutil horrek zelan deitzen nintzen galdetu zidan, beste edozein kasutan popatik hartzen bidaliko nuen, baina zelan egingo nuen hori mutil horrekin? Irresistiblea zen. Coca Cola apur bat edan ondoren esan nion:

- *Lucia, Lucia dut izena.*

- *Bueno ba Lucia, ikusten duzunez jendea joaten hasi da eta taberna itxi beharra daukat baina nahi baldin baduzu apur bat gehiago geratu ahal zara nirekin berba egiten.*

Hau bai ezin nuela sinetsi, ezin nintzen geratu bakarrik ezagutzen ez nuen mutil batekin, edozer gertatu ahal zen, behar bada hiltzaile bat zen edo pederasta bat, baina begi berde haiek edonor konbentzitzen zuten.

- *Ongi da.* –esan nion ahal izan nuen modu lasaian.

Tabernako azken bikotea irten zenerako 10:30 ziren, eta ni mutil misteriotsu harekin nengoen bakarrik taberna erraldoi hartan. Lelotuta geratu nintzen hari begira trapu zahar batekin barra garbitzen zuen bitartean. Garbitzen amaitu zuenean begirada bat bota zidan eta nik nirea aldentzen saiatu nintzen ahal izan nuen lasterren.

- *Nahi al duzu txanpan apur bat? Badakit ez zarela adinduna baina pixka batek ez dizu kalte handirik egingo. Zenbat urte dituzu? 16... 17...?*

Zelan izango ditut 17 urte? Benetan hori pentsatu zuela? Txantxetan ibiliko zen.

- *15 urte ditut, baina datorren hilean 16 egingo ditut, hile bat barru zehazki.* –erantzun nion lotsaturik.

- Benetan? Zin egingo nuen 17 urte dituzula... Bueno nahi al duzu ala ez? Ez lotsatu, taberna hau ia nirea da, nire aitarena da baina nire eskuetan itxi du, bera beste tabernetaz arduratzen da eta.. Orduan esan daiteke txanpan eta botila guzti hauek nireak direla.

Ederraz aparte aberatsa, eskatu al zen gehiagorik?

- Ongi da, apur bat probatuko dut. –erantzun nion gorrituta.

Hugok botila bat eta bi kristalezko kopa hartu eta bakoitza erdira arte bete zituen, ondoren kopa altxatu zuen edateko eta nik berdina egin nuen. Baina bat-batean bere begiek distraitu egin ninduten eta kopa eskuetatik laban eginez lurrera jausi zitzaidan. Ezin nuen sinetsi hain traketsa nintzenik, berehala altxatu nintzen hura garbitzeko asmoz baina oin batekin estropezu egin eta kristal zatien gainera erori nintzen eskuak aurretik jarritz. Nire eskuak begiratu nituenean odoletan zeuden eta Hugo niregana hurbiltzen ikusi nuen baina zeharo zorabiatu nintzen hainbeste odol ikustean.

Bata-batean iratzargailua entzun nuen eta salto batez jaiki nintzen. Zapatua zen eta amets oso arraro bat izan nuen, baina txarrena zen ez nuela gogoratzen aurreko egunean eginikoaz. Ohetik altxatu eta ispilura nioan nire ile kizkurra orraztera, baina orrazia hartzerakoan mina egin zidan. Orduan eskua begiratu nuen eta zauri bat neukan, horrek gauza bat bakarrik esan nahi zuen, aurreko egunekoa benetan gertatu zela eta ez zela amets bat izan. Orain hile bat igaro egun hartatik eta ez dut mutil hori berriz ikusi, taberna horretara joanda nago berriz, baina inork ez du Hugo izeneko zerbitzari bat ezagutzen. Egun hartako mutil misteriotsuaren oroipen bakarra nire eskuko orbaina da. Gaur nire urtebetetzea da eta amak nire gosaririk gogokoena prestatzen duen bitartean posta begiratzera joateko eskatu dit. Armairutik edozein arropa hartu dut eta portalera jaitsi naiz. Portalean mutil bat ikusi dut, begi berdeak ditu eta ile marroia, ezin dut sinetsi, Hugo da, eta nire gutunontzian zer edo zer uzten ari da. Begi berde haiekin begiratu dit eta korrika alde egin du, arinegi korritzen de eta nik ezin dut hain arin korrika egin, beraz, portalera bueltatu naiz. Gutunontzia ireki dut eta bertan zoriontxartel bat aurkitu dut: *Zorionak Lucia* jartzen duena eta kristalezko kopekin apainduta dagoena.



**Maite Sarrionaindia Juaristi**

**DBH 4. maila**

*“Euskara da gure territorio libre bakarra.”*

## **ERDU!**

Gutxienez astebete pasa da heriotzak Karmele nire albotik ezer esan gabe eramán duenetik. Gutxienez astebete, nire bihotz zahar honek alboan inor geratzen ez zaiola ulertu duenetik. Etxaurrean eserita, nire laurogeita hamabi urteko esku ximelei begira geratu naiz, denborak egitekoa lehenbailehen bukatu arte esperoan, denbora heriotzaren zerbitzari leialenetakoa baita. Minutuak, orduak, gero eta azkarrago igarotzen dira, bizipen eta esperientziaz betetzen zaigu buru osoa, azkenean, dena ahanztera eramaten gaituela heldu arte, heriotzara arte.

Zapata kutxa ireki eta hainbat argazki atera ditut bertatik, bat eskuan hartu, eta begira geratu naiz. Zuri- beltzezko argazki kolorgea, denboraren zurrunbiloan galduz, den dena ahaztuz, eta nahastuz. Gazteak gineneo argazki bat da, Karmele eta biok ageri gara irribarrez, aitaren denda aurrean, biok kamerari begira, begiak dirdiran. Gazteak ginen, zentzugabeak, bizi guztia aurretik genuela uste genuen, orduan halaxe zen oraindik. Baina urteek aurrera egin zuten, miseria gorria ezagutu genuen, eta zahartu egin ginen, arimaz eta gorputzez, eta orain, etxaurrean esertzen naiz eta denbora ikusten dut pasatzen, mihia ateratzen dit burlati, badaki nireak egin duela.

Erabaki dut jada: argazki hau izango da aurrerantzean gure seme-alabek, baita gure bilobek ere, edukiko dutena. Argazkia eskutan hartu, eta gelara joan naiz, lehen biona zen ohea hutsik dago orain, lehen konpartitzen genituen izarek ez dute Karmeleren gorputz gozoaren berotasuna dastatzen. Semeak erosi zigun mugikorra hartu, eta alabaren etxera deitu dut. Haren alaba Magalik erantzun du, “arratsaldeon aitona!” doinu zoriontsuegian esanez. Zoriontasun horrek barru-barrutik mindu nau, ezin azaldu dezakedan eran, eta ia ahotsik gabe, amari jartzeko esateko esan diot.



Alabaren ahotsean zalantza eta deserosotasuna urrundik igarri daiteke, baina ez diot ezer esan, ni ere ezeroso sentitzen bainaiz. Bazkaltzeko gelditu gara, nire etxe aurreko jatetxean, alabarekin bakarka hitz egiteak beldurtzen nauen arren, onartu egin dut.

Igandeetako arropak jantzita irten naiz kalera, zapata berriak aldean eta kolonia pote erdi azalean, badakit alabak gustuko duela nire koloniaren usain sarkorra. Bidearen bestaldean dago alaba, zain. Ikusi nauenean irriparre goxoa agertu da bere ezpainetan, eta momentu txiki batez, bere haurtzaroko eszena bat etorri zait gogora, Karmelek eta biok bigarren eskuko kamera zahar hura oparitu genionekoa.

Baina orain alabak berrogeitabi urte ditu, eta nire aurrean dago, niri begira, zer esan asmatu nahian agian.

- *Aita... - esan eta ixilik geratu da- nahi duzunean etor zaitezke gure etxera, badakizu, egun batzuk pasatzera edo... esan nahi dut... zuen etxean deseroso bazaude, ulertzekoa da, izan ere, amaren gauza guztiak bertan daude eta, badakizu- ahotsak dardara egiten dio.*

- *Lasai, gustuko dut gure etxea, zure amaren usaina du oraindik.*

Ixiltasun deseroso bat zabaldu da gure artean, ezezagun bi metroan elkarren ondoan eserita doazenean bezala. Orduan, Karmelek askotan errepikatzen zuen esaldia etorri zait burura, eta ezer hoberik ezean, horixe esan diot alabari:

- *“Lantzien lantzien barretxu bataz, ta negar anpuluekaz bebai” esan ohi zuen zure amak.*

Alabari begietara begira, bere amaren trazua hartu diot, izan ere, Karmeleren begiak ditu, ezti koloreko begi gozoak, eta hauetan islatuta ezagutu ez dudana agure bat, begiak begi zulo bilakatuta, iluntasunean ezkutatuta, begirada aspaldi izan zenaren oroitzapen lauso bilakatua. Besteak heriotzatik ihesi doazen bitartean, ni lokatzez eta odolez beteriko putzu zikin horretan murgiltzen joan naiz, gero eta gehiago, gero eta sakonago, bakardadea heriotzarekin batu den momentura arte, nire arima xurgatuz. Bizitzak eragindako markak azalean daramatzagu, heriotzak egingo dizkigunak lurrak jango ditu.

Alaba agurtu eta etxera bidean kale kantoian botata ikusi dudana mutilak nire gaztaroa ekarri dit gogora. Egun konkretu bat dut gogoan, kalean botata nengoela Karmele igaro zen nire albotik, orduan ez ninduen oraindik ezagutzen, eta nire egoera penagarria ikusita, zera esan zidan:

- *Katu bat igaro da kale estu eta zikin baten ondotik. Kale horretan zu zaude, lurtean botata, arima pisutsu, burua gehiago. Zirrikitu zikin horretatik igaro den katu hori zu baino hobea da, ez ahaztu.*

Baina orain, laurogeita hamabi urteko agure zaharra naiz, iraganeko hondartzetako zapata markak urak eramanean ditu, olatuak jan ditu, kresal haizeak jota.

Uste dut aspalditik erabakia hartuta nuela, baina gaur ziurtasun osoz esan diot neure buruari, egin egingo dudala, ez naizela atzera botako. Badakit ez dela Karmelek nahiko lukeena, ezta nire seme-alabek nahi dutena ere, baina neuk hartu beharreko erabakia da, eta behingoz, denboraren ganbaran ahaztuta utzitako ausardia kutxa astunari hautsa kendu eta zabaldu egingo dut.

Kanposantuan sartu naiz, bertako isiltasun baketsua dastatuz. Beti gustatu izan zait hona etortzea, txikitan, nire amarekin etortzen nintzen astero familiakoei loreak jartzera eta ezezagunei bisita egitera. Etxera itzultzerakoan, amak beti berdina errepikatzen zuen begi dizdiratsuz:

- *“Bueno ba, gaurkue be eidjunau, da bidjer be idjengon ziozer, gaurkuen bestekue idjeten bon, ondo gabidjen”*.

Sukaldera sartu eta amak hitz horiexek berak errepikatzen zituen astero hilerritik bueltan, aitaren gramofono zaharrea entzuten zen Beethovenen “Moonlight”en lehenengo mugimenduaren doinuarekin kontrastatuz.

Orain, nire emaztearen hilobiaren aurrean, urrun geratzen dira egun haietako irriparrak eta poza. Nire malkoak, azkenak, aspaldikoak, hautsa dira, horren ordez, eztula, nekea; orratz bat hautsi zaion erlojuaren antzekoa naiz, inexaktoa betieran.

Loresorta eder baten atzean harri hotzezko hilarri bat dago, “Karmele Atxa Irazabal” izenak burmuinean talka egiten didalarik, izan ere, asimilatu beharra daukat oraindik. Euria goian behean hasi arren, nik hilobiaren ondoan dihardut, hain hurbil, hain isilik, ezen bere ahotsa entzutea iruditu baitzait, “erdu, erdu nigez!” esanez.

Azkenean, eguzkiaren azken argi gorrixkak lagunduta, hilerritik irten eta etxerako bideari ekin diot. Ene arima zimeldua senti dezaket, ahul, laguntza eske, askatasun bila. Mikel Laboaren kantu hark zioen bezala “bihotz buztinezko bihotz, etxe txiki bat zara, ahula, hauskorra...”.

Etxera itzultzean bidaia astuna egin zait, errealitatera buelta, izan ere denok gara fikzioaren sortzaile, nola edo hala, denok asmatzen dugu etengabe gure bizitzaren historia.

Amarekin hilerritik itzultzean, bidaia atseginagoa zen askoz, oinez itzultzen ginen, bidezidor batetik, eta ez ginen isiltzen. Amak ez zuen inoiz irribarrea galtzen, edozeini umore ona ateratzen zekien, baita aitari ere. Arratsaldetan, ama sukaldean esertzen zen, eta aitaren gramofonotik ateratzen zen musikari kasu zipitzik egin gabe, italieraz abesten hasten zen, bere ahots gozoaz, orduan aitak musika itzaltzen zuen eta emazteari begira geratzen zitzaion, isilean.

Etxera heltzean, satora jaitsi, eta zerbaiten bila hasi naiz, nik ere ez dakit zer, izan ere ez daukat argi nola egin nahi dudana egin beharrekoa. Hainbeste gauzaren artean, Karmeleren gaztetako soineko urdin bat aurkitu dut. Goizean aurkitutako argazkiaz oroitu naiz, egun hura izan baitzen soineko hau erabili zuen azken eguna, gero haurdun gelditu baitzen, eta soinekoa ahanzturaren zuloan galduta gelditu zen.

Soka lodi bat eta nire emaztearen soineko urdina hartu eta gure gelara igo naiz, bihotza txiribuiltaka dudalarik. Goizean egin gabe utzi dudana ohea egin dut, arropak txukun pilatu armairuan, eta horrela, sistematikoki, gela osoa txukuntzeari ekin diot. Inkonzienteki, inoiz baino garbiago utzi dut gure gela, lorontzian lore freskoak jarri, eta gela osotik Karmeleren kolonia zabaldu dut.

Sabaiko zuretatik soka pasatu dut, eta mutur bata bertan lotuz, beste aldean eskegita utzi dut. Txikitan aitak erakutsi zidan korapiloak egiten, eta horri esker eskegita dagoen soka muturrari marapilo sendoa eman diot, sokak borobil forma hartu duelarik. Sukaldera itzuli naiz eta zurezko eserlekurik sendoena esku artean hartuta, itzuli naiz gelara. Taburetera igo, soka eztairik igaro, eta azken unean, hankak erortzen uzteko nagoen unean, non gogoratzen dudana, dilistak sutan utzi ditudala. Bizitzak buelta gutxi eman ez eta, hau ere aurrean jarri behar. Deseseki, lurrera jaitsi, eta sukaldera itzuli naiz berriro. Sua itzali, gasa itxi, eta gelara itzuli naiz. Une batez, dena tontakeria dela pentsatu dut, dilistena bigarren oportunitate bat izan dela, baina dena koldarkeria dela erabaki eta berriro igo naiz eserlekura, soka eztairik inguruan lotu, eta ene azken hitzak esan ditut:

- *“Oroitzapen erdoilduen ertz are erdoilduagoetatik ateratako konklusioa: agur”.*

Gorputza erortzen utzi dut, pisu guztia, fisikoa eta psikologikoa, deuseztatu egin dira ene begien aurrean, aspaldiko kezak, desirak, penak, desagertuak, baita irribarreak, bizitzeko gogoia... ezerezean murgiltzen noan bitartean, nire burua lausotzen den heinean, bizi izandako momentu zoragarri, ikaragarri gogor, zein sinpleak, arrapaladan ihesean ikusi ditut, nire burutik ihes, bertan behera utzitako etxe zahar bat harriz harri erortzen doanean bezala, eta argi ikusi dut egindako okerra, baina jada berandu da, ez dago atzera bueltarik. Burmuina nola deskonposatzen zaidan somatzen dut, banan banan, puzle bat egin ostean piezak banatzen direnean bezala, astiro astiro, eta bitartean Karmeleren ahotsa *“erdu, erdu nigez!”*, eta ama, *“lantzien lantzien barretxo bataz, ta negar anpuluakaz pebai”* esanez. Alabaren begiak bere amaren begietan islatuta, hilerriko loreak, aitaren gramófono zaharra, Karmeleren soineko urdina... dena buruan bueltaka, gero eta ihesgune gehiago dituen buru honetatik arrapaladan irten nahian.

Orain, nire emaztearen hilobiaren alboan beste hilarri bat dago, nire izena dakarrena, baina elkarrengandik hain hurbil egonagatik ere ez dut aspaldian Karmele ikusten, nire kaos mentalak ez baitit nire buruaz haratago ezer ikusten uzten. Gela txukundu beharrean buru barneko ideiak ordenatu banitu hobeto.

Kedarra dakar haizeak, esperantza su motelean deusezten den bitartean, haizeak, bere buruaz beste egitera daramatza irribarreak eta poza, negar malkoek sua itzaltzen duten bitartean.



**Mainer Urlezaga**  
**BATX 1. maila**

*“Idaztea hitz egitea eta isiltzea da, biak batera”*

## AUSARDIA OLATU BAT

Galerak itsasoan ito zenituen sei hilabetetan. Jaio aurretik lau gertaera ezarri zenituen, galerak erlazionatuz. Agian denbora gutxi zen ahazteko. Agian, bizitzari dagokionez, sei hilabete ez ziren nahikoa trenaren alde batean edo bestean jesarriko zinen erabakitzeko, edo goizeko ur hotzak bizia hozteko bakarrik balio zuela ikusteko. Agian, ez ziren nahikoa bizitza beste norbaiten zilborretik ikusteko. Agian, ez ziren nahikoa ur izoztuak goizero itzartuko zintuela ulertzeko. Agian, ez ziren nahikoa aldamenean gertatzen zena ikusteko. Agian, noizbaiten kontura zintezkeen hainbeste presio osasunerako ona ez zela konturatzeko, eta ur izoztuak harremana hozteko bakarrik balio zuela.

Agian, sei hilabete ez ziren nahikoa hiri batean bizitzeko, maitatzeko, “etxe” bihurtzeko. Baina sei hilabeteak bizitzaren lehenengo sei hilabeteak izan balira... *Sei* zenbaki ezin hobea bihurtuko zitzatekeen saskibaloiko jokaldi baterako; *sei* bederatziaren kontrakoa izango zitzatekeen eta konbinazio perfektua. *Sei* hirian bizitzea izango zatekeen, maitatzea eta “etxe” bihurtzea.

\*\*\*

### **Bat.**

- *Sei*: aparteko zerbaiten hasiera izan zinen. Artez eta adi ibiltzen ikasi zenuen, segundu bakoitza izoztu nahian, eguzkiak eskuetatik ihes egin ez zezan eta horrela gaua alden zedin. Inoiz ez zenuen gaua gustuko izan: horrek egun bat gutxiago zenuela esan nahi zuen, hilabete bat gutxiago, eta bost, lau, hiru, bi, bat... eguzkia ezkutatu zen eta ez zenuen begirik itxi nahi. Gauak urruntasuna zekarren, ihes egitea esan nahi zuen, bizitza ez ukitzea, ezta eguzkia, ezta itsasoa. Itsaspea. Gaua arnasteari uko egitea zen, beherantz ihes egitea, itsaspean, beldurturik. Gaua iluntasuna zen, goibela; eguneko beldur guztiak amets eta amesgaiztotan. Amesgaiztoa. Mina. Odola. Lurra. Kolpea. Zorabioa. Ahotsak. Ahotsak. Ahotsak. Isiltasuna.

*Itsaspea. Iluntasuna. Oiartzuna...eta gero? Bizia. Irribarrea. Zu! Seigarren oihua. Sei. Ez zinela bat edo bi, sei baino. Beti gustatu izan zitzaizun itsasoa. Eta betirako. Sei urte zenituenetik, ohikoaz gain, beste itsaso batzuk dastatu nahi izan zenituen eta olatuak etxe bihurtu, gaua izan arren, itotzeak beldur eman arren.*

Itsasoa betierekoa zen, eta betierekoak sei hilabetetako segundu bakoitzak gorde zitzaketen memoriak. Itsaso amaigabea, lausotua, lasaia. Batzuetan lagun, bestetan arerio, garrantzia gabeko gertakaria, edo gaua. Beldurrezko itsasoa, ezeztasunezko itsasoa, negarra, frustazioa. Gaitz bizia, irribarretsua, zerumugarik gabeko itsasoa. Itsaso urduria, haserrekorra, jeloskorra. Itsaso ederra, hiltzen zaituen itsasoa, eta beti bizirik dirauena. Hilezina den itsasoa. Gaitz eder huragatik malko bat erortzen ikusten zuen sei hilabeteko itsaso bat.

\*\*\*

## **Bi.**

Itsasoa bidaiatzeak eman zizun askatasunaz, sosik gabeko txiro batek amestu zuen bart. Jopu ez den, baina sentitzen denak, ez dauka hegan eramango duen lanik, baina bizi da, behar duelako, eta zu bizi zara, bidaiak anbizio bihurtu dituzulako.

Bizi zara, etxetik at egoteak arnasten irakatsi dizulako, oinez ikasiaz, hodeiak ukitu dituzulako. Bizi zara, izoztutako begiak urtu eta begiratu ez, baina ikusten ikasi duzulako.

Beste itsaso batzuk dastatuaz, etxera bueltatu zara hodeietatik, norbaiten bizilekua pertsona bera besterik ez dela ikusiz, beti etxean zaudela ikasiz.

Zorte hutsa burutazio bat bihurtu da gaurko pentsamenduetan: bidaiatzea zortea bada, ez duzu inoiz hil nahi, arnastea zer den ikasi ostean, hodeiak ukitzen ikasi ostean. Kaliforniako haretzatik goiz batean idatzitakoa heldu zaizu. Oroimenez bete zaizkizu begiak, gazituak diren malko amerikarrez. Idazkera berezi baten saiakera bihurtu zenezaken, baina saiakuntza ezean, bizitzeko modu bat bihurtu zenuen. Idaztea bera ez zen behar bat: baina... Nola ahaztu etxean idatzitakoa? Kalifornia ere etxea bada, nola ez duzu ba amestuko, goizero berriz etxean zarela? Irakurtzea ere ez zen behar bat, baina eskutitza zabaltzeari izen bat jarri zenion: Ausardia.

Eta zera zioen ausardiak...

“Etxetik inoiz aldendu ez bada ere,  
etxera eraman nahi izan zaitu beti.  
bustia eta auresangaitza,  
beti desberdina  
baina inoiz ezezaguna,  
umorez begiratzen zaituena,  
beldurren sortzaile eta salbatzailea,  
etxera itzultzen zaituena:  
Itsasoa.

Hutsegite txikiena eta  
begirada baztertzearekin batera  
edozein modutara  
mintzen zaituena,  
mintzeagatik pozik,  
barrez,  
algaraz begiratzen zaituena.

Bestera ere mintzeari utziz  
laguntzen dakiena,  
azalean sentituaz batera  
lasai zaitzakena,  
azalean sentituaz batera,  
etxera itzultzen zaituena;  
beldurren sortzaile eta salbatzailea,  
etxera itzultzen zaituena:  
Itsasoa.”

Irribarre malkoa  
erori zitzaizun  
harezko argazkira.  
Kalifornian, poztasunez,  
etxea bihotzean eraiki zenuenean,  
urpean sumatuz  
ausardia olatu bat.

\*\*\*

### **Hiru.**

Bidaiatzea askea zen... baina nola? Ironia eta kontraesanez biziz, diruak egin zintuen aske. Nola zen posible, baina, bortxaz lotzen zintuenak, askatasuna dohainik ematea?

Dirua hainbeste maite duen horrek ezin uler dezake diruak ezin duela maitasuna ekarri, ezin duela askatasuna bihurtu mirari.

Ez zela dirua... Ez zela aberastasun materiala... Ez zela titulua... Ez zela itxura... Zu zinela. Zu, zure osotasunean. Eta ametsak. Ametsak beti ziren, eta zu amets bihurtzeak askatasuna hesitik at utzi zuen.

Askatasuna zen. Askatasuna: txoriaren hegaldia, ezeren menpean, ezik eguraldia. Hark ere Kalifornia bisitatuko zuen, eta “etxe” deituko zuen. Hark ere bizia maitatuko zuen, baina aberastasun materialik ez.

Bidaiatzea askatasun bizia zen, zeu ere bizia zinen, eta Kalifornia zure parte bihurtu zen.

Segundu bakoitza  
gorde zenuen memorian,  
eta zera zioen memoriak...

Irribarre malkoa  
erori zitzaizun  
harezko argazkira.  
Kalifornian, poztasunez,  
etxea bihotzean eraiki zenuenean,  
urpean sumatuz  
ausardia olatu bat.

\*\*\*

**Lau.**

Segundu bakoitza  
gorde zenuen memorian.  
eta zera zioen memoriak...

Nola zen posible, haretza zuriago batek, baina azken batean, haretza zenak,  
poztasun berezienera hurbil izana?

Nola zen posible, inolako indarrik gabe, idaztera bultzatu izana?

Nola zen posible, bizitzaren balioa olatu artean ikasi izana?

Nola zen posible, posible zena, etxean politago ikustea?

Nola zen posible begi lausotuek hilabetea, segunduan, oroitzapen bihurtzen  
ikustea?

Nola zen posible, zuk lortutakoa, hainbestek amestutakoa, besteen eskuetan ez  
egotea?

Nola zen posible, saiatuta ere, guztion ametsak egia bihurtu ez izana? Diruak  
erantzun zuen...

Eta zuk, horregatik, etxera bueltatzea zaila izanagatik ere,

segundu bakoitza  
gorde zenuen memorian.  
Eta zera zioen memoriak  
betiko isildu aurretik...

Iribarre malkoa  
erori zitzaizun  
harezko argazkira.  
Kalifornian, poztasunez,  
etxea bihotzean eraiki zenuenean,  
urpean sumatuz  
ausardia olatu bat;  
itsaspean galdu ziren guztien oiartzuna,  
maitatuak izan ziren olatu guztien islada.



**Xabier Bengoa**  
**BATX. 1. Maila**

*"Ikasketek sortzen duten estresarentzako irtenbide bakarra  
musikarekin armonian jartzea da niretzat"*

## **ZERU ETA INFERNUKO ERAZTUNAK**

Sekulako burukominarekin jaiki zen Mikel. Goragale itzela eta desorientazio nabarmena sentitzen zuen. Haize umelduak, oin biluziak izozten zizkion, eta telazko manta goxo batek bakarrik babesten zuen gaztearen gorputza. Halako batean, Mikelek, itzelezko jauzia eman zuen, eta eskumako eskura begiratu zuen. Bertan segitzen zuen urre koloreko eraztun misterioitsuak, bere eskura josita. Begiratzean, berriz sentitu zuen indar boteretsu hori, eta bere gorputzaz jabetu zen, Mikel gizajoa lurrera botaz.

Aste bat lehenago hasi zen dena, klaseko azken egunarekin. Mikel, 15 urteko gazte zintzoa, klasera zihoan, beti bezala, bere lagun Aritzekin. Biek, batak bestea besterik ez zuten, ez zirelako hain ezagunak ikaskideen artean. Eguneroko bromak, adarjotzeak, burlak eta ukabilkadak, bi lagunaren eskolara joateko gogoak apurtzen zituzten, lorontzi hauskorrek izango balira bezala.

Kontuak kontatzen ibiliz, heldu ziren bi lagunak beraien etxetik hiru kaletara aurkitzen zen eraikin nazkagarri hartara, beste egun bat zelan zapuzten zen ikusteko prest. Eskolako ate printzipalak irekitzerakoan, haize bero eta susmagarri batek, Mikelen aurpegia jo zuen, gaztearen oreka galduz. Begiak ireki zituenean, nonbaitera eramaten zuen hodei itsurako gas berde bat ikusi zuen. Mikeli, bidea erakutsi nahi izango bazion bezala. Baina hiru segundora, gas berdea desagertu egin zen.

- *Ondo ahal zaude?* – galdetu zion Aritzek, eskua bere sorbaldan jarriz.

Besteak, harrituta, baiezkoa eman zion eta klaserantz abiatu ziren.



Gertatutakoa burutik atera ezinik, Mikelek ahaleginak egin zituen berriz gas berde hura ikusteko, baina alferrik izan zen. Hurrengo egunetan, nahiz eta klaserik ez izan, Mikel eskola aurrera hurbiltzen zen, eta inork ikusi gabe, atea irekitzen zuen Aritzen laguntzarekin, nahiz eta honek ulertu ez gertatzen zena. Saiakera hutsak izan ziren lehen egunetakoak, baina halako batean, gas berdea berriz agertu zitzairen. Baina oraingoan kontzentratuagoa zen, hain kontzentratua, Aritzek ere ikusi zuela.

Bi gazteek, liluratuta, hodeiari segitzea erabaki zuten. Pasilloak pasatzen joanaz, liburutegi zaharrera iritsi ziren. Bertan, hodeia, apal batean bukatzen zen. Mikelek eta Aritzek, apal horretako liburu guztiak arakatu zituzten baina ezer ez. Orduak pasatzen zihoazen, eta ez zekiten zer egin. Baina halako batean, liburutegi zaharreko leiho bakarretik, argi izpi bat sartu zen, apaleko hutsune bat argizatuz. Bi lagunak hutsunera begira geratu ziren. Distira nabari zen apal horretan eta Aritz bertara hurbildu zen zer zen ikustera. Eskua murgildu zuenean, apalaren atze aldetik liburu zahar eta kiskaldu bat erori zen eta Mikelek hartu eta ireki egin zuen.

- *Zer duzu hor Mikel?*- galdetu zion Aritzek.

- *Ez duzu sinetsiko zer dudan eskuetan. Etorri ikustera!*

Mikelek eskuetan zuenak, Aritzi begiak zabal-zabalik utzi zizkion. Liburu bat zen bai, baina ez zuen orririk. Kutxa bat zen, liburu formarekin, eta barruan, bi urrezko eraztun zituen, bat diamante itxurako harri bitxiarekin eta bestea esmeralda batekin. Bakoitzak bana hartu zuen.

- *Zer uste duzu gertatuko dela jartzen ditugunean Aritz?*- Galdetu zuen Mikelek kezkatuta.

- *Ezer ez lerroa. Gertatu ahal zaigun desgraziarik handiena, gure poltsikoak diruz betetzea da Mikel. Ja, ja, ja.*- Erantzun zion Aritzek pozez betea.

Bi lagunak batera jarri zituzten eraztunak. Biek zuten sentrazio bera jartzerakoan, eta halako batean, puf!. Dena ilun jarri zen Mikelentzat.

Ordu batzuk beranduago, sekulako burukominaz jaiki zen Mikel. Goragale itzela eta desorientazio nabarmena sentitzen zuen. Haize umelduak, oin biluziak izozten zizkion, eta telazko manta goxo batek bakarrik babesten zuen gaztearen gorputza. Halako batean, Mikelek, itzelezko jauzia eman zuen, eta eskumako eskura begiratu zuen. Bertan segitzen zuen urre koloreko eraztun misteriotsuak, bere eskura josita. Begiratzean, berriz sentitu zuen indar boteretsu hori, eta bere gorputzaz jabetu zen, Mikel gizajoa lurrera botaz.

Hurrengo orduetan, ahotsak besterik ez zituen entzun. Neskato bat zen, gizon zahar batekin hizketan. Baten baino gehiagotan aipatu zuten eraztun hitza, *Mikatos* izenarekin batera.

Halako batean, poliki-poliki begiak zabaltzen ahalegindu zen. Lortu zuenean, neska eder baten silueta ikusi zuen. Itsasoaren koloreko begiak, eta ezpain lodi eta gorri-gorriak zituen. Azala elurra baino zuriagoa zuen eta hosto desberdinez egindako jantzi ederra zeraman soinean. Sudur txiki bat aurkitzen zen neskaren aurpegi erdian, eta belarriak... belarriak puntan bukatzen zitzaizkion? Bai, belarri zorrotzak zituen neskak. Hogeitatu urte edukiko zituela uste zuen Mikelek. Baina ez zion horri garrantzi handirik eman.

- *Mendeak egon gara zuri itxaroten Paladin gaztea.*- Esan zion neskak.

- *Nire hizkuntzan hitz egiten duzu!* – Harritu zen Mikel.

- *Bai. Elfook hizkuntza guztiak ezagutzen ditugu.* – Elfo bat zen neska hura. Nola bestela edukiko zituen belarri zorrotzak? Liburuetakoz izaki hilezkorra zen, Mikelek hainbestetan irakurri zituen liburuetakoz izaki ederrak.

- *Zer da Paladina?* – Galdetu zuen Mikelek.

- *Atzamarrean duzun Mikatos eraztunaren eramaileak dira Paladinak* – Erantzun zion Elfoak eztizko ahotsaz gaztearen eskuak laztanduz. – *Gure lurrak, iluntasunean murgilduta daude, eta harri gorriko hiru atsoek, profezia bat ahoskatu zuten, eta zu agertuko zinela aipatzen zuten profezia horretan.*

- *Eta non dago Aritz!* – Galdetu zuen arduratuta.

- *Nor da Aritz?* – Galdetu zion harrituta.

- *Beste eraztuna zeraman soinean* – Mikelen arazoak areagotzen zihoazen eta ez zekien zer egin.

- *Ez dakit zer gertatu zaion zure lagunari, baina beste eraztuna badu, elkartuko zarete. Horrela funtzionatzen dute eraztunak.*

Mikelek etxera bueltatzea besterik ez zuen buruan. Beldurtuta baitzegoen. Mikel, *Basoko Elfoen erreinuan* aurkitzen zen. Ohetik altxatzerakoan, handiago eta indartsuago sentitzen zen, eta halaxe zen, hogeituroko gorputz baten barruan aurkitzen baitzen. Mikelek, mila galdera egin zizkion neskari. Elfoak, *Namira* zuen izena, eta Basoetako Elfoen printzesa zen. Gerran, hainbat titulu irabaziak zituen Namirak, eta arkuaz paregabea zen. Mikelen profeziari buruz ere hitz egin zuten. *Genesis*, Orkoen erregea zen eta dragoiaren bihotzarekin egin zen (mundu horretako armarik ilun eta boteretsuena), eta munduaren jabe izan nahi zuen (maltzur guztiek pelikula guztietan izan nahi dutena, besterik ez). Gauza horiek guztiak entzun eta gero, Namirak, bere ondoan joango zela esan zion Mikeli, eta horrek asko lasaitu zuen. Etxera zelan itzuli ere esan zion neskak, eta ez zen beste munduko ezer, atzamarretik eraztuna kendu behar zuen, besterik ez. Baina horretarako, *Genesis* hil behar zuen.

Mikeli, beldur guztiak kendu zitzaizkion magikoki. Bazekien eraztunak sentiarazten ziola hori, baina eskertzen zuen gazteak. Bost zaldi hartu, eta Mikel, *Namira*, *Abendor* (magoa), *Líndal* (armairu baten tamainako Elfo bat) eta *Ecthelion* (*Basoko Elfoen erreinuaren oinordekoa*, eta *Namiraren neba zaharra*), bidaiari ekin zioten.

Bidaia latsa zen hura. *Genesisen* tropak, erreinu guztitik zabaldua zeuden. Mikelen burutik, hainbat gauza pasatzen ziren ibilbidean aurrera zihoazen bitartean. *Aritz* aurkitu behar zuen nola edo hala, eta ez zekien zelan hilko zuen *Genesis*, ez baitzuen inoiz ezpatarik ukitu, eta bere ondoan zuenak asko pisatzen zuen. Ez zekien nola altxatuko zuen. Baina *Namira* ondoan zuenean edo berarekin hitz egiten zuenean, arazo guztiak desagertzen zitzaizkion. Hala ere, *Ecthelion* zegoen dena zapuzteko. Bere arrea txikia edonorengandik babestu nahi baitzuen.

Egunak pasatu ondoren, iritsi ziren Orkoen erreinura eta bertatik ikusi ahal zen *Genesisen* gaztelu zaharkitua. Barrura sartzeko plan bikaina zuten. *Abendorrek*, bere

bastoi magikoarekin, suzko bola ikaragarri bat jaurti zuen airera, dorrearen harresian aurkitzen ziren Orko arkulari guztiak kiskaliz, zarata txikienik egin gabe, noski. Bitartean, beste lau gerlariak ate nagusitik sartu ziren arazorik gabe. Aurretik, Ecthelion zihoan, bere bi ezpata laburrekin, aurrean jartzen zitzaizkion guztiak akabatuz. Bere atzetik, Namira zihoan bere arkuaz, teilatuetako Orkoak hiltzen. Hurrengo, Mikel zihoan bere ezpatarekin, baina ez zekien ondo zer egin. Noizbehinka, ezpata astintzen zuen, inguruko etsaien batekin akabatzeko. Oraingoan, eraztunak ez zion ezertan laguntzen, eta kezkatzen hasia zegoen gaztea. Azkenik magoa eta Líndal zihoazen, atzetik segika zeukatenak hiltzeko. Dena ondo bukatuko zela zirudien, baina bat-batean, trumoi zarata entzun zen. Dena isilik geratu zen. Denak leku berdinerantz begira geratu ziren.

Hiru segundo beranduago, gazteluko atetik Genesis sartu zen. Labazko armadura zeukan. Kaskoa kendu eta Mikel begiratu zuen. Ezagun egiten zitzaion zikatrizez betetako aurpegi hura. Eskumako eskura begiratu eta orduan konturatu zen.

- *Aritz!* – esan zuen Mikelek harrিতuta.

- *Zenbat denbora ikusi gabe Mikel!* – erantzun zion Aritzek barre maltzurraz ahoan.- *Berandu zatoz, lagun! Ez dakizu zer gertatzen ari den ezta? Beti izan zara zu bietatik argiena, eta orain zer?*

- *Zer ari da gertatzen?* – Galdetu zuen minduta.

- *Orain dela urte batzuk hasi zen dena, eraztunak jarri genituenean. Ni hemen agertu nintzen. Ez nekien non nengoen eta beldurtuta nengoen. Baina eraztunak hitz egiten zidan. Orkoak nire aurrean belaunikatzea lortu nuen eta gauza batek bestera eraman ninduen. Banekien zerbait profeziaz, eta horregatik, zu betiko lo uztea erabaki nuen. Baina ikusten da ez duela askotarako balio izan.*

Mikelen lagun guztiak Aritzen kontra borrokatzen hasi ziren, baina ezinezkoa zen. Bitartean, Mikel harri bilakatuta egongo balitz bezala zegoen. Bat-batean, Mikelen gorputza berotzen hasi zen. Indar energia handia nabari zuen. Bere ezpata hartu, eta halako batean, arma, ezpata handi eta distiratsu batean eraldatu zen. Aritzen kontra joan zen. Bi aurkariak besterik ez zeuden borrokan. Ezpata kolpe bakoitzeko, uhin indartsu batek gaztelua astintzen zuen. Halako batean, Aritzek, bihotz baten formako harri bat atera zuen, eta bere ezpatan jarri zuen. Mikelek ezin zuen ezer egin horren kontra.

Aritz eskumarantz korrika hasi zen. Namiraren atzean agertu zen deabruaren eraztuna zuen mutila, eta ezpata atzetik sartu zion. Barre algaraka hasi zen Aritz. Mikel berriz, neskarengana hurbildu zen. Namirak begietara begiratu zion.

- *Kontuz zure atzean!* – oihukatu zuen neskak, eta Mikelek buelta erdi eman eta ezpata bihotzean sartu zion Aritzi.

Malko batek, Mikelen aurpegi zikindua zeharkatzen zuen. Begiak ez zarratzeko eskatzen zion neskari. Hurbiltzeko eskatu zion Namirak, eta halaxe egin zuen gazteak. Bien ezpainak elkartzeko ziren. Baina halako batean, Aritzek Mikeli eskutik hartu eta eraztuna kendu zion, zetorren lekura bidaliz.



**Ainhoa Zugadi Bengoa**  
**DBHO 2. maila**

*“Mezu hilak idazteko, eskuak;  
elkarrekin sentitzeko, eskuak.”*

## **AITAK DIO INDARRA GALDU DUZULA**

Aitak dio indarra galdu duzula,  
Ez zarela betikoa.  
Eta ez dakit ze puntutaraino den hori txarra,  
Agian zure gaztaro inkonformista horren amaiera soila baita,  
Edo beti kontrari egiteaz nazkatu zaren seinale.

Auskalo zein den kontua baina,  
Korrontea jarraitzearekin konformatzen diren helduen klubean sartu zara.  
Orain karga polizialen beste aldean jartzeko ohitura hartu duzu,  
Ikusleen artean ezkututzen den horietako bat bihurturik.  
Behin zure sugarraz erre zenuen kontainerraren errauts multzoa  
desagerrarazten ari den garbitzailearen papera hartu duzu.

Lasai, ez pentsa errua botatzen ari naizenik.  
Zure lurren gainean euri asko egin du eta,  
Hotza baino gehiago, malkoak erori izan dira.  
Zerutik erori zaizkizu minak, damuak, lotsak  
Zerutik bizitza eta ametsak.

Hitz aseezinekin entzuten duzu gorrotoa, amorrua.  
Baina urteetako protesten zarata hutsalak gortu zaitu,  
Topaleku izan diren desadostasunak ito zaituen modu berean.  
Momentuaren berotasunak ere itsutu zintuen garai batean, gogoratzen?  
Orain hotza besterik ez da gelditzen, errua.

Gogorra izan zara, gogorra denaren gainetik.  
Guk inoiz eutsi ezin izan dugun negargura batu eta  
Zure txokoetako bakoitzean gorde duzu, sekretupean.  
Baina inork ez dizu sekula eskertu, eta aski izan duzu.  
Nazkatu zara gure mina zure ibar hotzetan isilarazteaz.

Behin baino gehiagotan guri deika ibili zara,  
Zure itsaso iluna haserre, gogor jotzen eta astintzen ikusi dugu askotan.  
Orain badakigu zein zen zure zio bakarra:  
Gure oinen, bihotzen, ukabilen abiadura geldiaraztea,  
Noizbait gure papera txarto jokatu dugunaren seinale dela gogoz sinisten dut.

Askatasuna zure eskuetan izan duzula diote askok.  
Usaindu, jolastu eta larrutan egin duzula berarekin,  
Baina hemen ez da horren arrastorik, ez da inon sumatzen.  
Agian ez da hori nahi duzun askatasuna,  
Agian ez duzu askatasunik nahi.

Gaur egun aske izateak ondorio gogorak dakartzalako,  
Edo ordaindu beharreko prezioa garestiegia delako, batek jakin.  
Akaso zentzatusunaren iratzargailuak esnatu zizun bart eta  
Gainerakoen zapalkuntzan oinarritzen ez den askatasuna ezagutu duzu.  
Denon lurra izatetik inorena izatera pasatu zara.  
Lur bedeinkatua askorentzat, lur madarikatua besteentzat.  
Oin leunez zapaldu zintuzten askok, oin ustelez besteek.  
Ezizenez bete zintuzten eta ez-izanaz aldarrikatu,  
Beraien burua Jainko sortzailertzat zutenen jolas gisa.

Denon ahoetatik pasatu den txiklea bezala,  
Ezjakinen ahotan gogortu eta zure zaporea galdu duzu.  
Denon eskuetan ibili, jolastu, bortxatu zaituzte,  
Zarena azken ezaugarriraino zikindu duten arte.

Zure hasierak eta amaierak aukeratu dituzte  
Inposatutako eta asmatutako mugak ezarriz gainean, guztiz eraldatuz,  
Aho-betez etorkizun hobe batengatik borrokatzen dutela diotenek.  
Guk ordea ez dakigu zein den etorkizun hori,  
Abiadura handian omen doan tren baten eskutik datorrela diote,  
Edota zure kostalde eta mendiguneak urratuz gasa lortzeko teknika batetik.

Guri ere zure lurraren parte egin nahi gintuzten,  
Kanpotik etorritakoen oin zimelduak gure buruan izan arte,  
Lurperatuak izan ginen arte.  
Baina ernaldu ginen, hazi eta sustraitu,  
Erro beltzak bezala, inoiz baino gogorrago.

Bitartean, aspaldi galdu zen trenaren bila jarraitzen dute batzuk.  
Irteerarik ez duen betiko bidean aurrera eta atzera doazenak,  
Gauero zure herrietako hormetan hitz debekaturen bat tintaz idazten dutenak,  
Barroteen beste aldean norbait gelditzen den arte  
'Erresistentzia' letraz letra bihotzean tatuatuta izango duten berberak.

Beharbada aitak arrazoa du:  
Zu aldatu zaren modu berdinean  
Gu ere baretu eta lasaitu gara.  
Sistemara mugatzeko joera hartu dugu,  
Agian gehiegi lokartu gara  
Ezjakintasunari zor diogun errealitatearekiko konformismoagatik.

Baina orain eskuak batuz giza-kateak osatzen ditugu,  
Gorputzak lotuz laranja kolorezko herri-harresiak  
Eta aterkiekin gure burua ez ezik,  
Ingurukoena ere babesten ikasi dugu.  
Norengandik babesten garen? Ez dakigu, ordea.  
Aspaldi galdu genuen etsaia identifikatzeko gaitasuna.



**Angela Borchers**  
**BATX. 2. maila**

*"Ulertuko al ditugu noizbait  
mundu kuantikoaren gertaerak?"*

## **DENBORAREN ORRATZAK**

Isiltasuna. Edonork desira dezakeen isiltasuna. Eta ia belarrientzat kaltegarria den soinu falta honek, urduritasunetik baretu nau. Bada, ibilaldi espazialari hasiera eman diot. Nazioarteko Espazio Estaziotik atera eta jauzi txiki bat emanez, txikitatik amestu dudan espazio-denbora jarraitu, zabal eta erraldoi honetan nago. Oro har, nire gorputza, arbuigarria den grabitatea jasaten saiatzen ari da oraindik, jaurtiketatik zazpi aste pasa diren arren.

Nikolas ere hor dago, estazioaren kanpoaldeko antenen mantentze lana egiten. Beti bezala, musika klasikoa entzuten ari da bitartean, estaziora heltzen diren alemaniar irrati-uhin batzuk aprobetxatuz. Ia egunero bezala, astronautok daramagun jantzi espazialeko sistema elektronikoa jakeatu eta irratia martxan jartzen digu Nikolasek, musikaz goza dezagun. Oraingoan, Scriabin musikagile errusiarraren obraren bat dela esango nuke nik, fantasiaren bat.

Horrela ba, apurka-apurka, atzealdean dudan hainbeste masatzen duen motxila erraldoiari esker, aurrerantza noa, estazioaren inguruan birak ematen. Kolpeka mugitzen banaiz ere, miragarria da ingurugiroak transmititzen duen lasaitasun sentimendua.

Musikarekin bat begiak itxi ditut, arnasa baretuz, oxigeno kantitatea mantendu nahian. Pianoaren melodia antzeman dut, dudarik gabe, Scriabinen op.28. fantasia da. Begiak ireki eta Lur planetarantz begiratu dut. Ikaragarria da bista, izugarria. Eguna eta gaua bereizten duen marra fin hori ere ikus daiteke, planetako herrialde desberdinak poliki-poliki zeharkatzen. Globo txiki eta urdin honi begira pasatuko nituzke orduak, asteak, urteak ere, hain gogorra den grabitate falta ahaztuz. Hara! Hor dago Japonia!, pentsatu dut. Une batez, gaztaroan izandako musika-irakasle japoniar bat gogoratu dut, agian, gora begira, bere ikasleren batetaz oroitzuz.

Estazioaren abiadura eta altuera ikaragarriaz ohartu naiz, eta nire gorputzak hotzikara bat sortu du hau imajinatu. Bat-batean, jauzi librean ikusi dut neure burua, pixkanaka-pixkanaka, abiadura handiagoz jausten, Nazioarteko Espazio Estaziotik urrunduz, ezinezkoa izango balitz berriz horra bueltatzea, hurbilago egiten ari zaidan laguneren eta familiaren presentzia, ozono geruza zeharkatuz...

Argitasun biziak ikustea galarazten dit. Etzanda nago, estazioetan dauden lo egiteko ohe berezietako batean. Baina, ez dut eskumaldean dudan leiho txikitik Lur planeta bereizten. Eguzkia ere urrunago nabaritzen dut, ze arraro...

Nire garunak bost zentzumenek bildutako informazioa prozesatu eta... Europako Espazio Agentziak (ESA-k) bidalitako Curie estazioan nagoela ondorioztatu du. Bai. Milaka eta milaka argi-urte bidaiatu ditu nire adimenak, berriz ere Curie estaziora bueltatzeko. Burua altxatu bezain laster, lan-bidaiaren helburua zein den gogoratu dut.

Izan ere, proiektu honen xedea, izaki bizidunak normaltasunez bizitzeko beste planeta bat aztertzea zen, Kepler 186-f, hain zuzen. Aztertu ostean, informazio guztia Curie estazioaren bidez eramango zen ESA-ra, Lur planetara bueltatuz.

Baldintza hori betetzeko, ezinbestekoa zen ur likidoa eta temperatura egokia duen planeta izatea: ez oso baxua, planeta ez izozteko, baina ez oso altua, ez ebaporatzeko. Denok dakigunez, unibertsoan milioika galaxia daude, bakoitza milioika sistemekin, eta era berean, milioika planetekin, gu bizi garen Esne Bidea galaxia, eguzki sistema eta Lur planeta bezala. Beraz, funtsezko baldintzak betetzen dituen hainbat planeta egon behar dira, eta horien artean, Kepler 186-f. Arazo bakarra, oso urrun dagoela da, Lurretik 492,3 argi-urtetara.

Ohetik altxatu, bitaminak hartu eta momentu batez, etxean bezala sentitu naiz, nire hankek grabitatea sentitzen dutelarik. Oso antzekoak dira tamainaz Kepler eta Lur planetak, eta ondorioz, antzeko grabitatea dute.

Bitxia da grabitatea. Batzuetan, bidaian zehar adibidez, bere falta duzu. Orain, aldiz, engainatu egiten zaitu, adimenak Lur planetan egongo bazina bezala imajinatu. Askok galdetzen didate zer nolakoa den grabitate ia hutsean bizitzea, eta nik, hitzekin deskriba ezin daitekeen gauza bat dela erantzuten diet beti. Europako Agentzia Espazialean izan genituen hutsara moldatzeko lehen entrenamenduak, eta egia esan, hasieran oso gogorra zen. Hala ere, denborarekin, gauza guztiak bezala, ez zaizu hain gogorra iruditzen, moldatu egiten baitzara.

Nire modulutik, modulu orokorrera aurreratu eta Nikolasekin topo egin dut.

- *Egun on Nikolas!* –agurto dut nik.

- *Arratsalde on izango da Sara! Bostak eta hamar dira eta gu amaitzear gaude.* – erantzun dit berak.

- *Bostak eta hamar? Baina orduan, zenbat ordu egin ditut lo? Hamabiak hoge gutxi... Hamazazpi ordu t'erdi!* -harriturik.

- *Bai zera! Gogoratu ez zaudela Lur planetan, hemengo egunak 19 ordu ditu! Bi urte daramatzagu jada Keplerren, eta oraindik periodoa jakin barik... Nola aukeratu zintuzten proiekturako?* –erdi barreka.



- *Ez zara hori esateko aproposena, eh Nikolas?*

- *Beno, beno, hobe duzu lanean hastea, Alexander orain helduko baita esperimenduekin amaitzeko.*

Horrela, ba, jantzi espaziala eta laborategi artifizialetik zenbait material zientifiko batu ostean, estaziotik atera naiz. Berehala Alexander ikusi dut, beregana joateko seinuak egiten.

Bidean nagoela, Keplerren tenperaturaz oroitu naiz. Bai, hotz samar egiten du hemen, batz besteko tenperatura  $-46^{\circ}\text{C}$ -ekoa delarik. Hala ere, ez da bizitzaren garapenerako eragozpen bat. Proiektuko bost zientzialariok ondorioztatu dugun moduan, tenperatura berri honetan, beste forma eta espezieetako bizi forma berriak daude, guretzat imajinaezinak diren ekosistemetan.

Heltzear nagoelarik, Arthur eta Brian ikusi ditut Alexanderri esperimenduekin laguntzen.

- *Sentitzen dut berandu etortzea. Espero dut dena dagokion moduan martxan jarraitzea. Nahi baduzue lanean geratuko naiz bukaera arte.*

- *Lasai Sara, Keplerren azkenengo datuen bilketarako ez da ezer geratzen! Gaur egun garrantzitsua izango da!* –erantzun dit Brianek pozez.

- *Bai, proiektuaren helburua lortzear dago!* –Alexanderrek.

- *Beno, etxerako bidaia gelditzen da oraindik.* –Eta hitz hauek esandakoan, orain arte izandako alaitasun aurpegiak, berriz ere, larritasun eta urduritasunez beteriko aurpegiak bihurtu dira. –*Ez kezkatu, zailena lortu dugu-eta. Orain, amai dezagun dagokiguna.*

Horrela, lau pabost ordu geroago, ez poz, ez larri, ur likido eta aireko funtsezko elementuen portzentajea lortu dugu. Azkenean, emaitzen aurkipenarekin, irribarre batzuk nabari izan ditut Brian eta Arthuren aurpegietan gutxienez.

Egindako lana ospatzeko, afari berezi bat prestatu dugu, ia Gabonetako afaria izango balitz bezala. Gure kasuan aldiz, pernila eta turroia bezalako jakien ordeztu, astronautok dugun pilula eta likido energetikoen bitartez, gozatu dugu gaua. Ia familiakoak diren nire kideak alai ikusteak poztu nau. Dena belztu da, tamalez, benetako lagun eta familiaz pentsatzean.

Txarrena heltzear zegoen, emozionalki txarrena.

Itzulera.

3, 2, 1, 0... Izugarritzko zarata atera dute estazio espazialaren motorrek, argiaren abiadura lortu nahian. Berriz ere grabitate hutsa. Begiak zarratu eta Newtoni oititz egin diot, bera eta bere dinamikaren hirugarren lege horri: *Indar guztiak binaka agertzen dira, eta bi indar hauek magnitude berdinekoak dira, baina aurkako noranzkoa dute.* Argi dago beraz, lehen indarra motorrak, eta bigarrena, estazioa lurretik gero eta urrunago egoteak ahalbidetzen duen indarra direla. Indar haiei esker, noizbait lur planetara helduko naizela pentsatu nahi dut. Bai, halaxe izango da.

Liluraturik geratu naiz alboan dudan leiho txiki batetik begiratzean. Unibertsoaren edertasunaz oroitu naiz; galaxiak urrunean, izar txiki eta handiak, nebulak... benetan zoragarria! Argazki kameraren bat eskura izateko gogoia izan dut, bista hauek betirako grabatuta izateko.

Baina, berriz ere, etxeko lagunak gogoratzean, hainbeste eta hainbeste galdera etorri zaizkit burura. Gudan sinetsiko al dute oraindik? Hilda imajinatzen gaituzte? Nagusiago egongo al dira? Zorionsu ala triste? Horrela jarraituko nuke etxerako bidaia osoa, baina egia esan, zoro bihurtuko nintzateke.

Orain gutxi izandako ibilaldi espazial bati buruzko amets batetaz oroitu naiz, eta oraintxe konturatu naiz zein erreza izango litzatekeela Nazioarteko Espazio Estazioan bizitzea, Lur planetatik hurbil, hiru hilabete espazioan, soilik 415 kilometrotara.

Berriz ere leihotik begiratu dut, baina oraingoan, errealitateaz urrundu da nire adimena, eta pertsona baten aurpegia etorri zait burura: Albert Einstein. 1921. urtean Fisikako Nobel Saria jaso zuen historiako zientzialari handienetariko bat izan zen alemaniar hura. Bera eta bere erlatibitatearen teoria orokorra gogoratu ditut.

Teoria honen arabera, zenbat eta abiadura handiagoa izan, denbora luzatu, baina espazioa berriz, uzkurto egiten da. Argiaren abiadurara iritsiz, erloju baten orratzak astiroago mugituko lirateke lurreko erloju batekin konparatuz gero. Erlojua bezala, bihotzaren taupadak ere. Beraz, abiadura horretan bidaiatzen duten guztiek erlatibitatearen efektuak jasaten dute, gu bezala.

- Sara, ondo al zaude?

- Emozio gehiegi gorputzean, Brian. Erlatibitatearen existentzia planteatzen nengibilen. Zer uste duzu zuk? Atzo bezala gogoratzen dut teoria hau lehenengoz ikasi nuen eguna. Benetan izugarria iruditzen zitzaidan. Baina orain... existitzen ez dela sinetsi nahi dut. Denbora ilusio bat besterik dela imajinatu nahi dut, proiektuko 7 urte hauek ezabatu eta Lur planeta utzi genuen urte berdinean berriz ere bueltatuko garela pentsatu. Denboraren orratzek beldurra ematen didate.

- Bada beste planteamendu bat... –irribarre bat irudikatu zaio Briani aurpegian –pentsa ezazu, laster, bidaia hauen kostua apur bat merketzen denean, Botox enpresek biziko duten hondamendia!

Bai Alexander, bai Arthur eta bai Nikolas, astronautek hainbeste maite dituzten txisteak kontatzen hasi dira. “Nor da? Neutrino bat. Tok, tok, tok!” entzun diot Nikolasi.

Nik osteria, faltan ditut Ainhoa, John, Malen... amets bitxi hartan gogoratu nuen musika irakasle japoniar hura ere... Kaskoak belarrietan ipini eta Frédéric Chopin-en op.61. Polonesa-Fantasiari hasiera eman diot. Begiak itxi eta laster ikusiko nituen aurpegiak imajinatu ditut, berriz ere Lur planetan.

Etzanda nago. Soinu txiki bat entzun dezaket, ingurukoa guztiz zuri ikusten dudana bitartean. Begiak zertxobait gehiago zabaltzen saiatu naizen arren, Lur planetako grabitate antzemangarriak errealitatea ulertzen lagundu dit. Hala ere, momentu batez, espazioan nagoela sinetsi dut.

- *Zer da denbora, Sara? Nola kontrolatu dezaket?* –entzun diot Johni, kezkatu-rik. Begiak zabaldu ditut, eta planeta utzi nuen egunean, Johnen begietan ikus nitzakeen izarrak, oraindik ere ikus ditzakedala konturatu naiz, 17 urte pasa badira ere.

- *Badakizu, John –irribarre batez- 7 urtez unibertsoan zehar bidaiatuz gero, adin berberarekin gosalduko genuke zure bueltan.*

**“Gogoratzea, denbora geldiarazteko bide bakarra da” –Jaroslav Seifert**



**Leire Pereira Uriguen**  
**DBH= 2. maila**

*“Gehienetan, gehiegi kezkatzen gara inguruko txorien esanez eta ahantzi egiten dugu norbanakoaren zoriontasuna dela garrantzizkoena”.*

## **NAHIKOA BEGIRADA BAT, NAHIKOA IRRIBARRE BAT.**

Ez deritzot ongi egunero berari jarraitzeari. Memento oro eta ordu oro. Asmo txarririk dudan susma lezake dagoeneko.

Emakume lodikotea da Kontxita. Dotorre askoa. Hirurogeita hamabost urte ingurukoa. Maite du bere burua apaintzea. Lurrin gozo bezain sakon batez inpregnatzen ditu Donostiako karrikak. Sumatzen da non ibili den paseoan, non erosketetan, zein eserlekutan eseri den kafea hartzean. Parisko perfume pote txikia beti darama aldean eta noiznahi freskatzen ditu belarri atzealdeak hotel garestietako komun luxuzkoetan. Diruduna da edo, hala agertu nahi du, behintzat, horri jaramonik egiten ez dion jende presatiaren begietan. Loredun soinekoak atsegin ditu Kontxitak eta bitxiak egunero aldatzen ditu. Zapata pare desberdina dauka soineko bakoitzeko. Begiak margotu eta ezpaintedakoa ez du ahazten aukera duenean aho ingurua berrapaintzeko. Masailetan ere ematen du hautsik eta “Gucci” markako betaurreko garestiak ditu beti soinean. Ez omen du dioptriarik emaztekiak, baina hobeto ikusten du antza bai mundua eta bai bere burua bi beira horien gibeletik. Ederra da Kontxita. Ameslaria, irudimen handikoa, koketa. Ez nuke zoriontsu denik esango.

Sekula ez du sukaldean ikasi eta zaharregia omen da orain trebatzen hasteko. Jatun ona da hala ere. Plater berriak dastatu eta janari azoketan gora eta behera ibiltzen da ponpoxo-ponpoxo proba-plateretara eskua inolako lotsarik gabe behin eta berriro luzatuz. Patea, gazta, txorizoa, piperrak, gozoak... denetarik jaten du ase gabe.

Edariari ez dio muzin egiten; marianittoa du gustukoen bazkaldu aitzin, ardoa artean eta whisky kopa gero. Gehiegi edan ohi du sarri.

Bazkaltzera etxetik kanpora doa egunero. Harritzekoa bada ere, jatetxe merkeetan gozaten du otordua. Menuak atsegin ditu, kantitate eta prezioa alderatuta inbertsioak aski onak direla iruditzen baitio. Jatetxe txinatarrak ere arrazoi bertsuak azalduz defendatzen ditu. Alemaniako lukainka handiak jatera ere joaten da maiz, ketchup-a eta mustarda lagun. Ondokoak bitan errepikatzekeo gai da Kontxita; gozozalea da oso.

Kontxitak ez du bakardadea maite. Hitz egitea du denborapasa nagusietariko beste bat. Erreztasuna du jendeari hurbiltzeko. Edonorekin topatuko duzu hizketan. Terrazan kafea hartzen ari diren ama-alabei haiekin jartzeko baimena eskatuko die, dendako erakusleihoari begira dagoen andreari manikiaren izter zein gonari buruz egingo dio eta parkeko bankuan dagoen gizonari zorabiatuta dagoela eta, ondoan eseriko zaio.

Hizketa gai jarria du Kontxitak: Donostia goraiatzan du beti kanpotarren aurrean. Ulertu ala ez. Gasteiztarrei itsasoa falta zaiela azaldu eta bilbotarrei haien hiria zeharo zikina dela botako die. Donostiak behar luke Euskal Herriko hiriburu!

Istorioak asmatzen sekulakoa da; irudimen izugarritz sortzen ditu kontakizunak. Ezin jakin zer den egia eta zer gezur. Alaba Madrilen zuela azaldu zion behin liburu bat bakardadean irakurri nahian zebilen emakumeari. Lehenago etortzen zela bisitan baina aspaldi zela bere berririk ez zuela. Lana besterik ez omen zion ematen agertzean. Jana prestatu behar izaten ziela bai alaba eta bai bilobei, eta erosketak ere halako hiru bilakatzen zirela. Eskerrak Maritxuri! Zerbitzari jatorra omen da oraindik ere etxea garbitzen diona. Berak prestatzen zizkien hiru menu desberdin: Kontxitarena, alabarena eta haurrentzakoa. Elkarrekin haserretuz geroztik ez zen itzulia.

Senarra zuen hizketa-gai beste askotan Kontxitak. Hiru izaera, pertsonaia, istorio, kontakizun, bederen, badira honen inguruan. Pozik dagoenean, senarra itsasoan hildako arrantzale ausart eta prestua zela azaltzen du. Olatu artean idatzi eta portu urrun bakoitzean posta bilatzen zuen gizonak. Igorririko gutun guztiak ondo gordeak dituela eta sekula ez dela halako gizon ederrik izan berresten du behin eta berriro. “Barnetik eta kanpotik ederra” . Bere bihotzeko azukre koxkorra. Neska-mutil gazteei hurbildu eta jaramonik egiten ez diotenean, beste taktika bati ekiten dio, lastimaz entzungo dioten esperantzaz. Alu purtzil horrek bakarrik utzi du hogeit urte gazteagoa den buruarin bat dela eta. Gona labur eta bularretakorik gabe kamiseta estuetan titi puntak agerian daramatzen lotsagabe batengatik. Umore handikoa.

Barregarria ere bada Kontxita. Umore handikoa. Irri algarak eragin zizkion konplizidatez entzuten zion emakume edadetuari larunbat arratsalde: “Ez al didazu ulertzen? Asper-asper eginda nauka gizon zahar horrek (senarrari buruz) ! Berrogeita hamar urte elkarrekin jadanik. Paseorik ez, jatetxe txinatarrak ez, eta Donostiaz ere nazkatuta dago dago! Popatik! Futbola eta besaulkia besterik ez ditu atsegin horrek. Ez, barka! Soziedadea, kartak eta lagunak dira garrantzitsuen. Hori guztia da lehen mailakoa, eta ni horren guztiaren ondorengoa: putzaren putza. Kitto! Berak bere bidea eta nik neurea. Nazkatu naiz! Berrogeita hamar urtez elkarri esan beharrekoak hamaika aldiz errepikatuak dizkiogu!” Eta barre egin zuen gustora eta harro.

Ile-apaindegiez, arropa-dendez, eguraldiaz, telebistaz... ere ari daiteke Kontxita. Kafea Londres hotelean hartzea du plazer. Eguneko zigarro bakarra ere bertan erretzen du. Kea airera barreiatu artean erlojuari begiratzen dio norbaiten zain bailego, egunero. Eta baten bat inguratuz gero, ondoko aulkia libre ez dagoela dio irmo, iristear dagoela jabea. Zigarroa bukatuta, ispilutxoa atera eta batetik bestera ibiliko da zimurrak ondo

estalita daudela ziurtatuz. Lurrinez hornituta eta zut-zuta aterako da hoteletik gehiegizko propina utzita zilarrezko platertxoan. Astean behin Londres hotelaren atzealdean dagoen Donostiako gozotegi ospetsura abiatzen da: “Leonidas. Casa del chocolate belga”. Han berrehun gramo txokolate erosten du gaez telebista aurrean jateko. Txokolatea bihotzminen kontrakoa dela esandakoan, irribarre egiten du bera pozik dagoelako dudarik izan ez dadin, badaezpada, eta saltzaileei Goenkaleri sor jaten dituela gozo guztiak azaltzen die.

Telebistan Jose Mari Iriondo du gustukoen eta Andoni Aizpuru ere atsegin du. Oso plantakoak biak. Zuzenean hitz egiten du biek. Andonirekin maizago haserretzen zen lehen, itsasoa zakar eta eguzkia estalia izango zela iragartzen zuen egunetan. Horrelakoetan Kontxitak telebista itzaliz kentzen zion hitza Aizpururi bi oihu bota ostean. Kontxitak eguzkia maite du. Eguzkia eta itsaso barea.

Kontxitak Donostiako zinemaldiko egunetan ez du erraz lorik hartzen. Normalki baino beranduago etxeraten da eta lehenago irtetzen da goizaldera. Glamour-a gustatzen zaio, soineko berezi eta dotoreak, hanka luzeak, limusina beltzak, alfonbra gorria, trajeak, jende metaketak... Filmeak dira gutxienekoa! Nikole Kidman du gustukoen. Hoteletako zerbitzariei galdetzen die bere berri eta kremadun kafea hartzen duela jakin zuenetik, ez du besterik eskatzen Londreseko kafetegian. Laurogeita hemeretzi zinemaldian hogeita bost metrotara izan zueneko egunean apetitua ere galdu zuen Kontxitak. Tom Cruise ez du batere maite, ordea, eta nahiago du Euskal Herriko lurretara hurbiltzen ez bada, bere “Gurutze” hori ondoan duela; horrela esaten baitio Penelope Cruz-i.

Kontxitak ez ditu bakardadearen hatzaparrak zimikoka sentitu nahi. Bakardadeari muzin egiten dio, ihes, saihesten ahalegintzen da. Horregatik uzten du beti egongelako argia pizturik, etxera itzultzean kaletik gela beroa sumatu eta bakardade beltza uxatzeko. Telefono kabinetatik ere etxera deitu eta mezuak uzten ditu erantzungailu automatikoan, iritsi eta “tienes dos mensajes” ahots elektronikoak bizirik sentiarazten baitu. Hala behar du izan.

Kontxitaren urteburua da beste egun giltzarri bat. Iristear dagoen eguna. Lehenago hasten dira prestaketak. Irratira deituko du eta goizeko hamarretarako, iratzartzeko ordurako, kantu bat eskatuko du. Berarentzat. Bere belarrien gozagarri. Mezua halako zerbait izan liteke: “Nahikoa begirada bat. Nahikoa irribarre bat. Zorionik beroenak zuretzat. Maite zaitut”. Eta Donostialde osoak Laboa entzungo du. Bigarren prestaketa, eta garrantzitsuena, lore dendara joatea da. Bertan larroxa dotzena pagatuko du eta bere etxera urriaren hamaikagarrenean, Maria Soledad-e egunean, igor dezaten agindu. Ez du txartelean ez notatxorik, ez firmarik, ezarriko. Beti pentsatu izan du enkargu banatzaileak kuxkuxero samarrak direla eta nahiago du urteroko planta berberak egiten jarraitu. Aztzezle oso ona da Kontxita. Masailak normalki baino gorriago margotu eta “norenak ote dira?” oihu bat botako du auzokide guztiak lore sorta jaso duela jabetzeko moduan. Joko polita asmatuko du gainera gero besaulkian eserita. Bere printze urdina irudikatzen igaroko du ordubete inguru. Halakoxeko gizona nahi baitu berak ere: irratian kantak eskaini, telefonoz deitu, loreak bidali, bazkaltzera joan eta kafe kremaduna Londres hotelean berarekin hartuko duen gizon plantakoa.

Egun eguzkitsua. Irratia piztu dut eta ahots ezagunak eskaini dizkio emakume bati zorionak eta kantu ederra: “...zure begiek, ene maitia, badute biek dirdir ezta...”. Betiko bidea egin eta liburuxka gorriarekin hurbildu naiz Kontxitaren atari ingurura. Eguneroko bidea. Helburua: nire ipuineko protagonistari buruzko datu gehiago biltzea.

Larrosa dotzena batez ikusi dut mutil gaztea atarian sartzean, bai eta modu berean bertatik irteten ere, loreak eskuan, bueltan. Urriak hamaika ditu gaur. Oraintxe etorri zait gogora zer egun den. Bitxia Kontxita etxean ez izatea.

Orduak pasa eta pasa. Zigarro pakete bi erre ditut dagoeneko. Etxera itzuli naiz. Arratsaldean hurbildu naiz atari aitzinera berriz. Eskela hotz bat beira ilunean: “Soledad hil da, hirurogeita hamasei urte zituela urriaren hamaikagarrenean”.

Dena irudikatu dut tupustean: Soledadek ez du Laboa entzun, ez du lore sortarik jaso. Soledadek eguzkia maite du. Soledadek ez du bakardadea maite. Itsasoa bare eta eguzkia onenean joan da. Apika Maritxuk antzemango du bere hutsa gehien. Edota kafetegian, Kontxan, zinemaldian... libretatxo gorria eskuan jarraitu dion sasi idazle gazteak. Oroituko da “Kontxitaz”-z dudarik gabe, sentituko du bere hutsa, honen irudimen eskasak ez bailuke libretatxo gorriko hainbeste orri bete ahalko. Kontxitak, Soledadek, Bakarnek bai.

Oraintxe bertan etxe aurrean Madrileko matrikula duen autoa geratu da. Emakume bat bertatik irten eta atarian sartu da, negarrez.



**Leire Unamuno Kaltzada**  
**DBHO 2. maila**

*Bizitzaren artea, bizitza artelan bihurtzea da.*

## **AMETSAK EGIA BIHURTZEAN**

Zerbaiten iraupena, hots, denbora, oso erlatiboa izan ohi da. Batzuetan bost minutu nahikoa eta sobera izaten dira bizitza berri bat amesteko; beste batzuetan aldiz bost minututan ezin da lorik ere hartu. Orduak, hainbeste minuturekin; minutuak, hainbeste segundorekin... eta ez dago denbora nahikorik.

Bizitza berri bat hasi nahian dabil Kaia, udako zero oskarbiaren koloreko begi urdindun neska. Sudur txikia dauka ia ikusi ere egiten ez zaiona, albotik orezta txiki biribil askorekin apaindurik, gabonetako arbola boleak apaintzen duten moduan. Azpian ezpain luzanga eta lodi batzuk ditu, bere hortzeria perfektuaren espetze direnak eta irribarre egitean baino ez zaizko hagin ordenatu hauek ikusten. Hogeita hamar urte ditu. Hogeita hamar, urte gutxi hasiera batean; baina ondo pentsatuta, askotxo da. 360 hilabete eta 10860 egun gutxi gora behera. Orduei, minutuei eta segunduei dagokienez, zeresanik ez. Hala ere, Kaiak ez du uste denbora asko denik, gaztea dela pentsatzen du eta bizitza osoa daukala oraindik aurretik. Bere ingurukoek ordea, umea eduki behar duela esaten diote, bai senide eta bai lagunak; jada ordua dela, denborak hegan egiten duela eta ez dela konturatzen, jada nahiko heldua dela...

Kaia oso baikorra da eta umea izateko adinik ez dagoela uste du, bakoitza aske dela bere buruarekin zer egin eta noiz egin jakiteko eta inoren presioari kasu egitea lelokeria hutsa dela. Inguratzen duen munduari erreparatu dio eta oso jende gutxi, ia inork ulertzen ez duela sumatzen du. Denak planeta berean, Lurrean egongo balira bezala eta bera, Pluton izeneko planeta nanoan. Unibertso berean egon arren, hainbat argi urtetara sumatzen du jendea eta baita hurbilekoak edo familiakoak ere. Bere gurasoek ez dute ulertzen nola beren alabak oraindik ez duen seme-alabarik; bere ahizpak jada bi edukita eta bera baino hiru urte gazteagoa izanda.



Kaiak beti eduki nahi izan du ume bat baina beldur ematen diote hainbat gauzek. Ospitaleari esaterako, fobia dio. Fobia hutsa. Ospitaleko usaina esaterako, higuingarria iruditzen zaio, nazka ematen dio. Bertan pasatutako momentu txarrak ekarriko dizkio gogora agian, mingarriak, inoiz inori opako ez lizkiokeenak, batek jakin. Edo odola ateratzean, ziringa ikusten duenero, zorabiatu eta lurrera erortzen da. Odol gabe gelditzen dagoela sumatzen du, globulu gorrien faltan dagoela eta burmuinera informazio nahikorik heltzen ez zaionez; honek, huts egiten diola. Orduan, lurrera erortzen da, kartekin egindako dorrea haizearekin erortzen den moduan. Edo operazio geletako pi-pi-pi geldo horrek beldurtzen du, inoiz pipipi jarraia bihurtzeak. Edo, edo, edo... ospitalean dagoen edozerk gaizki jartzen du. Zer esanik ez batzuetan telebistan ematen dituzten haurdunaldiei buruz; komunera joan behar izan du askotan oka egitera; gela horretako argi horiek, bere ondotik hainbeste pertsona egotea maskarekin eta berdez jantzita, alienak bailiran...

Hogeita hamar urte eta ametsen mundura jotzen du Kaiak. Gurasoei bere bizitza aldatu nahi duela esateko moduren bat aurkitu nahian. Ametsen mundura, benetakoa, erreala zer den ez dakien espazio batera, denborak (bere kasuan ezinbesteko faktorea) garrantzia guztiz galdu eta ageri ere egiten ez den lekura. Hori da bere arazoari aurre egiteko (edo saihesteko, ez daki) lehen pausoa. Presio hori guztia gainetik kentzea eta bizitza berri bat hastea. Hori da bere ametsa. Hau guztia denei azaltzea litzateke irtenbidea, buruketaren soluzioa, X ezezaguna askatzea baina badaki ez zaizkiola hitz egokiak aterako, ez baita iaioa bere barrenak husten.

Astelehena da. Kaia, gurasoen hiritik hiru ordura dagoen beste hiri bateko apartamentu batean bizi da, irakasle dabilelako bertan lanean. Umeekin egun guztia bera umerik gabe. Hirien arteko distantzia, hiru ordutakoa da, bai; baina badaki zoritxarrez, gurasoekiko distantzia hainbat argi urtekoa dela. Gaurkoan, lana bukatua du jada eta neguko hotzaren mehatxupetik salbu sentitzen da apartamentuan. Erabakia hartuta dauka, agian ez da ona barrenak ahoz husten trebea, baina idatziz inor baino hobeto mintza daitekeen zalantzarik ez dauka. Bere logelara joan, sama suge baten moduan inguratzen dion artilezko bufanda kendu eta txamarrako botoiak askatzen dituelarik, tiraderatik orri bat hartu du.

Atzamarrean, ziztada bat sumatu du. Orriaren hagin zorrotzekin ebaki da. Albait arinen tiritak baten bila hasi da, badakielako odol asko ikusten badu zorabiatu egingo dela. Apartamentu guztia hankaz gora jarri ondoren, unibertsoaren kaosaren pare, bat aurkitu du. Honen kolore ezberdinetako animaliei begira jarri da. Txikitan amak jartzen zizkion tiriten antza hartu dio eta irribarre egin du, momentu batez ziztadaren mina eta bere buruhauste guztiak ahaztuz. Poliki-poliki jarri du, tiritak kolorea nola hartzen duen ikusi nahian baina begirada kendu behar izan du, burmuinera informazio gutxiegi doakiola sumatuz edo. Ordurako, ziztadaren minaren antzera, ahaztua du zertarako atera duen hagindun orria. Hala ere, atzamarrean kapelaren lana egiten dagoen tiritak lehentxoago zenbait gauza ahaztarazi dizkion moduan, gogorarazi dio zertarako den. Jarraian boligrafoa hartu eta idazteari ekin dio. Bost minutuan idatzi du gurasoentzako eskutitza. Bost minutu, gutxi. Nahikoa baina bizitza berri bat amesteko. Umea adoptatuko du Kaiak. Postontzira hurbildu, eskutitza bota eta tramite guztiakin hastea erabaki du ahalik eta lasterren. Badaki zaila izango dela, hasteko, herrialde askotan, guraso bakarreko familiei ez dizkietelako umeak adopzioan ematen. Gainera, gurasoak bi izanda ere, oztopo asko daude umea adoptatzeko eta honetarako, batzuek urteak eta urteak ematen dituzte. Beste batzuek beraien bizitzaren parte handi bat.

Kaia hilabetean behin joaten da familia bisitatzen, lana dela eta, ez daukalako denbora askorik. Hilabete pasa da jada azken bisitatik eta eskutitz hura bidali zuenetik; beraz, autoa hartu eta hauek ikustera abiatu da. Ohi baino ilunago ikusten du zerua, lainoen kolore gris ilunak ezer onik ekarriko ez duela sumatzen du. Autobidean sartu bezain laster, euri txaparradak harrapatu du. Ur tanta lodiek, balen tankeran astintzen dute kotxea eta Kaia gerra baten erdian balego bezala sentitu da. Buruko mina egin dio tanten zalaparta gogorak baina zorionez, hamar minutuko kontua izan da. Amaigabeak ziruditen hamar minutu Kaiaren aburuz. Zerura begiratu eta zeruak kilo batzuk kendu dituela ikusi du, ostarteei begiratzen dien bitartean.

Azkenean heldu da gurasoen etxera, eta sartu bezain laster ezagutu du betiko bere etxearen usaina. Atea ixtean egindako zaratak ohartarazi die sofa arrosotan telebista ikusten dauden gurasoei norbait etxean dela eta hontzen moduan eman diote 90 graduko buelta buruari. Kaiak espero ez duen harrera eman diote, zoriondu eta sukaldetik tarta bat atera baitute, hiru pisutakoa. Bere urtebetetzean erosten dioten tarta bera da, hain gustuko duena; oraingoan zenbat urte dituen gogorarazten dion kandelarik gabe ordea. Pozik sentitu da Kaia. Pozik, bere gurasoen indarra ere beregan sentitzen baitu.

Urtebete pasa da Kaia tramiteekin hasi zenetik baina gauzak aurrera ez doazela iruditzen zaio. Urtebete, lau urtaro: negu oso bat, uda oso bat udazken oso bat eta udaberri oso bat. Hamabi hilabete. Egonezinak jota dago jada baina badaki gogor eutsi behar diola benetan nahi duena lortuko badu. Denbora gelditu egin dela iruditzen zaio; desagertu, berak behinola nahi zuen moduan, erlojuko orratzak mugitzen jarraitu arren. Hala ere, orain, iritzi ezberdinekoa da. Denbora ahalik eta bizkorren pasatzea nahi du. Tramiteak nola doazen ikustea gustatuko litzaioke edota zein ume den jakitea, zenbat urte dituen... edozer, baina zerbait. Mugitzea erabaki du. Telefonoz deitu dio umea adopzioan hartzeko paperak martxan jarri zituen neskari, baina ez dio hartzen. Urduri jarri da. Zerbait gaizki joan daitekeela pasatu zaio burutik. Alabaina ideia horrek izar uso batek agerian ematen duen denbora iraun du bere buruan, telefonoaren soinuak uxatu baitu.

Azkenean, urtebeteren ondoren entzun nahi zituen hitzak telefonoaren bestaldetik bere belarrietara pasa dira. Papel batzuk sinatzea falta zaio. Horrela, hurrengo hilabetean, Afrikara joango da bere alabatxoa izango denarekin hilabete pasatzera, eta dena ondo badoa, etxera eraman ahal izango du umea. Ezin du sinetsi, belarrietatik sartutako informazioak hotzikara eragin dio. Ez klariona berri eta luzeak batzuetan arbelean egiten duen soinu desatseginak sortzen duen hotzikara, baizik eta pozaren zirrarak sortutakoa.

Ahalik eta arinen joan da Kaia sinatu beharreko txostenaren bila eta bertan alaba izango denaren argazkia eman diote hainbat paper artean. Jarraian bere apartamentu txikira abiatu da Afrikarako bidaiaren prezioak ikustera. Normalean baino lehenago piztu zaio ordenagailua baina interneten konexioaren gabezia dela-eta, kostata aurkitu du bidaiaren prezioa. Klik bat eta badauka bidaiaren. Eskuak dardara egiten dio, adineko pertsonen kafearen katilua hartzen dutenean bezala. Klik bat, segundo batekoa. Agian denbora gutxiagokoa. Egin du. Orain lasaiago dago, labain bat lepotik kendu izan balu bezala sentitzen da, libreago baina ez daki zehazki zergatik.

Bizitza eta egunak hegan doazen moduan, bidaiaren eguna ere iritsi da. Kaiak ezin du sinetsi ere egin, ama izango da azkenean (edo espero du). Aireportuan dago, bere atearan zenbakia bozgorailuetatik noiz esango zain. Kaiak ez du Afrikara gauza askorik eraman nahi baina begibistakoa da aldean daraman eskuko maleta gorria

lehertzear dagoela, bazkalorduan gehiegi jan balu bezala. Azpiko lau gurpilei honen pisua garraiatzea gero eta zailago egiten zaie. Neskak nekez nabaritu du hegazkinean sartzeko azken abisua eman dutenean; izan ere, musikazale amorratua da eta aurikularrak belarriei itsatsita eramaten ditu ia beti, bere gorputzaren partetzat hartzen ditu jada.

Gutxiatik, baina hartu du hegazkina. Azafatek ematen dituzten betiko salbaziorako teknikak aditu ditu 3 hizkuntza ezberdinetan, zerbait gertatuz gero zer egin jakiteko. Grazia egiten diote. Hegazkinak benetan istripua izanez gero, bizirik irteteko probabilitatea oso baxua dela argi dauka Kaiak eta teknikak praktikan jartzea beraz, ia ezinezkoa. Gerrikoa jartzeko abisua ematen duen argia piztu da bat-batean eta segundu gutxira; txorien antzera sentitu da. Zuhaitzak, mendiak eta hondartzak azpian utzi ditu eta errepideetako kotxeei begira ari da; etxe bila dabiltzan inurriak iruditzen zaizkio, errepideetan galduta eta bide zuzena aurkitu ezin duten intsektuak. Bat-batean ikuspegia erabat lainotu zaio, ireki ezin den hegazkineko leihatilatik lainoak eta lainoak besterik ikusi ez duelako. Algodoi artean sartu da, algodoi zikin artean; jaietatik bueltan makillajea kentzean geratzen den kolorekoak baitira. Leioa ixtea erabaki du, forma gabeko eta kolore berdintsuko lainoak ikusteaz aspertuta. Bidaia luzea da, eta hau gogorarazteko ardura hegazkineko pantailek daukatela dirudi. Dena xehetasunez agertzen da, nondik dabiltzan, ze abiaduratan, zenbat falta den... Kaia bere aurreko pantaila begi gainetik kendu ezinik dabil, hauen artean erakarpen indarra balego bezala. Hala ere, ez zaio zaila egin ametsen munduan erortzea, azken egunetan ez baitu lo askorik egin eta hain gogorra zirudien erakarpen indar hori, aldarapenek; hots, loaldiak, zeroan utzi duela dirudi. Soinu batek iratzarri du Kaia, oraingoan ez da berak hainbeste gorroto duen iratzargailua izan baizik eta gerrikoa jartzeko abisu bat. Leihaila ireki eta eguzkiaren argiak itsutu du, lurreratzera doa. Kaiak jauzi bat eman du hegazkinaren gurpilek lurra ukitu duten unean eta txikitako garaiak gogoratu dizkio, hipikan ibiltzen zeneko garaiak, behin eta berriro ibiltzen baitzen gora eta behera jauzika zaldi gainean.

Azkenen iritsi da Afrikako herri bateko aireportura. Ez daki herriaren izena esaten, ezta ahoskatzen ere. Beti tratatzen da eta hitz egiten ez dakien ume baten legez sentitzen da. Badaki aireportuan Hào izeneko gizon bat daukala itxaroten eta maleta hartu bezain laster hasi da honen bila. Lehen begiradan ikusi du gizona; kartel bat dauka esku artean, Kaia, bere izena, errotulki gorritz idatzia. Gizon baxua da, nahiko sendoa eta betaurreko txiki batzuk daramatza soinean. Kaiak agurtu eta bi muxu eman dizkio baina honek aurrera jarraitu du kasu askorik egin gabe, hobeto esanda, hitzik esan gabe. Hasieran Kaiak, bere hizkuntza ezin ulertu dezakeela pentsatu du. Berari japonieraz hitz egitea bezala izango litzatekeela baina orduan konturatu da, bere tramiteak aurrera eramanez zuten neskak esan zionaz, eta bai bazekien bere hizkuntza. Argi dauka Kaiak, hitz gutxiko gizona dela; izan ere, harrera egitean ez ezik bidaia guztian ere ez da hitz bat bera ere bere ahotik irten. Ordubeteko bidaia, auto kaxkar eta sabai gabekoan, txikitako hipika klasean jarraitzen zuen oraindik ere gora eta behera. Eguzkiaren argiak azala zeharkatu eta erretzen diola somatzen du, krema etengabe ematen ari den arren. Hitzik gurutzatu gabe eman dute bidaia eta eguzkiaren argipean bititzeak gizona itsutu eta barruko hitzak irakurri eta esan ezinik utzi duela pentsatzen hasia da Kaia. Autoa inguratzen duen paisaia denbora guztian bera dela konturatu da; dena idor ikusten du, kolore tristeekin eta noizbehinka hainbat landare, ingurune horietan bizirik irauteko ezaugarriak dituztenak; kaktusak esaterako. Hautespen natural baten antzekoa gertatu dela pentsatzen du Kaiak, egoera gogorrenei aurre egin diezaiekeen landareak bakarrik biziraun dutela eta besteak zimeldu eta hil egin direla.

Hão-k kotxea herrixka batean gelditu du bat-batean eta pentsamenduen mundutik atera du Kaia. Iritsi dira eta Kaiak hotzikara sentitu du gorputzean zehar. Gizonak eskuarekin seinalatu dio eraikin bat eta neskak horra joan behar duela ondorioztatu du. Eskerrak eman eta egoera txarretan dagoen eraikin txikirantz abiatu da. Kaiak atea jo eta neska eskuzabal batek ireki dio, bere zain dagoela esanez. Neskaren atzean zarata handia nabari da, eta hortxe ikusi du Kaiak lehenengoz bere alaba zuzenean. Neskabila beltzarana da, begi handi eta ilunekin. Arropa berde bat darama soinean eta oinhutsik dabil korrika, bere ingurukoekin jolasten, irrifarrea ahoan. Kaiak inguruko horiek laster beste batzuk izango direla pentsatu du eta neskabila, Köng izenekoa, egokituko ote den beldur da. Eraikinean sartzeaz batera, umearengana hurbildu da baina honekin izan duen lehen kontaktua ez da oso xamurra izan. Begirada mesfidati bat bota dio Kaiari, ezagutuko ez balu bezala eta hala da; Kaia umeari buruzko informazioa jasotzen urtebetez egon den arren, honi ez diote ezer ere esan. Baina agian ulertzen ez diolako eta arrotza delako begiratzen dio horrela. Agian ez duelako berarekin egon nahi, batek jakin. Atea ireki dion andreak lasai egoteko esan dion arren, geroago Hão-k Kaia bere logelara eraman duenean, bere neskabilaren begirada mesfidati bera bota dio.

Egunak pasatu ahala, ezer aldatzen ez dela nabaritzen du. Hão-k eta Köng-ek betiko begirada mesfidatiarekin jarraitzen dute Kaiak ondo konpontzeko ahaleginik handienak egin arren. Ez daki norengana jo eta oso bakarrik sentitzen da. Pentsatu baino gogorragoa egin zaio hilabetea Afrikan eta denbora inoiz baino astiroago pasatu zaio. Etxera, bere ingurukoengana bueltatu nahi du umearekin. Bere ametsa da, amets handiena, eta baita ilunen ikusten duena ere. Hilabeteren ondoren, azkenean, utzi diote umea eramaten eta Köng-ek bere gauzen poltsatxoa hartu du, hainbat marrazki eta oroigarri barruan sarturik. Hão-k eraman ditu bi neskak aireportura eta bidaiari ez du inork hitzik esan, bidaiaria hila, aspergarria izan da.

Ordua da, etxera bueltan doan hegazkina hartzeko unea, eta bozgorailuek egin dute beren lana jada hegazkinean sartzeko lehen abisua emanaz. Kaiak Hão agurtu du eta Köng-i begiratu dio, honek ere Hão agur dezan ulertzeko saiakerak eginez. Ez dio ulertu eta Hão bera hurbildu zaio neskabilari besarkada bat ematera. Hegazkinerantz doazela Hão-ren garrasiak harritu du Kaia. Honengana hurbildu eta malkoak begietan azaldu dio behin berari ere alaba kendu ziotela eta ez duela berriro ikusi. Ez daki non egon daitekeen, ezta bizirik edo hilik dagoen ere, eta berak Köng eramatean beste norbait alaba gabe uzten ari dela, alaba zaintzeko baliabiderik ez duen norbait eta horregatik ez diola hitzik egin esan dio. Hala ere, bertan pasatako denborak erakutsi dio fidatzeko neska dela, Köng ondo zainduko duela eta barkamena eskatu dio. Kaiak zalantzarik ez izateko esan dio eta berriz bisitan etorriko direla esan dio. Oraingoan beste zerbait esan dio Hão-k Kaiaren alabari hizkuntza arraro batean eta oraingoan dezenteki agurtu dute elkar.

Hegazkinean eserita daude Kaia eta bere alaba. Bata bestearen ondoan. Kaiak egia bihurtu du bere ametsa, pozik dago baina alabak oraindik onartu ez duen sentsazioa dauka. Hegazkina aireratu eta gerrikoa kentzeko baimena eman dute, libreago dira orain. Neskabilari gerrikoa kendu eta honek kuriositatez begiratu dio zinta grisari, sugeek beren presa lotzen duten bezala lotuta eduki baitu. Gerrikoarekin jolasean hasi da baina gutxira, aspertu eta bere jesarlekutik Kaiaren gainera igo da. Besarkada bat eman dio eta ondoren bere gainean lo geratu da. Kaia, lurrean egotetik zerura egotera pasatu da, itsasoko ura lurrundu eta kondentsatu ondoren, laino eran zeruan gelditzen diren bezala. Zeruan sentitzen da, bai onartze keinutzat hartu duen besarkadagatik eta

bai literalki, hegazkinean dagoelako. Jarraian, bizitzaren pausatze botoiaren bila hasi da, momentu hau amaigabe bihurtzeko modu bakarra dela delako. Hala ere, badaki hodei guztiak euri eran erori eta desagertzen diren moduan, berak ere lurtean amaitu eta zoritxarrez, une hau bukatuko zaiola.



**Iker Aldamizetxebarria**

**BATX. 2. maila**

*“Segi aurrera eta beti gora!”*

# HAURTZAROKO MALKOEN MINTZOA

Euria goitik behera, neguko hotz hezea gu tirokatuz, aterki baten azpian. Biok elkarrekin zinemarako bidean. Zeinen beroa den maitasuna, zeinen beroak diren gure eskuen korapiloak aireratzen dituen uhinak. Aterki azpiko epeltasunean, suzko euri tantek inguratuko bagintuzte bezala, urez bustiriko kaleetan barrena goaz, eguzkiak, lainoen atzealdetik irten ezinean keinu beroak eskaintzen dizkigularik.

Biok blai eginda heldu gara zinemako sarrerara. Oraindik ordu erdi falta da filma hasteko. Bera sarrerak erostera doan bitartean, ni, zinema alboko kafetegira sartu naiz lekua hartu eta bi kafesne eskatzera. Kafesneak hartu eta mahai batera hurreratu naiz. Kafetegia, ia hutsik zegoen. Barra aldean bi gizonetzko, ezker aldean bikote bat, beraien aldamenean lau andre kafea hartzen eta gure mahaiaren ondoan, zortzi urte inguruko bi neska mutiko beraien amarekin. Biak barrez, biak alai. Zein ederra den haurtzaroa. Zein gozoa den familia. Zein polita den bi neba arreba elkarrekin jolasten ikustea.

Haurtzaroa, bizitzaren lehen urtaroa, udaberria urtearena den era berean. Urtaro alaiena, gozoena. Udaberrian dena da koloretsua, dena da polita, dena baketsua. Aire garbia, txorien kantuen doinu gardena eta loreen usai fina garraiatuz. Haurtzaroa ere, bizitzako udaberria da, koloretsua, polita, baketsua... Izan ere, ba al dago ume baten irria baino soinua alaiagorik? Ba al dago ume baten irudia baino gauza politagorik? Ume baten ametsak baino gauza baketsuagorik? Argi dago, haurtzaroa dela pertsona bakoitzari bidea zabaltzen digun atea. Haurtzaro zoriontsu bat, pertsona zoriontsu baten jaiotza izango da.

Nik aldiz, ezin izan dut haurtzaro zoriontsu batez gozatu, ezin izan naiz majiaz beteriko amets horietan murgildu. Nik ez dakit zer den ume izatea, zer den ume izateaz gozatzea. Bakardadea eta malkoak lagun, izara beltz baten azpian igaro nituen nire lehen hamabi urteak, beldurra izanik ezagutzen nuen sentimendu bakarra eta gorrotoa ene zainen jabe bakar bihurtzen joan zelarik.

Nik bi urte inguru nituela, aita eta ama banandu egin ziren arazo batzuk medio. Ezin izan dut aita baten maitasunik jaso, ezta aita bat maitatu ere, ez baitut bere oroitzapenik gordetzen. Hiru neba-arrebok, amarekin gelditu ginen. Neba zaharrena, ni baino bederatzire urte zaharragoa zen eta bestea lau urte zaharragoa. Ditudan lehen oroitzapenak, malkoez bustirik dira, kolore beltzez jantziak. Txiki-txikitatik arduratu behar izan naiz etxeko kontuez, amak, bere azken lau urteak gaixotasun baten kontrolpean eman baitzituen, hamabi urte nituenean betirako begiak itxi zituen arte.

Neba gazteena eta ni arduratzen ginen janaria prestatu, arropa garbitu eta ama zaintzeaz. Neba zaharrenak, etxetik kanpo pasatzen zuen denbora gehiena, lanean. Nire neba zen baina, ez ninduen bere arreba banintz bezala begiratzen. Bere begirada, amorrusuz margotutakoa zen baina irribarre batekin batera eskaintzen zidan. Errespetu handia nion, etxeko nagusia zelako. Gauero-gauero, oheratzen nintzenean, *"ondo lo egin"* esanez, muxu bat ematen zidan. Muxu gozoa, baina era berean, muxu hotza. Muxu horren hotzikaraz harrapatzen ninduen loak.

Hamar urte bete nituenerako, amari, ohetik altxatzeko indarririk ere ez zitzaion gelditzen. Nahiz eta itxuraz ume bat izan, jada heldua nintzen. Amaren ahultasuna ikusten nuen bakoitzean eta bere hitz apalak entzuten nituen bakoitzean, irribarre lurrindu eta algara izozten zitzaidan. Banekien denbora gutxi zeukala, noizbait gertatuko zela. Banekien, baina barneko korapilo askaezinari giltza aurkitu nahi nion, zorientasunaren keinu bat, bat bakarria bilatzen nuen bitartean. Baina, ilusioaren kriseilua, zatika apurtzeko zorian zen. Amak begiak ixteko beldur nintzen, amak arnasa galtzeko beldur nintzen, amaren ahotza entzutea baitzen zorientasunaren keinu bakarria. Benetan keinu motela, baina bakarria.

Gogoan dut, behin, oheratzean, ohi bezala neba zaharra gabon esatera etorri zitzaidan gau euritsu bat. Gaurkoaren antzeko egun bat zen, kanpoko euriaren soinu iharrak, zerua iluntzen duen egun horietako bat. Nire neba ohi baino beteago zetorren. Alkohol usaina zerion. Niregana hurbiltzean, inoiz ez bezalako hotzikara garratz bat sentitu nuen. Muxu hura ez zen beste gauetan ematen zidan muxu hotz hura izan. Gau hartan, gogoz musukatu ninduen eta eskuen kontrola galdua, gorputz osoa gogorki laztandu zidan. Ni beldurtuta nintzen, baina ezin izan nuen oihurik egin, ama aldameneko logelan baitzegoen. Nebak berean jarraitzen zuen bitartean, ni beldurtuta nintzen eta negar malkoetan ezkututzen zitzaidan gorrotoa lodituz zihoan. Bat batean, lo gelditu zen eta nik zer egin ez nekiela, amaren aldamenera jo nuen, ekaitzek lo egiten uzten ez zidatela aitzakiatzat hartuz.

Goizean, gosaltzera joateko adore gabe nintzen, baina amaren botiken ordua zen eta nahi eta nahi ez, jaiki egin behar izan nintzen. Neba ikustean, sekula ezagutzen ez nituen sentimenduetan hondoratu nintzen. Nazka, gorrotoa, amorrua... Baina zer egin nezakeen? Nebak aldiz, ezer gertatu ez balitz bezala jokatu zuen.

Gau hartatik aurrera gaua heltzeko beldurrez nintzen, neba edanda etorriko zelakoaren beldurrez, min egingo zidalakoaren beldurrez. Ez neukan inor barne izu hauei buruz hitz egiteko. Ama gaixo zegoen eta horrelako zerbait entzuteak, betirako ondoratuko zukeen, beste nebak ez zidan sinetsiko. Bakarrik nintzen. Bakar-bakarrik. Gainera, gau hartakoa gero eta sarriago errepikatzen zen, batzuetan gainera, are zakarrago jokatzen zuen. Inoiz ere ez ninduen bere arreba bainintz bezala ikusi, baina bere arreba txikia nintzen.

Egunak joan, egunak etorri, egoerak ez zuen hobera egiten. Batetik ama, gero eta okerrago eta bestetik neba, gero eta zoroago. Nahigabe guztiak, malkotan urtu nahi nituen, barnea lehortuta nuen, odola atsekabez pozoituta. Bi urte gogor, bi urte luze berarekin teiltupean. Nik guztia jasan behar izan nuen, amari atsekaberik ez ematearren. Guztia irentsi eta noizbait infernu hura bukatuko zela amestea besterik ez neukan.

Martxoak 11. Gogoan dut egun hura. Oroitzapenen ispilu mingotsean behin eta berriz islatzen den martxoak 11. Egun hartan, bakarrik nengoen etxean, amarekin. Arropak lisatzen ari nintzela, amaren deia iruditu zitzaidan. Bere logelara jo nuen eta han zegoen ama, nire zain. Ahal zuen neurrian eskua luzatu zidan. Bion eskuak korapilaturik zeuden eta amak, gelditzen zitzaion indar apurraz, bere ahotz ahula aireratu zuen:

*" Iritsi da. Banoa. Zaindu zaitetz. Badakit zer bizitzen ari zaren, badakit. Lasai, ez zaude bakarrik, ni beti zurekin izango nauzu, beti elkarrekin bihotzean."*

Negarrari eman eta gogor besarkatu nuen. Berarekin batera, nire parte handi bat itzali egin zen. Bere azken hitzak, nire bihotzean eramango ditut, nire azken hitzekin askatu arte. Noizbait amaren besoen babesa itzuliko zaidan esperantza bizirik diren ene zainetan.

Nik ez dut haurtzaroz gozatzerik izan, ez dut haurtzarorik izan. Haurtzaro zoriontsua, pertsona zoriontsuaren jaiotza da, baina nik, bira eman behar izan diot guztiari, neronek landatu behar izan dut lorea. Agian, udaberrian euria mantsoago erori izan balitz, eguzkiaren ahotsa ozenagoa izan balitz, uda epelagoa izango litzateke.

Malko baten presentzia nabari dut masailean. Bat-batean, muxu gozo bat eman didate. Nire mutila da, zinemarako sarrerak eskuan dituela. Aldamenean eseri eta beste muxu bat eman dit. Muxu horiek epeltzen didate uda. Muxu horiek laguntzen didate iraganaren leihoa ixteko giltza bilatzen. Maitatzeak, maitatua sentitzeak, maitasunak, pertsona zoriontsu egin nau. Haurtzaroko euria, haurtzaroko ekaitza, muxuen doinu mutuak baretu dizkit.





**Itsasne Foruria Asteinza**  
**DBHO 2. maila**

*“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako  
dakitenek erabiltzen ez dutelako baino”*

## **NOR DABIL HOR?**

Bero handia egiten du hemen barruan. Pareta heze eta umelen presentzia besterik ez dut sumatzen. Inurri bat unibertsoan den bezain txikia sentitzen naiz aurretik kendu ezin ditudan tramankuluz beteriko gelatxo honetan. Ezer ez zait ezaguna egiten, eta hemengo usain bitxiak atzera botatzen nau. Bai, beldur handia daukat. Egun gutxi daramatzadala esango nuke luzaroan egoteko oroitzapenik ez datorkidalako, bederen. Arraroa baina aldi berean jakin-mina biztuarazten didan urmaelean nagoela esan dezaket (urmael bezala defini badezaket, alegia).

Txipli-txapla jolasean igarotzen dut denbora, bakardadearen sentimendu larria uxatzeko edo, agian. Ezkutaketan jolasten ere ibiltzen naiz sarri, tramankulu hauez baliatuz. Baina bada neure onetik ateratzen nauen zerbait ere. Nire jarduera guztia baldintzatzen duen “faktore” bat, eta nire borondatearen aurka bizitzera behartzen nauena. Gela honetan gehien gorroto dudana dela esan dezaket. Bat-batean arineketa egitera bultzatzen nauena, edo lo egin nahi ez dudanetan, oztopatzen nauten tramankuluekin jolasteko gertu nagoenean, lasaitasunez egotera behartzen nauena. Eta konturatzen hasia naiz “faktore” horiek behin eta berriz errepikatzen direla denbora zehatz bateko tartean. Hala ere, gaur inoiz baino mugimendu handiagoak egin behar izan ditut eta zerbait entzuten hasia naizela ere esango nuke. Zer gertatzen da? Hau guztia gehiagorantz doala iruditzen zait eta ni hemen oso bakarrik sentitzen naiz.

Berehala dantzan jarri naiz, balantzaka “txuku-txuku” bezalako musika baten laguntzaz. Denbora luzez pasatu dut gorputza astintzen eta nahiko barregarria iruditu zait, emozio puntu bat ere izan duelako, baina norbaitek lagunduta dantzatzea nuke nahiago. Erakustaldi honekin bukatzean, berriro ere lasaitasunera itzuli naiz eta lo egiteko garaia dela uste izan dudanean, berriro ere mugiarazi naute. “Klon-klon” zaratotsarekin batera kirol apur bat egiteko garaia izango da, nonbait. Orduan, soinu honen laguntzaz harrapaketa jolasten hasi naiz, bakarrik nagoela ahantziz. Inork jarraitzen ez nauela ikusirik, deskantsutxo bat hartu dut. Soinua gaizki interpretatuko

nuen ziurrenik, niretzat berria baita hau guztia. Orain bai. Geldi egoteko aukera bat heldu zait, egindako esfortzuaren ordainsari gisa apika. Baina hala ere, bakean uzten ez nauen zaratatxo batek jarraitzen du nire barnean. Kolpetxo batzuk dirudite “tok-tok” bezalako hotsa sortzen dutenak. Hala ere, ez zait horren desatsegina egiten eta lo egitea lortu dut.

Ordu batzuen buruan berriro bueltatu da “klon-klon” zaratotsa eta oraingoan erne ibili naiz kirola egitetik libratzeko eta tramankulu zital horiei atxiki natzaie zer gertatuko den ikusteko esperoan. Bukatu da soinu hori, eta bukatzearekin batera berriro bueltatu “txuku-txuku” hori. Berriro hasi beharko ote dut dantzaldiarekin? Beste erremediorik ez daukadala ikusirik ekin diot irribarrez dantzatzeari.

Egunak aurrera doaz, eta ni hemen geldi nago. Ez dut aldaketa nabarmenik antzematen, baina orain hasieran baino leku txikiagoa daukadala esango nuke. Pixka bat gela estutzen hasia dagoela. Baina ez dakit traban dauden tramankulu ziztrin horiek txikitzen hasiak diren, edo ni neu naizen handitzen hasi dena.

Horrek erabat larritzen nau, baina egunetan zehar atera zaizkidan lau adar itxurakoek nire alde jokutzen dute. Haserre nagoenean hauekin bultzatu eta gelatxoan espazio handiagoa egiten baitut. Ezkutaketan jolasteko ere zailtasun handiagoa daukat eta lo egiteko ere ez dut horren gustuko, ez bainaiz oso eroso sentitzen.

Gose pixka bat ere sumatzen hasia naiz. Kanpotik helarazten didaten pastelaren usain goxoak sorrarazia, agian. Baina nola edo hala lortzen dute nireganaino heltzea, eta orduan pentsatzen dut horren krudelak ere ez direla ni baldintzatzen nauten horiek.

Eguneroko bizitza egiten jarraitzen dut nik. Dantza, kirola, jolasak... Badakit une oro zer egin behar dudan, egunero errepikatzen baita, eta hots bakoitzak gidatzen nau ondoren gertatuko denerako prestatzen. Hala ere, orain arte ezagutu ez dudan zerbait gertatu zait. Eguneroko mugimenduak egiteko zerbaitek oztopatzen nauela esango nuke eta ez da leku faltagatik, horrekin ongi moldatzen bainaiz momentuz. Beste zerbait da. Gauza arraro bat, eta gela kanpoan ohikoak ez diren mugimenduak sentitzen ditut eta zerbait gaizki doan seinale dela zin egingo nuke. Honen aurrean, ni babesten nauten adarrekin paretak astintzen hasi naiz beldurra gainditzeko erantzun gisa eta norbaitek paretaren beste aldean erantzun didala uste dut, lasaitasuna eskainiko balit bezala.

Onartu beharra daukat ezagutzen ez ditudan horiek segurtasun pixka bat luzatzen didatela, bakarrik ez nagoela erakutsiz. Pixkanaka, hasieran hain gorroto nuen urmael heze hori maitatzen hasita nago, sortzen dizkidan bitxikeriak albo batera utziz, gero eta erosoago sentitzen naizelako gela txikitxo honetan. Lasaitasun horrek nire jarrera apalarazten du eta inoiz paretak gogor astintzen baditut ere, zeharo gustura murgiltzen naiz bero goxo horretan. Hasieran gogaikarri egiten zitzaidana eguneroko entretenigarri bihurtu zait, eta non nagoen ez nondik agertu naizen jakin ez badakit ere, ez nau ezerk kezkatzen. Pozik sentitzen naiz hemen barruan.

Eguneko unerik onena kanpotik sartzen zaidan ahots ezti batez gozatzen dudanekoa da. Norbait kantuan ibiltzen dela esango nuke paretak gogo handiz eta maitasunez laztantzen dituen bitartean. Gainera nabaria da “Uxue, maitea” behin eta berriz errepikatzea, haurtxo abestiek laguntzen duten bitartean. Nor ote da Uxue delakoa? Nori deika ari ote dira? Eta zergatik maite dute horrenbeste?

Egunek aurrera dihardute eta nire egunerokoaren parte ziren hotsak guztiz aldatzen hasi direla igarri dut. Jada ez dut “klon-klon” hotsik ezta “txuku-txuku” zaratarik ere entzuten. Bukatu dira kirola eta dantzaldiak egin beharra, nonbait. Lasaitasuna eta bakea dira egunerokoaren protagonistak, kantu lasaien laguntzaz. Egoera ezin hobea dirudi, baina niri ez zait gehiegirik gustatzen, leku estuegian mugitu ezinik egoteak ito egiten naudelako. Deseroso nagoen postura honetatik ihes egiteko salto erraldoi bat eman dut eta honek guztiz lekuz kanpo utzi nau. Babesten ninduten adarrak guztiz posizioz kanpo geratu dira eta gelatxo handia zena, txiki-txiki bihurtu zait. Ez dakit ni naizen, edo mundua den aldrebes dagoena baina itzulipurdiak buruz behera utzi gaitu bata edo bestea.

Hala ere, egunero presente egon diren “tok-tok” hotsek, azelerazioz jarduten dute ohikoa ez den bezala. Nire haserrea azalertzeko mugitzen saiatu naiz baina alferrik izan da. Nire saiakerek ez dute inolako lorpenik izan. Beldur handia sumatzen hasi naiz norbait ni handik botatzeko indarrak egiten dagoen sentsazioa sentitu dudalako, nabaria da gainean daukadan presioa. Baina nork bota nahi ninduke horrenbeste denbora pasa dudan nire gelatxo honetatik? Zerbait gaizki egingo ote nuen?

Ez nuen egoera horrentzat azalpenik bilatzen, eta denbora aurrera zihoan. Berehala nabaritu dut gelaz kanpoko jendearen urduritasuna eta horrek ni ere larriagotu nau.

“Nino-nino” hots ozen bat entzun dut berehala, eta leku txiki bilakatutako gelatxoan berriz ere kirolean eta dantzatza behartu naute “klon-klon” hotsarekin batera baina oraingoan ezin izan dut behar bezala obeditu, ez baineukan espaziorik.

Bueltatu da bakea berriz, baina nik edo gelatxoak buruz behera jarraitzen dugu, eta urduritasunak ere presente jarraitzen du nire baitan. Kanpotik oraingoan ez da isiltasunik entzuten. Garrasiak eta negarrak dira nagusi. Zerbait gertatuko zaidan ikara daukat, norbaitek gelatxoaren jabeak beharbada, nire bizilekutik kanporatu nahi nauela sentitzen baitut eta nik barruan eta berak kanpora ateratzeko borroka horretan gabiltza. Biltegi ilun batean murgildurik jarraitzen dut nik oraindik.

Indar horrek ez nau gelatxoaren barruan geratzen uzten eta bat-batean beronen atea ireki da. Erabat itsuturik utzi nauen argi zuri bat agertu da urrunean. Ez dakit zer egin behar dudan, ezta seinale honekin zer adierazi nahi didaten ere baina nik nire horretan jarraituko dut badaezpada, iluntasun sakon honetan. Ez dakit geroak zer ekarriko didan, baina nik kanpoko kantuez gozatzen eta nire gelatxoaren paretak laztantzen dituen norbaiten esku geratu nahi nuke. Zer izan zitekeen argi zuri hori? Ez nuen seinale berri horren berririk.

Gogo handiz borrokatu dut nire gelatxoa babesteko asmoz, baina azkenean errenditzen hasi naiz, ni baino indar handiagoz tiratzen baitute kanpoaldekoek. Pixkanaka-pixkanaka burua kanporatu didate baina ez naiz askorik enteratu gertatzen ari zaidanaz, kanpoko izpi biziak ez baitidate ezer ondo ikusten uzten. Orduan negar eta negar egiteari jardun diot nire adarrak eta guzti kanporatzea lortu duten arte. Maindire luze batez estali nau pertsona handi handi batek, eta ezer ikusteko gaitasunik ez dudan arren, nabaritzen ditut pozezko ahotsak, baina beldur handiz jarraitzen dut, ingurune hau guztiz berria baita niretzat.

“Ama” deitzen diotenaren gainean jarri naute eta honek inork baino gehiago lasaitu nau. Gelatxoaren barrualdeko “tok-tok” hotsak berreskuratu ditut bere bularrean jarri nautenean eta horrek ziurtasuna eta babesia eman dizkit. Mundu berri honetan ezaguna egiten zaidan bakarria baita. Gozo-gozo nago “tok-tok” hotsak entzuten ditudan bitartean.

Denbora asko pasa da, eta orain uler dezaket gela txiki hori, amaren tripari zegokiola. “Klon-klon” hotsak ez zirela ni kirolean jartzeko abisuak, ama lanera zihoanean eramaten zuen takoi hotsa baizik, “txuku-txuku”ak ama lanera zihoaneko tren hotsak zirela, eta pastel usaina bere ogibideari zor zitzaiola, kanpoaldetik zetozen abesti goxoak ama eta aitaren ahots ezia zirela, eta Uxue maitea, ni neu nintzela.



**Jon Gorriño Arriaga**  
**HHI-EPAko ikaslea**

# **ARBASOEI BURUZKO GOGOETAK ETA ISTORIO LABUR BAT**

Hotzaldi handiko garaian, Solutrearen eta Madeleine artean, orain dela 17.000 urte gutxi gora behera, idatzi honen bigarren zatian datorren istorio laburra hasten da, Bizkaiko Ereñozar, Saxpilexeta eta Ondaro inguruan.

Gaur egun erraza da konputagailu eta kalkulu numerikoaren bidez garai hartako klima simulatzea. Egun badakigu kasketa polarra hemendik hurbil zegoela, gaurko Bordele ingururaino iristen zela eta handik buelta emanez planetan zehar, Europa deitzen dugun gehiena ehun metro altuerako izotz geruzak estaltzen zuela. Kontinente denean 25.000 inguru pertsona biziko ziren, haien erdiak babesleku Basko-Kantabriarrean.

Bertoko inguruak oso uniformeak izango ziren tundra motako landarediarekin, eta gizaki ehiztari biltzailea harmonian biziko zen naturarekin. Gizaki hau, gaur egun Cromagnon bezala ezagutzen duguna, hain trebea izanda, lehenengo aldiz lortu zuen kanpoan ikusitako animalien esentziaren abstrakzioa egitea, kobazuloaren bakardadean geroxeago adierazteko gaur ikusten ditugun hornidura ederrak. Dena dela, garai gogorrak ziren, eta eguneroko helburu nagusia norberaren eta taldearen osasuna mantentzea izango zen.

Ehiztari biltzaileak zirenez, bazekiten beharrezko karbohidratoak eta proteina begetalak sustraietatik eta fruitu helduetatik lor zitezkeela udan, eta fruitu lehorretatik neguan. Animalien proteinak lortzeko baliabide onak ziren itsastxorien arrautzak, karramarroak, txirlak, muskuiluak, herezak, lanpernak, maskor handiak, barraskiloak, magurioak eta abar. Noizean behin, kobazuloko horniduretan zuten margotutako bisontea,

oreina edo zaldia hiltzen zuten inguruko lurretan. Horretarako erabiltzen zituzten milenioetan asmatutako sukarrizko tresnak bereziki. Solutre deitutako lantza muturrak.

Ikusi dugun bezala, oraindik gizakiak ez zuen lanaren balioa bereganatu eta lurra landu gabe baliatzen zen bizimodua aurrera ateratzeko. Zentzu batean 10.000 urte geroagoko Neolito garaiko gizakiak baino mugitzeko askatasun handiago zuen Paleolitikokoak. Honen arrazoia, asken hau ez zegoela lurrari hain lotuta litzateke, lurra izoztuta egonik baliogabea baitzen nekazaritzarako. Eta hemen hasten da gure istorio laburra.

## ISTORIO LABUR BAT

Bare-bare zegoen itsasoa txaluparanz abiatu zirenean goiz hartan. Arrantzan egiteko asmoarekin zihoazen, beste askotan bezala, bikote bat, beren hiru seme-alaba eta Kobi, txakurra. Oso trebeak ziren denak pisu txikiko eta hezurrez eta uhalez egindako txalupa maneiatzen. Garai hartan Arketas zen toki aproposena txanelak gordetzeko, kobazulotik hurbil eta ibaiaren alboan. Han zegoen haiena beste batzuen inguruan. Marea beherantza zihoan eta aprobetxatu behar zen errez iristeko itsasora. Laster jarri zituzten sareak, trentzak, amuak, arpoiak, arkuak eta geziak, sua eta jatekoa prestatzeko tresnak, berokiak, jantziak eta txanela konpontzeko orratzak eta hariak. Kobik, kobazulotik arratoiak ateratzen eta arrantzatutako arrain galduak harrapatzen oso trebea zen txakurrak ere laster topatu zuen bere tokia txanela barruan.

Asmoa bi edo hiru eguneko joan-etorriko bidaiara egitea zen, itsas-txakurkumeak egoten ziren lekuraino. Oso estimatua zen haien okela, sua egiteko erabiltzen zuten euren koipea, baita narua ezinbestekoa zen jantziak eta txanela berrizatzeko ere.

Iceberg handi baten ertzerara heltzean, txalupa bere gainera igo eta eremu sendo eta segurua izanik, bertotik abiatu ziren itsas-txakurkumeak bilatzera. Asko zebiltzan inguruan, eta dozena erdi inguru harrapatu zituzten denbora laburrean. Baina laster konturatu ziren ez zutela egun egokia aukeratu; hain zuzen, eguerdi inguruan zerua ilundu eta izugarritzko ekaitza ekarri zuen.

Zorte handia izan zen ekaitza agertu zenean izotz multzo flotagarri handi horren gainean egotea. Txalupa barruan itsasoan, noraezean bizia galtzeko zorian egongo baitziren. Orduan txalupa olatuetatik urrun eta haizetik babestuta zegoen tontor batera mugitu zuten, berau itzuli eta bere azpian bazkaria prestatu eta ekaitza pasatu arte babesteko asmoz.

Honela bada, heldu zen iluntzea eta txanelaren babesean gau luze bat igarotzeko prestatu ziren, larruekin sarrera eta alboak ondo estaliz, goiko aldean kea ateratzeko zulotxo bat utziz. Ez zuten hotz handirik nabaritutako koipe ugari zeukatelako sua egiteko.

Hurrengo goizean egunsentiarekin batera konturatu ziren kostaldea ez zela inondik inora agertzen, bakarrik ikusten ziren inguruko icebergak olatu handien artean. Oso zaila izango zen itsaso harekin lehorrera itzultzea. Dena den, ez ziren larregi ikaratu, ohituta baitzeuden beraien burua arrisku handien erdian ikusten, bisontea harrapatzera joaten zirenekoetan eta hildakoa euretako bat izaten zenean bezala.

Horregatik laster abiatu ziren itsas-txakurkume gehiago harrapatzera. Eguerdirako lau edo bost egunetako janaria ehizatu zuten. Horrez gain, ur geza edo edatekoaren horniketa, bai berotutako izotzetik edo euritik lortu zuten.

Giro horretan igaro zituzten egunak eta gauak, icebergetik irten gabe, ekaitza ez zelako baretzen. Orduan konturatu ziren ez zirela sekula bueltatuko beraien ibaiaren bokalera, Urdaibaira. Haizeak eta ur korrante sendoek urrun xamar mugitu zuten iceberga eta ez zuten inolako aukerarik txalupan bueltatzeko beraien bizitokira.

Bizimodu berria ez zen hain txarra icebergaren gainean, ura eta jatekoa ez zen falta. Arrisku handiena, itsas-txakurkumeak handi bihurtukeran alde egingo zutela itsasoan zehar, eta horren ondorioz arraina izango zela jateko aukera bakarra.

Horrela joan zen denbora aurrera, egunak, hilabeteak... Halako batean zeruan antzar saldo bat agertu zen. Gerotxoago ahate batzuk, eta pentsatu zuten: *“Baliteke uharteren bat egotea inguruan.”*

Handik gutxira mendikate luze bat urruneko zeruan agertu zen; geroago kostalde luzea sartalde inguruan, izugarritzko lur eremua iparraldetik hegoalderantz zihoana. Haiek izan ziren zantzoak txanela berriz uretaratukeran, lehorrerantz abiatzeko ametsa beteko zela ohartu zirenean!

Hiru edo lau ordu geroago hondartza txiki batera iritsi ziren eta han zegoen tente urte askotako gizon bat. Hura izan zen poza ikusikeran balearen hezurrekin egindako lauburua bere paparrean, eta eskuan zeukan geziaren punta beraien erabiltzen zutenaren bezalakoa, Solutre motakoa! Orduan isilune luze baten ondoren gizonak esan zuen geldiro: *“Nire aitaren aitari entzunda daukat nola bera iritsi zen sortaldetik, ekaitz handi batek harrapatuta, izotz multzo baten gainean.”* Orduan heldu berriak hasi ziren aipatzen nola itsaso gainean agertu zen mendikate luze bat eta agureak serio: *“Haiek Apal Haitzak dituk.”*

Arteagako Josu Naberanek “Hitzen Koban” aipatzen duen legez, protoeuskararen garaian, adjektiboa izenaren aurrean jartzen zen, horregatik agureak ez zuen Haitz Apalak esan, aldrebes baizik.

Oharra: Gaur egun AEBtako genetista, arkeologo eta historialari batzuen artean defendatzen da Europar kontinentekoak zirela paraje haietara lehenengoak iritsi zirenak.







BABESLEAK:

